

Patri URKIZU

IDIAKEZ KASUAREN KRONIKA



Azaleko irudia: Francisco de Goya (Fuentedetodos 1746-
Bordele 1828), *Duelo a garrotazos* (Pradoko Museoa, Madrid).

Baina, non hago askatasun?

Urrun, etorkizun,

lanaren mendietarik eta

hilobi berrietarik haruntz.

Andréi Platonov (*Nobela teknikoa*, 1931)

I

ITZIAR GATZAGA MADRIDEN

ITZIAR GATZAGA doktore tesia prestatzen ari da Madriden. Moncloan jaitsi da Metrotik Lavapies-eko geltokian lantokira doan jende triste bezalako bagoi batera igo eta, non ia ez dagoen bidaiari gehiagorentzat lekurik, hauen artean zutik liburu lodikote bat irakurriz ikusten diren arren neska gazte batzuek. Badoa eskaileratan gora jendarte multzo presatiaren artean lurraren sabel zulatutik eta egun argira atera da. Udaberriko goiz hotz eguzkitsua. Taxi ilara bezeroen zain. Ikasle gazte batzuek Unibertsitate Autonomara eramango dituen autobusera igotzen daude eta besteak *Parque del Oeste* deritzanatik abiatu dira oinez Complutenserantz. Itziarrek ibilalditxo bat eman nahi du kantak ospetsu bilakatu duen *Puente de los Franceses* izeneko zubi ondoan dagoenetik fakultateraino. Badoa arin-arin, goizeko hotza astindu nahiz, hautsez beteriko pinudi arteko estratatik. Galtza bakeroak ongi estuak ipurdi masail

ongi moldatuetan, larruzko oinetako diztirant, dotore eta berri-berriak, blusa zuri brodatuz apainduak larruaren beltzarana nabarmentzen duela, kutun fin eta artistikoa lepo paparrean diti-erreka iradokitzen delarik, goretexezko beroki luze idekia, ilajea labur eta ezpainak gorri. Narru finezko esku maletatxo bexa zenbait libururekin eta Mac berria sartuta bizkarrean daraman motxila beltzean. Pinu, kipres eta urki tartetarik pasatzen diren eguzki printzek epeltzen dute goiz-ordu hau, eta denak doaz presaka lantokirantz. Noizik behin zozo beltz bakanak egan hartzen dute belarditik abarretarantz eta kattagorri bat ihesi ageri da grazioski arboladian. Maldan behera doa eta erreka antzeko batean amaitzen da. Zokotxoan zakur handi bat, isatza mugikor, aldamenean gazte argal, luze eta bizardun bat duela. Hau larrutsik ari da soina ureztatzen eta zikinak garbitzen munduaz ahantzirik. Marmola arruntez egindako monumentuaren oinarri karratu grafitiz betea eta gainean Mexikok Madrیدهko hiriarri 1979an eskainitako eskultura, non mila zortzirehun eta hamarrean Miguel Hídalgo idatzia irakur daitekeen, *Siendo contra los clamores de la naturaleza el vender a los hombres, quedan abolidas las leyes de la esclavitud.* Alegia, naturaren oihuen aurka doan zerbait denez gizonak saltzea, esklabotza zilegi bilakatzen duten legeak deuseztatuak gelditzen direla. Ikasle unibertsitarien zatiraikitako bi Egoitza handiren artetik hartu du irteerarik ez duen *Senda del Rey* izeneko kalea. Eskailera batzuek igo eta *Facultad de Ciencias Políticas y Derecho* dioen kartel bat iragan ondoren sartu da egoitzan Itziar. Harreman ordua dauka elkarrizketatua Jesus Prieto irakaslearekin tesiaz mintzatzeko eta egin beharrak prestatzeko. Ordu laurden bat gelditzen zaio

eta kafetegira jaisten da. Mahaitxoak irakasleez beteak daude. Ez du inor ezagutzen berria baita. Kafetxea eskatzen du eta liburu eta apunte zenbaiti azken soaldia ematen die erreparasatu asmoz tesiak bere ustez beharko lukeen egitura, eskema eta gaien ordena. Zurrutaldi batean irensten du azukrerik gabeko kafe mikatza eta badoa urduri irakaslearen bulegora. Atea jo du. Ahots sakon eta epel batek erantzuten dio:

— *Adelante.*

Atea ideki eta sartu da Itziar bulegoan. Irakaslea, buru soil eta betaurreko lodi batzuek sudur gainean, altxatzen da bere besaulkitik eta eskua luzatu ondoren esertzeko agintzen dio, lehenik berokia narruzko sofa batean bota ondoren. Adiskide baten alaba da duena aurrez-aurre *Derecho Procesal*-eko, alegia, auzibide zuzenbidea katedradunak. Honek bai Espainian bai eta Latinoamerikan ospe handia jaso du hitzaldi eta liburuak direla medio, eta bidaia ugari egin baititu unibertsitate batetik bestera. Hizkuntza ezberdinetan idatzitako tesiz eta liburu lodiz beterik daude apalak eta mahai gainean ordenagailu bat dauka biztuta, Mac markakoa. Zilarbizizko sagar kozkatua azalean dagerrena. Txikitan ezagutu zuen Itziar eta honen ikasketen berri eman izan dio lagunak, eta berak arretaz jarraituko diola agindu dio adiskide zaharrari. Egunen batean berarekin ekipoan lankide izan daiteke argi, artoski eta zuhur jokatzeko badu neskak. Oraingoz beka on bat lortua du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaritzan, azkarra dirudi, eta promesez beteriko etorkizuna iragartzen dio.

— Zer moduz aita?

— Oso ongi, goraintziak eman dizkit zuretzat.

— Itzuli ere nire partetik. Esaiozu ea noiz ikusten dugun elkar berriro.

— Bai emango dizkiot.

— Esaidazu, Itziar, zein gai hautatu duzun.

— Begira, irakasle jauna, badakizu Historiako gertakizunen oso zalea nauzula eta azkenean bibliografia gutxi aurkitu dudan arren gaia gaur egunekoa delakoan eta oso interesgarria jotzen baitut honako titulu hau ezarri diot: *La función del intérprete en los juicios durante la Segunda República: El caso de Francisco Idiaquez*.

Irakaslea pentsakor gelditu da une batez eta begirada sakonez barne barneraino sartu ondoren doktoregaia esaten dio:

— Eta zergatik preseski Idiakez?

— Nire aitona hil zuelako Errepublika garaian. Eta PNVk kasua interes bereziz, berea balitz bezala hartu zuelako.

— Bai, oso interesgarri deritzot gaiari, baina arriskutsua ere bai. Interesgarria, bai, orijinala eta ... zaila. Beraz kontu handiz idatzi beharko duzu dena, bai garaiko egoera sozio-ekonomiko-politikoaren panorama ahalik eta zehatzenik ematerakoan, bai eta ondorioak ateratzerakoan, badakizu nik baino hobeto egoera politikoa Euskadin oso delikatua eta grabea dena. Dokumentazioa Donostiako Justizia Jauregian

bilatu beharko duzu, baina baita ere Alcalá-ko artxiboetan. Dena den azpimarratuko dizkizut hemengo Liburutegian diren errebista espezializatu batzuek funtsezko artikuluzenbait irakurtzen joan zaitezten. Bestalde pentsatzen joan beharko duzu, oraindik honek presa handirik ez izan arren, zein irakasle nahiko zenituzkeen Epai-mahaietan egon daitezten, ni nire aldetik gaiarekin lotuta dauden zenbait irakasle espezialistengan pentsatzen hasiko naiz.

— Milesker eskaintzen didazun laguntzagatik. Hona egin dudana eskema.

Bi aldetik makinaz joa den orrialde bat erakusten dio tesi-zuzendariari eta honek begirada azkar bat eman ondoren esaten dio:

— Hasteko ez dago gaizki, baina hau desarroilatu eta gehiago zehaztu behar duzu. Beharko zenuke lehen-lehenik kasuaren azterketarekin hasi aitzin, sarrera gisara interpretaritzaren historia bat idatzi. Ez oso luzea, baina ez ere laburregia. Uste dut horretarako bai Interneten bai eta Euskal Herriko liburutegian aurki dezakezula materialik. Kontaktoan jarri behar duzu ere Donostiako Zuzenbide Fakultatean diren Gregorio Monreal eta Jose Manuel Castells irakasleekin. Nik uste lagunduko zaituztela, nire partetik bazoaz, oso lagun onak ditut eta.

— Bai, bai, saiatuko naiz. Dena den ahalegindu naiz Interneten nire bilaketak egiten eta ez dut gauza garbi handirik atera eta gustatuko litzaidake irakasle horiek ezagutzen baldin badute ikerketa gunerik beraiekin harremanetan

lehenbaitlehen jarri. Baldin baduzu beroien telefonoa edo posta elektronikoa eskertuko nizuke pasatzea.

Prieto jaunak atera zuen zeraman zamarra dotorearen barne-poltsikotik esku gida larruztatu bat eta Itziarrek bere agendan apuntatu zituen eman zizkion zuzenbideak.

— Begira, emango dizkizut ere beren etxeetako telefonoak eta zuzenbideak. Ondarretatik hurbil bizi dira, eta Fakultatetik ez urrun. Ea oporretatik itzultzean irailaren erdialdera edo hobeto lehen asterako lana aurreratua duzun eta erakusten didazun egindakoa. Ongi igaro uda eta lanarekin trabatua zaudenean, ez aurrera eta ez atzera egin ezinik, ez ahantzi atsedean hartzea, gero honen ondoren indar berriz helduko diozu lanari eta.

— Milesker aholku guztiengatik. Beraz irailaren lehen astean deituko zaitut elkarrizketa gauzatzeko.

— Oso ongi eta ez ahantzi esandakoak eta aitari goraintzi.

Musu eta besarkada estu bat eman zioten elkarri despedida gisara. Irakasleari oharkabeen begiak alkandora fin eta zuriaren botoi askatuek iradokitzen zuten diti-erreka trinko eta lirainaruntz abiatu zitzaizkion lipar batez, eta irri samur batez begiak begietan iltzaturik lagundu zuen bulegoko ateraino.

II

IKER IDIAKEZ REINA SOFÍAN

IKER IDIAKEZ igande hartan Madriden suertatu zen. Bakarrik zegoen eta egun osoa beretzat zeukanez gero patxada osoz orduak eta eguna igarotzeko erabakia hartu zuen. Esnatu zenean eta eskumuturreko erlojura behakoa bota zionean oraindik goiz zela ohartu zen eta loti alferrarena eginez irratia biztu zuen ezkererantz mugituz tekla. Ordu erdi bat begiak itxita, goxo-goxo izara zuri artean eta manta beroen pean igaro zuen jauzi bat egin eta aski da esan zuen arte.

Hortzak krema zuriz estali eta ikasitako moduan garbitu, beheiti-goiti eta goiti-beheiti. Bits zuria eskuz hedatu ondoren masailean, hau da, *Williams expert mousse* hidratatzailea, bizarra moztu makilatxo urdinei plastiko zurizkoa kendutakoan gillette finari eta dutxa freskagarria hartu, ongi neurtuz xanpua, orain ur beroa, ez hain beroa, eta bukatzeko ur hotzez astinalditxo bat. Toaila goxoz lehortu, bizarrondorengo *Cible*

hommes narru sensibleentzat kremaz igurtzi polliki bi masailetan eta orraztu ondoren betiko eran badoa ohiko arropa garbiz, eta leihoak idekita utzi ondoren kalera.

Madrideko kale zaharrek badute igande goizeetan halako xarma berezia. Ez da beribilen zaratarik entzuten. *El País* erosi zuen kioskoan. Idekita topatu zuen lehen tabernan sartu zen lasai mahaitxo batean eseri eta laranja zumoarekin batera kafesnea eta txurroak dastatzeko asmoz.

Munduko gora-beherak ezin okerrago dihoaz. Gerra Afganistanen, gerra Iraken, gerra Afrikan, eta gu hemen behale lasai gisara. Eduardo Haro Tecglenen zutabetxo labur, estu, zorrotz, ezkor eta adimentsua irakurri du mundu zabaleko berrien aurrean, albiste ilun eta tristeetan gehiegi sakondu nahi gabe.

Ordaindu eta goizeko eguzki printzen epela gozatu nahirik badoa Moyano aldapan gora, liburu kaxetetan geldituz eta denboraren poderioz erdi lizundu, erdi horixkatu, erdi zimeldu diren liburuxka merkeak gainbegiratur. Hain da aukera handia, ordea, eta bere poltsikoa hain urria, ezen nahiko lituzkeen liburu guztiak erosteko adina dirurik ez daukan. Musika eta bertso zaharretan, folklore iker lanetan aditua den zokoan gelditu da apurtxo bat eta Aita Donostiaren edizio zahar bat erosi du. Ez da merkea, baina ezta ere oso garestia. Honekin gaurkoz ase duela liburu zaharrekiko barrengo gutizia, grina eta gogoa, uste du.

Erretiroko parkean sartu da. Jendea, txandalez jantzia, korrika batera eta bestera, izerdi patzetan. Astia aprobetxatu

nahiz edo, etekina beraien denborari. Gero hortxe omen datoz belauniko eta xurmioko okertzeak, ez dakit nongo zaintiratzeak, lehertzeak eta bihotzekoak. Ez al da, bada, ederrago, pasealari presarik gabekoen gisan ibilaldira luze eta arin bat ematea, zuhaitzak, jendea, jolasean ari diren haurrak, futboleak dabilozan latinoak, begi-ninieiei plazer emanez kontenplaztea eta dastatzea? Beste garai batean Pío Baroja berak, beroki luzez, liburua poltsikoan eta txapela buruan, handik 1980an Madriderako hiriak brontzezko monumentua eraikitakoaren inguruan egiten zuen eran?

Ordu pare bat badabilela lasai eta barne-gogoetak beren bidea egiten ari dira buruko ganbaretan. Uhartez-uharte ari zaio nabigatzen gogoak eta hamaika egitasmo sortzen zaizkio itsas-ondotik ur azalera bere abiadura propioa hartu nahirik bezala, baina jakinik alde aurretik sekulan ez direla gauzatuko ahal izanen, eta beren etorkizuna iluna dena, hitsa, tristea, ezerezean amiltzea, alegia.

Bazkaltzeko garaia iritsi zaio, eta xerez idor bat, fino bat azeitunekin Etxegarai kaleko *La Venencia* taberna zaharrea, horma zaharkitu eta duela menderdia baino gehiago zuritu gabea zintzilikatuta dauden posterrak behatu ondoren, ikusten du ere delako makila luze ontzitxo estudunaren azpian errepublika garaiko banderatxoa – gorri-hori-more – ere mantentzen dela, ez dela utopia oraino erabat hil.

Santa Isabel kaleko ostatu batean igandeko menua hartzera eseritzen da, beste begirada bat egunkariaren errebista eranskinari emanez. Zerbeza eskatzen du, zeren

Madrideko eguratsa dela edo ez dakit zer dela, hemen beste lekunetan baino hobeto, oso ongi sartzen zaio garagardoa. Garbantzuak eta inguruneko salda gustagarria dago. Haragi xerra arrunta patata eta biperrez jantzia ere ez dago gaizki, eta besterik gabe kafea eskatzen du.

Kontua ordaindu eta badoa Reina Sofia Museora. Rafael Alberti eta bere garaiari buruzko erakustaldia ikusteko gogoz eta irrikitan dago. *Entre el clavel y la espada*. Krabelina eta ezpata artean. Egia esan ez daki, nola lot daitezkeen bi elementu horiek, baina bai, gerra denean batzuek bi elementu kontrako horiek lotzea lortzen dutela. Egia da ere agintariek eta esposizioak asmatzen dituzten komisariak kontrakoak ere intereseko deritzotenean irensteko ahalmen handia agertzen dutela. Non ote da giltza? Dena light egiteko jaidura xarmangarri eta liluragarri horretan, akaso? *A su Majestad la Reina Sofía*, erreginari eskainitako hamalauko lausenguz beteak erraiak irauli dizkio, ordea. Irudi eta pintura eder, komentariogile ezberdinen lanak, Albertiren ibilbide politiko, poema liburu, margo, marrazki, antzerki eta fotografiek, osatzen duten katalogo lodikotea erosten du, museoan begiztatua, lasaiago alokaturik duen korrala zaharreko apartamentuan dastatzekotan.

Juan Manuel Bonet, Carlos Pérez eta Juan Pérez de Ayala dira erakusketa honetako komisarioak (ene zein izen zatarra eta oroitzapen gaiztoz bete), eta bi mila eta hiruan Alcobendas-eko T.F. ARTES GRÁFICAS-eko inprimategian plazaratu liburu eder honek 571 orrialde, esposizioko 613 objektuen berri ematen duenak bi kilotik gora astun da, baina

irudien ederrak arintzen dute. Musikarekin, pinturarekin, teatroarekin eta bereziki poesiarekin izan zituen harremanak detaile handiz eta irudi ederrez osatzen da liburu hau. Batez ere gerraurreko irudiek eta fotografiek asebetetzen dute. *La Residencia de Estudiantes*-eko artista koadrilla hura. Picasso, Buñuel, Miró, Burmann...

Orain burua kargatu xamarra eduki arren, Lavapies aldera jo du baratxetto. Hemen urrats batzuek eman eta ohartzen da metrondoko ingurunea uhartetxo bat dela, non kantoï bakoitzean jende kolore, jazkera eta hizkuntza ezberdinekoak dauden, baina beraien artean harremanik gabe. Bakoitza bere klanarekin bizi da soilik. Aldapa beheetik eskuinerantz dihoan karrika eskuin partea da eta ez daude hemen Bilboko Ibaizabalen bokalean bezala aberatsak, baizik eta atzerritarrak, txino, arabiar, pakistaniak beren dendatxo ideki, taberna zulo eta jatetxeekin. Ezkerraldean, aldiz, betiko madrileñoak, kastizoak, mobidako gazteak, ia denak entzuten dituen solasen arabera, edo musikaz, edo teatroaz, edo zineaz interesatuak edo telebistako ofizioetan murgilduak dabilzanak. Errairik gabeko ejekutiboen atzaparren pean mugitzen direnak, eta horrela esplotatuak izatea lortzen dutenean bozkario neurrikoz beterik direnak, gainera.

Aingura bota du Ikerrek arratsaldeko ordu luzeetan eta hau amatatzeko asmoz futbol partida ematen ari den Abadia tabernan sartu da. Bete-betea dago. Giroa pil-pilean. Real Madrid – Barcelona ematen ari dira. Une batean Hierrok izugarritzko itsuskeria, sarrera gogorra egin dio Rivaldori. Jendearen oihuak. *Negro, lárgate. Sácale la tarjeta al negro. Mátalo.*

Alde hemendik, beltza. Aterakiok tarjeta beltzari. Hiltzak. Gaztetxo burgeskume batzuek dira antza horrela ari direnak karraxi egiten langile auzo honetan. Zerbait esan die agertu nahian falta Madrیدهko jokalariairena izan dela eta erantzuna azkar eta gogor iritsi zaio, *Vete a verlo a Barcelona.*

Ez du eztabaidarik sortu nahi eta berez anka egiteari deritzo hoberena. Aldameneko tabernara sartzea erabakitzen du. Atetik igaro baino lehen gora begiratu du eta inskripzio hau irakurri:

En el solar / que ocupa esta casa / estuvo en el siglo XVII / la / imprenta de Juan de la Cuesta / donde se hizo en 1615 / la edicion principe / de la / segunda parte / del Ingenioso Caballero / D. Quijote de la Mancha / escrito por / Miguel de Cervantes Saavedra / Conmemoración en 1905.

Beheraxeago: *Vinícola Mentrídana.*

Eseri da gaztain zur zaharrez eginiko baten mahai izkinean eta ohartu espazioaz. Lau mahaitxo. Bi zutabe eta mostradorean hamaika esaulki gora. Musika andaluza. Neskata gazte panpoxak eta mutil lirain, bizardun eta ile luzexta dutenak. Ondoko gaztetxo batek bere ixtorioak kontatzen dizkio neskato itxuraz intelektual betaurrekodunari, gelditu ginen afaltzera, - dio mutilak- eta lehenbiziko egunean kontu pila kontatu genion elkarri.

Mahaineratzen zaio tabernaria, txiribogin beltzarana. Ile gorrixka, begi berdeak, diti erreka eder eta jenerostuna, irri ezta. Entsalada eta postretako ahuntz-gazta olioztatua eskatu

du Solaguen ardoz bustitzeko asmoz. Une honetan bi gizon adineko sartu dira tabernan. Bat ezaguna du eta aurkezpenak egin ondoren mahaira gonbidatzen ditu, aretoan ia ez baita jada lekurik.

Italiako gora-beherak kontatzen hasi da ezezaguna edo ezagun berria, eta bi Italiak, iparra eta hegoa berexi ondoren, Aragoeko koroak eta espainolak Napolin, Sizilian izan zituzten harremanez mintzatzen da. Baita ere Veneziako jauregi, eliza, etxe zahar, kanaltto, tabernetako ardo zuriz eta tortilla pintxoez. Regata hitza beste asko bezala ere espainolek beraiengandik hartua daukatela.

Bologniako parte zaharraz, *Real Colegio de España* Gil de Albornoz kardenalak eraiki egoitza ikusgarriaz, jateko moldeaz eta antzeaz ere mintzatu dira, eta ardo erronda bat joan eta bestea etorri ia Italia osoko arte eta ezagutzen duten historiatxoari errepassoa eman diote. Pintorea baita solaskidea, adierazi dio zenbat miresten dituen pinturaz soilik bizi ziren margolariak, zeren eta benetan gogorra iruditzen zaion balizko erosleen esperantzan bizi izate hori, balizko errotak irinik ematen ez duenez. Manuel Palacios da mintzalaguna eta Italian egiten omen zituen erakustaldiak esan dio. Francoren diktadurapean Partido Komunistako kide izandakoa dela, hala nola Caranbancheleko presondegian igaro garaiaz eleztatu zaio. Une batean tabernako jabea, Unn izeneko emakume heldu, ilaje zuri dotorea, suediarra etorkiz, *la sueca* inguratu zaie eta beste erronda batera gonbidatu ditu. Bere bizitzako zenbait pasaiatxo ere kontatu dizkie hala nola bere herrixkatik hemezortzi urte zituela Parisera joan zenekoa, aitaren

puritanismo protestantetik ihesi, hala nola abentura, zerbait berri bila. Animatua baitaude kanturen bat edo beste saiatu dute, baina ez ozenki. Unnek Iparraldeko Itsaso hotzetara zihoazen marinelen kanta zahar bat ere abestu du, jakin nahiaren irrikaz eta gogoz gelditu delarik Iker zer zioten balea biltzaile haien hitzek. Gau orduak aurrera dihoazen heinean taberna husten ari da eta halako batean eztabaida bizian sartu dira hogeita hamar urte gutxi gora-beherako gazte batzuek. Egin ez dieten arren kasu handirik bat inguratu zaie eta ea musika arabiar haren ordeztu, ez ote duten musika judu edo sefardirik. Bera judua ote den galdetu diote eta baietz erantzun du modu txarrez. Unnek ihardetsi dio musika aukera kontuak zerbitzarien esku gelditzen direla eta haiei eskatzeko. Haserre bizian joan da, etorri bezala, ez baitzaio gogoko zuen erantzunik eman, nonbait. Derrepentean hara non hantxe ikusten dituzten judua eta moro antzeko gazte argal sudurluze bat builaka eta elkarri alkandoratik helduz. Iker, kezkatu, mahaitik ere altxatu da horrelako okasioetan ospa egitea edo urruntzea izan arren aholkugarriena. Halako batean, hantxe bertan, moroa, palestindarra omen zena, lurlean datza, dardarez, hil zorian. Unnek polizia deituko du eta Iker bere korralara erretiratu egingo da, biharamunean goiz hasi beharko baitu Reina Sofíako areto berezietan matrikula aski kostatu zaion *El Arte en la Segunda República* deitu masterra Valeriano Bozal arte kritiko saiogileak eta beste zenbait irakaslekin antolatua. Gauean ametsen artean gizon gazte bat ageri zaio, lurlean espaloin bateko kantoiean burua zintzilik eta iztartetik galipote koloreko odola dariola.

III

1931

BIGARREN ERREPUBLIKA ALDARRIKATZEN DA

BI MILA ETA BATEKO ekainak hogeita zortzi. Alenza kaleko geltokian hartu du Itziarrek Donostiarako autobusa, arratsaldeko lauretan. Ostirala da eta jendez mukuru dago ingurune osoa. Unibertsitari askok ikasturtea bukatu berri dute eta nabari zaie kargatuak doazela poltsez eta urtean zehar erabilitako hainbat trastez eta bartuloz. Ordenadorea, liburuak, raketak... Itziarrek larruzko poltsa handia utzi du bere zokoan eta erdi-aldean dagoen leiho ondoko besaulkian eseri da jertsea goi parteko arasan utzita. *El Mundo* egunkaria eta eleberri bat hartu ditu hala nola musika entzuteko belarrietako gailua. Gain begirada bat ematen hasi zaio duela urte batzuetako egunkariko erekortearen fotokopiari. *El Tribunal de Justicia del País Vasco ordena repetir el juicio que absolvió a Mikel*

Otegi del asesinato de los dos ertzainas. Euskal Herriko Justizia Epaitegiak errepikaraztea agintzen du Mikel Otegi egindako judizioa, non bi ertzainen hilketagatik aske uzten zen. Kronikagileak kontatzen du nola epaia baliogabe utzi eta herri-juratu berria eratzea erabaki den. Alegia, 1995eko abenduan tiroka bi ertzain hil zituen eta Donostian juratu zaharraren epai erabaki askatzailea baliogabetu den. Hots, nola Euskal Herriko Tribunal Gorenak, Fiskaltzak eta ertzainen familiakoek aurkeztu errekurtsoen balioa onartuz eta Mikel Otegiren defentsarena gaitzetsiz erabaki duen berriro berehala Juratu Berria eraik dezaten eta ahozko epaia berritu dadin. Eusko Tribunalak bere erabakia honetan oinarritzen du, alegia, Juratuak ez zuela esplikatzen hiltzaileari askatasuna emateko zituen arrazoiak, zeinak suposatzen zuen huts handia erabakian eta botoa emateko prozeduran. Kritikatzen zaio halaber magistratuari ez ziolako inoiz eskatu zituen duda-mudak eta zalantzak argitzeko, beraz, honek frogatzen zuela Juratuko inork ez zuela bere funtzio publikoa behar den eran eta eskatzen zaion arreta tipienez ere bete.

Mikel Otegiren askatze erabakia Herri Juratuak eman zuenean Euskal Herriko biztanle anitzengan haserre handia sortu zen, zeren eta epai-mahaikoek akusatua ez zegoela bere onean kontsideratu baitzuten, ez zekiela zer egiten zuen bere baserri aurrean eskopeta tiroz akabatu zituenean Ertzaintzako bi ajenteak.

Ricard Palacios, familia abokatuak epai berri bat Gipuzkoatik kanpo egin dadin eskatu du, zeren eta susma daitekeen epaileek beldurrez ekin ziotela erabakia hartzeari.

Ramon Jauregik ere beste hiri batean burutu dadin epaia galdatu zuen eta Joseba Egibar, bere aldetik juratuaren moldatze berri baten urgentziaz mintzatu zen. *El Mundo* egunkariak argi eta garbi uzten du bere desadostasuna Espainian juratua sortu den erarekin, zeren editorialistaren ustez errua eta hogena ez da soilik juratuarena, hau behar bezala irakatsia izan balitz bere erabaki guztien argudiatzearen beharraz besterik gerta baitzatekeen berau. Honela frogaturik gelditu baldin bada juratuak oker erabaki dezakeela, ongi aski gelditu da ere epaile berek erru larriak egin ditzaketela. Juan Mari Atutxa Kontseilariaren arabera Justizia osoaren deskalifikatzea eta ertzainak epaileen kontra jartzea ere lerratze arriskugarria izan zen, zeren legeak huts egin badezake behin, beti bada beste erakunde goragoko bat zeinak hurrengoan zuzen dezakeen aurreko hutsa.

Autobusaren leihatilarik ikuskatzen du Itziarrek mendietako ostertzaren marra eta honetatik gora zabaltzen diren zeru aratz, urdin eta garbiei so gelditzen da une luze batez. Navacerradako tunelean sartu aitzin mendi magaleko belardi oraindik berdez jantzita daudenak miresten ditu udako beroek eta eguzkiek kixkaldu aitzin. Segoviako lurraldeetan beheiti doalarik Interneten bitartez eta fakultateko inprimagailuan atera dituen bi artikulua irakurtzen hasten da. Bat Etika eta profesionalismoaz mintzo da, interpretaritzan eta itzulpengintzan nahita nahiezko eta behar beharrezko den zehaztasunaz, alegia, itzultzaileak behar duela errespetatu testu orijinala, hizkuntza batetik bestera igaraitan inolako eransketarik gabe, ez kenketarik gabe, eta nola norberaren

iritzi eta judizio perts onalak alde batera utzi behar diren. Beste artikuluak Nazio Batuetan interprete izandako Jesus Baigorriekin eginiko elkarrizketa aurkezten du. Honek Salamancako Unibertsitatean *La interpretación de conferencias: profesión para un siglo de guerras y de diálogo. Biografía de una profesión*, hitzaldi ospetsua eman zuen bere esperientziak interprete bezala kontatuz. Aipatzen du ere Parisen izandako Bake konferentzian, 1919an hain zuzen eman zela zela profesionalizatzeko jauzi handia, zeren bestalde ofizioa antzina-antzinakoa den. Nola 1941ean Antoine Villeman-ek sortu zuen Geneban lehen nazioarteko interprete eskola, nola Nuremberg-eko judizioan 1945ean magistratu bat kexu zen jeneral alemanen ahots sakon, bortitz eta zakarrak emakume ahots eskas, fin eta kantariz ordezkatzeko zituztelako. Nola Josef Stalin SESBeko, alegia, Errepublika Sozialista Sobietikoen Batasuneko gidari nagusiak beti esaten zuen bere solasaldietan hau, hura eta bestea burutu dugu, *jainkoari esker*, baina itzultzaile ingelesak sekulan ez zuen itzultzen esaldiaren amaiera politikoki ez zuzena baitzeritzon. Nola denboraren poderioz, ordea, interpreteak bere etxetik bata eta zapatilak jantzirik dituela ordenagailu, pantaila eta ekipo berezi batez bere lana egiten ahal duen...

Etxegarateko lepoa igarotakoan badoa autobusa jira-bira arriskutsuetan abiadura bizian. Ostertza gorrixkaratzen doa ilunabarrean hodeiek irudi arraro eta luzexta ikusgarriak sortzen dituztelarik. Pinudien mantxa berde-ilunak noiz behinka mendien magala ozpelago, ilunago, itsusiago bilakatzen du. Beheiti, herri aldamenera iristean abiada

areagotzen du eta zoro baten eran bazterrean aurkitzen dituen auto guztiak pasatzen ditu, deabruarengandik ihesi bailihoan.

Amara-Plaza hotelaren parera iristean Itziarrek izeba Margarita zain dauka eta poltsak busaren sabeletik atera baino lehen bi musu handi eskaintzen dizkio. Izebari ez zaizkio nabarmentzen urteen iraganak beste emakumeengan uzten dituen begietako eta aurpegiko ximurrak. Lirain mantentzen da, eta nabarmen da gimnasia joateko ohitura duela. Dotorezia aparte baina era berean xumez janzten da. Badoaz Gobernu Zibilaren aurretik Salaberria kalean barrena, berriketa eten gabe.

— Zer moduz, aita?

— Ongi, hantxe utzi dut bere liburuekin eta Ruth neskame ekuadortarrarekin. Ongi aurkitzen badu bere burua eta animorik badu agian irailean bisitatxo bat egingo digula, esan dit.

— Bai, estropada garairako, seguruen. Beti asko gustatu izan zaizkio. Eta zuk, zer asmo daukazu ?

— Telefonoz esan nizun bezala, oso lanpeturik nago tesiarekin, baina nekatu xamar natorren arren, egun batzuetako atsedena hartu eta berriro ekingo diot lanari.

— Ah, bai? Oso ongi. Eta senargairik ez al zaizu atera ?

— Atera, bai, bat baino gehiago, baina utzi ere bai aski agudo. Badakizu Estatu Batuetan bekarekin estudiatzen izan nintzenean izan nuela bat, baina harekin hautsiz geroztik ez

dudala batere gogokorik, fundamentuzkorik aurkitu, ez eta nahi ere tesia burutu eta lan postu bat segurtatu arte.

— Bale. Bazterretan nahi adina aukera izango duzu. Ez duzu presarik eduki behar gaur egunean, eta agian euskaldunen bat gustatuko zaizu oraingoan.

— Agian, zergatik ez?

— Begira, hauxe duzu zure gela eta zure mainua. Kristalezko mahai honetan ezarri dezakezu ordenadorea lan egiteko eta apal huts hauetan behar dituzun liburuak.

— Oh, zein ederra den leihotik ikusten den bista.

Eta musu eman zion berriro izebari, poltsak eta beste tramankuluak gelako zuradi diztirantan uzten zituen bitartean.

Piztu zuen ordenadorea eta berehala ipini zuen martxan grabaturik zeukan musika, alegia, gehientsuen gustatzen zitzaion Edith Piaf-en kanta: *Sous le ciel de Paris, ... les oiseaux du bon Dieu...*, baina Dalidaren bertsio gozoagoan, eta erritmoari jarraiki erdi kantari jira-bira bat eman zuen gela zabalean dantzari.

KM LIBURUTEGIA 1900. urtean Donostiako hiri barnean Bigarren Mailako Irakaskuntzarako eraikitako egoitza guztiz berria da. Aurrekaldean harrizko lau zutabe gorak ematen diotela greziar eta neoklasizismoko aidea. OPUSeko Ingeniaritza eskola ere izan zen eta 1993. urtean Imanol

Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusi zela eta besteak beste Xabier Unzurrunzaga arkitektoa, mantendu zuten aurrekoaldea eta barrena hustu zientziaren eta arteen leku egokia bilaka zedin. Ganbaran prestatu zituzten hala nola sotoan erakusketak egiteko espazio aproposak. Bi maila baditu eta zorua txit txukuna da. Sala ezberdinetan daude hemerrotekak eta estudio lekuak. Goisko partean kokaturik dauden liburuak irakurri edo kontsultatu ahal izateko kaian dagoen pantalan baten antzeko igarobidea dago eraikia inguru guztian.

Itziar goizeko bederatzietako dutxatu eta gosalduek ondoren, motxilatxoan Mac berria sartuta joan da pinpirinak bezain airoso eta pertxenta Koldo Mitxelena liburutegiko Fondo Gordeen Kontsulta Gelara eta lau mahai luzeetarik bat hautatu du, izkin batean leihorearen argia sartzen zaion ondoan eseririk, noizbehinka begiratzen duela Artzai Onaren katedralaren atzekoaldea eta jendearen joan-etorriak. Hemerrotekako egunkari zahar batzuek eskatu ditu, nortasun agiria, bertako karneta eta baimena lortu ondoren Julio Urkixoren aretoan ikertzeko. Hainbeste maite duen Mac ordenagailua motxilatik atera du, mahai gainean ezarri arreta handiz eta argi sarreran entxufaturik piztu du eta zenbait testu hautatu ondoren hasi da argazki makinarekin klikatzen eta laburpenak idazten.

Lizarrako Araudia, Estellako Estatutua deitu izan zaiona hasi zen irakurtzen eta ohartu beste zenbait kontu interesgarriekin batera puntu hauetaz. Jueza izateko Euskal Herrian bertan jaioa behar zuela izan epaileak edota bertan

bizitzen hamar urte eramán. Eta beste honakoaz ere, gaztelaniaz kopiátu zuena:

Exigencia inexcusable del conocimiento y hablar corriente del euskera demostrado ante un Tribunal designado por la Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia...

Tamalez ez zen onartu Estatutu hau Madrیدهko Gorteetan eta badirudi besteak beste Laugarren Tituluko 4. Apartatuan zioenagatik izan zela, non aipatzen baitzen Eliza Katolikoaren eta Euskal Estatuaren artean izan zitezkeen harremanez, zeren baitzioen Vaticanoarekin Konkordatoa ituntzeko aukera propioa ukan zezakeen. Beraz, Indalecio Prietok Parlamentuan esan omen zuen esaldi ospetsu hura, alegia, ez zeudela prest Espainian *Gibraltar Vaticanista* bat edukitzeko.

Dirudienez Bosgarren Tituluko hamaseigarren artíkuluak ere min egiten zien eta irentsezina zutena beste hura zen:

La lengua nacional de los vascos es el euskera. Ella será reconocida como oficial en iguales condiciones que el castellano. Todos los funcionarios así administrativos como policiales que presten servicios en los mismos deberán ser conocedores del euskera.

Euskara da hizkuntza nazionala, eta errekonozitua izanen da ofizialki gaztelaniak dituen baldintza berekin. Eta honelaxe bukatzen zuen:

Serán aplicadas al Estado Vasco todas las leyes y facultades no comprendidas en este Estatuto que las Cortes u el Gobierno de la República establezca en favor de otros Estados Federados y sean aceptados por el propio Estado Vasco.

Iruñean aurkeztu *Estatuto vasco-navarro* delakoa 1931ko ekainaren 14ean onartu zen eta biztanleen ehunetik 89,83 ordezkatzan zuen. Irailaren 22an 420 alkate, tartean 156 nafar, Madridera joan ziren aurkeztera halako harrera zabala zeukan Estatutua Errepublikako Behin behineko Gobernuan Presidentea zen Niceto Alcalá Zamorari. Komisio batek eztabaidatu zuen irailaren 25ean eta 26an, eta kontsideratuz Eliza-Estatuaren arteko harremanak antikonstituzionalak zirela osorik arbuiatua, baztertua, erretiratua izan zen.

Isiltasuna da nagusi salan. Leihartegietan liburu handi, lodi eta antzinakoak, *rara* bezala sailkatu ohi direnak. Julio de Urquijo bibliofiloak bere bizitzan zehar jasotako mendeetako jakintsuen uzta isilik dago, ongi zaindua, ikerle eta irakurleen esperoan, eta zaindarien esku abegikorren pean.

ALFONTSO XIII bere burua exiliatu beharrean aurkitu zuen Monarkiaren derrota zela eta 1931ko apirilaren Herri Hauteskundeetan gertaturiko emaitzen ondorioz, Errepublika aldarrikatu baitzen. Adibidez, Eibarren mila bederatzirehun eta hogeita hamaikako apirilaren hamalauetan, goizean goiz bazen Untzaga plaza inguruetan jende ugari. Zinegotzi

hautatu berriek (10 sozialista, 8 errepublikano eta EAJko bat) batzarra ideki zuten goizeko seiretan aho batez lehendakari funtzioetan legez Alejandro Telleria hautatu eta ezarri zutelarik. Honek eskertu ondoren tenienteak eta sindikoak ere aho batez aldarrikatu zituen:

Alkatearen Lehen Tenientea: Domingo Kortazar

Alkatearen Bigarren Tenientea: Juan de los Toyos

Alkatearen Hirugarren Tenientea: Eulogio Garate

Alkatearen Laugarren Tenientea: Martín Erkiaga

Sindikoa: Jose María Ojanguren.

Alkate eta kontzejalak atera ziren Areto Nagusiko Balkoira eta herriaren aurrean Errepublikaren hiru koloreko bandera, hau da, behetik gora more-hori-gorria mastaratu zuten txalo ugariren artean. Toyos jaunak hartutako erabakien berri eman zuen ahots goraz berriro, bibaka eta goraka aritu zelarik populua, egoitzako erlojuan goizeko zazpiak laurden gutxi zirela. *Plaza de Alfonso XIII* kartela kendu eta *Plaza de la República* ordainez ipini zuten.. Aitzindariak izan ziren.

Joakin Berasaluzek kontatzen duenez, *Acción Republicana*-ko egoitzan erabaki zuten 13an bertan, gauez, zerbait egin behar zela eta Fiat bat zeukan Gartzia delako batekin joan zen Eibarrera goizeko ordubietan iritsi zelarik bertara. Kaleak hutsik zeuden. Sereno batekin topo egin eta galdetu omen zioten, *Podría decirnos dónde vive Juan de Toyos*, eta erantzun omen zien, *Policías, eh!* Baina serenoak bere burua sozialistatzat agertutakoan, Toyos-en etxera zuzendu omen zituen.

Azken honen bertsioa da ere nola Toribio Etxeberria, Alfa fabrikaren sortzaileari proposatu omen zioten alkate izatea, baina honek ezezkoa eman ondoren erabaki zutela Alejandro Telletxea aukeratzea, lehen ere izana zelako.

EUZKADI Bilbaoko egunkariak Apirilak 15ean honakoa diosku:

EIBARren errepublikanuak jabetu dira ta len ixan dira endore ta zinegotzidak barrijari emon deutsoe udaletxian. Endoriak bakian ibilteko guztijai eskatu dautsi eta yente guztijak jai egin dau.

Apirilak hamaseian *Egunekua* deitu kronikaren barrenean aipatzen du nola Donostian bildu ziren bozkarioz beterik Ekintza-ko eta JEL-go jarraitzaileak Errepublika izendatu berriaren ospatzeko, baina ez zutela ahanzten Euzkadik duen laterria izateko eskubidea. Gauerdian joan zirela *Gora Euzkadi* deihadarka EL DÍA-ren egoitzaren aurrera eta hemen *Eusko Ereserkiya* kantatu zutela eta gau guztia ibili zirela kalez-kale zaratatsu donostiar gazteak.

Donostian ageri den ARGIA astekariak, Apirilak 19, bere 521. zenbakiaren lehen orrialdean Espainiako agintari berrien argazkia dakar: Azaña, Albornoz, Alcalá-Zamora, Maura, Largo Caballero, De los Rios eta Lerroux.

Herrietako kroniketara joanez Anaxtasio delako batek ohi bezala honakoak idazten ditu: *¡Viva la R...! eta oien antzeko birau nazkagarririk, Euskalerrian ez ditzagula geio entzun...* Antza denez ez da aldarrikatu Errepublika denon gustora....

Rafael Pikabea EL PUEBLO VASCO, Donostiako egunkariko zuzendariak azken hilabeteotan egindako artikuluen gogoetei jarraiki Apirilaren 30ean idazten du Erregea baino lehenagokoa dela Aberria, eta leialki kolaboratu behar dela, egiaz eta zuzen berri-berriak diren erakunde errepublikanoekin, batez ere bakea, lana eta ordena mantentzen saiatuz. Errepublika Espainiarraren ezaugarri nagusietarikoa federalismoa behar duela izan, eta Euskal Herriarentzat soluziobide benetazkoa autonomia osoan datzala eta Estatu euskaldun bat Espainia edo Iberiako Estatu Batuen Federazioarekin elkaturik lortzean.

TEGE-k JEME-ren heriotza albistea komentatzen du EL DÍA-n Donostiako egunkarian uztailaren 26an. Alegia, gauzak argi esatearren, Gregorio Mujikaren hilberria idazten duela Tomas Garbizuk. Mujika jauna Ormaiztegiko semea dugu, 1882ko abenduaren 24ean jaioa eta Donostian hila aurten uztailaren 22an. Zein galera handia izan den euskal kulturarentzat. Tomas baliatzen da aipatzeko Luzear adiskide jatorrak Zubigar idazleaz egindakoa ere, alegia, Ander Artzelus jaunak Tomasen anaia olerkaria zen Jon Garbizu Salaberria “Zubigar” deituraz lanetik etxera zihoala nola tren istripu batez hil zen Pasaiako portuko burdinbidean 1930eko martxoaren 23an, eta azpimarratzen du *Oraingo idazle onenen artian ere nagusiki azaltzen zen “Jeme” azkarra*. Eta honen lanen artean bereziki *Euskal Esnale*-ko hitzaldi labur eta politikak,

ARGIA-ko atala, *Euskalerrriaren alde*-ko lanak. Hainbat eta hainbat idazlan interesgarri.

IZPARRINGI ZAHARRETIK apartatu du begirada aski nekatuta Itziarrek eta leihotik so delarik zeru urdinean ikus daitezkeen hodei hegalariekin eta kaio ausartekin bat joan zaio irudimen bizkor, arin eta jostalaria...eta behin osabak kontatutako ixtorioaz oroitu da.

Telefonoak jo du Nartxixaren dendan, edo batzuek deitzen dioten bezala urrutizkinak. Sei, bat, bi, bost. Sei mila ehun eta hogeita bost.

— Bai, esan.

— Tomaxentzat enkargua. San Pedron egon behar duela lauretako. Moilean Bixente egongo zaiola zain.

— Oso ondo, pasatuko diyot agindua.

— Eskerrik asko. Ariyo.

Nartxixaren denda harrizko etxe armarridun zenbait duen kale nagusian dago. *Kuartela* deitzen den eta armarritzar bat daukan etxe sendora doan bidexkaren aurrez-aurre eta iturri baten ondoan. *Kuartela* deituriko armarria Gaintza eta Endara deituren armarri bateratua da, Frantzisko de Gaintza, izen bereko kapitain ospetsu eta Maria Domingo de Endararen seme eta XVIII. mendean Irungo erretore izan zenaren etxekoa. Dendan era orotariko jeneroak saltzen dira,

Ultramarinos deitzen diren beste almagaren antzekoa da zurezko mostradore txiki batekin eta paretean Arantzazuko kalendarioaren ondoan telefonoa dauka eskegirik. Une honetan ez dauka bezerorik, baina hantxe lagundu nahirik edo badabil endreduan bost urteko neskatilatxo bat.

— Ea, Mariatxo.

— Zer.

— Joan zaitez Garbizuren etxera eta emaiozu agindu hau. San Pedrotik deitu dutela eta lauretako kaian egon behar duela bertan. Batelan bila joango zaiola Bixente.

— Berehala nihoa.

— Hartzan biderako bi paxientxi.

— Mersi.

Garbizutarrak *Plaza de / la Constitución / 1837* plaka daraman udaletxearen saihetseko etxebizitzan bizi dira. Herritarrek *Hambrenekoak* goitizenez deitzen dute. Atzeko partean Markesaneke arboladia daukate, hala deitua Kartagoko Markesarena noizpait izana baita.

Ordu bi t´erdiak dira. Bazkal ondoren bizarra moztu kantu batzuk erdi buruz solfeatzeko dituen bitartean, txaketa zuria jantzi, partituren karpeta beltza hartu eta badoa beti bezain apain, xuxen, tente, paparrean gorbataren korapiloa dotore estututa, Tomax kaialdera kafetxoa *Gure Borda* ostatuan edan eta gero.

Goiko Elizaren paretik igarotzean hantxe ikusi du Mendaro Txirrixtaka bere bertso paperak harrizko esalkian ezarririk harri koxkor tiki bat ganean haizeak eraman ez ditzan azkeneko gertakizunen berri ohiko doinu errepikakorraz kantatuz.

Emendik itzuli juañ zan gobernantia,

Alkauete guzien induljentia, [...]

Besteri egin-azi sakrifiziua,

Ori zan alperraren deboziua,

Ziaro arruinatu digu naziua,

Ala ere bazuan estimaziua.

Pasaiako portuan arraunean bere batelan Bixentek daraman bitartean Tomaxek Errenteriako Eliza behatzen du urrutian eta oroitzen du bertan ospaturiko *Lehen Poesia Eguna*, ekainaren batean. Nola goizeko zortzi t´erdirako jende multzoa bildu zen Udaletxeko arkupeñan. Eta bederatzietan puntuan *On-Bide* zinema aretora abiatu ziren, eta dena bikain antolaturik zegoenez herriko gaztetxoek Olerki irakurketa izan zuten. Jean Dominique Julien Sallaberryren kantutegitik, Jean Barbier, Emeterio Arrese, herriko seme Koldobika Jauregi, Tene Mujika andereñoaren eta beste zenbaiten olerki batzu. Gero hamarretan Meza Nagusia Parrokian. Emale Koldobika Jauregi eta lagun Erraimun Laborda bere tenor ahots gora nabarmenaz eta Jon Azpiazu baritono ahots baxu sakonaz. Nola 1928an sortu zuen *Cum Jubilo* Meza kantatu

zuen koruak latinez, herriak, tipleak, tenoreak eta baxuak parte hartzen zutelarik harmoniatsu.

Elizako irteeran hantxe ageri ziren eskaileratan beheiti Joxe Mari Agirre “Xabier Lizardi” *Euskaltzaleak* taldeko lehendakaria, Nikola Ormaetxea “Orixe” idazle orexar eta jesuita ohia, Joxe Ariztimuño “Aitzol” Tolosako apaiz sutsua, Gregorio Mujika “Jeme” *Euskalerrriaren Alde* errebistako zuzendaria, Augustin Anabitarte donostiar eleberrigilea, Antonio Paguaga eta Migel Urreta politikoko eta hizlari iaioak, nor baino nor dotoreago, xaka, gorbata, txapela eta kapeluz jantzita, dantzariak zuriz jantzi eta uztaiz inguratzen zituztela. Berrito *On-Bide*-n bildu ziren eta bertan Aitzol *Eusko Olerkiaz* mintzatu zen, Homero, Birjilio eta euskal poesia herritarra ere aipatuz, zehatz-mehatz. Oraingoetarik Arrese, Jauregi, Orixe, Lekuona, Intzagarai...goraipatuz eta olerki zati batzuek irakurriz. Tomaxi gogortxo iruditu zitzaion doinua, alegia, biguinago eta beste doinueraz irakurri beharrezko zirela bertso haiek. Ondoren Esteban Urkiagak irabazitako saria jaso zuen eta Arantza Barrena andereñoak *Mattale Kuttuna* irakurri zuen, honek bai gusto handiz. Meza aurretik aritutako haurtxoen irakurketari jarraiki zitzaion eta beste batzuek gehiago ahoskatu zituzten txukunkiro. Tarte batean Enbeita bertsolari sutsuak bertso batzuek ere kantatu zituelarik. Ondoren herriko kaleetan gaindi txistulariak bildu ziren eta bazkaria frontoian antolatu zen, bertan hirurehun eta berrogeita hamabi bildu zirelarik. Hantxe topo egin zituen aurrez aurre Orixek eta Jemek.

Gogoratzen du nola Orixek esan zion sarituaren olerkiak ez zuela asebetetzen zeharo. Nola epai-mahaikoek izan zuten hizketa luzea eta zalantza larria saritu aurretik, nola Lizardirenarekin konparatuz, biak ulerkaitz xamarrak izan arren errima osoagokoa zuela eta epaitu zuten azkenean...

Azkenean *Gernikako Arbola* abestu zen denak zutik eta txapela eskuan hartuta. Egun hartako giroak poztu arren hileta kanpai gehiegixko entzun zituelakoan zegoen. Ez zituen batere gogoko hainbeste kexu, marru eta eihagora, ah, *gure euskera gaxoa*, eta horrelakoak, ah, hiltzera dihoazen gure ele eder eta ohitura gogoangarriak! Bere kolkorako horrelako ele samin eta deiadarrak ez ziren errepikatu behar. Alferrikakoak izateaz gain kontrarako besterik ez baitzuten balio, alegia, amildegira joan behar bazuen, akabatu, bertan behera joan zedila, lehenbailehen, baina ez malko eta oihu deitoragarrien artean.

BIGARREN POESIA EGUNA-ra itzul gaitezen dio bere buruari Itziarrek Tolosako edo paperek dioten bezala, Euzko olerki jaira. Hiri zahar eta garai batean Gipuzkoako buru izan zen honetan idazle iaioak eta ospetsuak jaio izan dira, eta hauetariko bat Emeterio Arrese izan zen. 1869ko martxoaren hiruan jaioa, hamaika aldiz ozeano atlantikoa igaroa, bestaldeko erbesterratu euskaldunen artean pilota frontoiak eraikitzen aritua eta beste liburuen artean *Nere bidean* (1913), *Zara* (1913) eta *Txindor* (1928) plazaratua. Azken hau

Donostiyan Leizaola 'ren irarkolan argitaratua azal koloretsu batez hornitua, txantxangorri urdin jantzia lore artean, eta herriari honako bertsoa eskaintzen ziona:

Agur-ba zuri, agur Tolosa,
Lantegi eder joriya,
Urritxo bañan gogoz dagizut
Nere agur-abestiya;
Mingañak esan al balezake
Biotzak dion guziya
Ez litzake ain txepetx izango
Olerki onen txoriya.

Gaur eta bihar omenaldi egunak ditu Emeteriok. Justizia Plazan goiz-goizetik azienda feria eta mostra aurkitzen da, baserritarren arreta eta kanpotarren miresmena eragiten duten behi errape eder, idi adar tente, zezen beltz, zaldi garai, asto iletsu, behor gorrixta sendoak, mando zuribeltz eta beste. Orotarik bada. Eguzkiak berotzen ditu bazterrak. Lore, belar eta huntzez horniturik daude etxeetako hormak. Berazubi zelaian bazkalondoan Andoain eta Asteasukoen arteko segalarien apustua, eta aizkolariak Agiñeta eta Oiarbide. Ordu berean hurrek *Escuelas Pías*-etako areto nagusian beren saraotxo propioa antolatua zuten: antzezle, dantzari eta poesia esatarien artean. Haur euskaldunen eguna ere denez mutiko eta neskatil mordoxka badabil pin-pin-pirin jantzita.

Luzear eta Tege ikustera doazen obraz hitzegiten egon dira umore onean, luze eta alaikiro Beotibarko kafetegian akeita-txola-ta-txokola, kafea, Martell koñak frantsesa eta puro habanoa erretzen duten bitartean.

Gorriti antzokian jende gazte eta adindun ugari. Beroki dotoreak daramaten emakumeak ere ez dira falta. Oihala zabaldu da. Julien Viaud, alias, “Pierre Loti” (Rochefort 1850-Hendaia 1923) idazle eta bidaiari ospetsua dugu egilea. Hau itsas kapitain bezala berrogei urtez ibili zen itsasoak zeharkatzen eta 1872an munduari itzulua eman zion. Idatzi zuen lehen eleberria, *Azıyadé* (1879) Turkian kokatua dago, eta *Islandiako arrantzalea* (1886) eleberriak arrakasta izugarria ukan zuen, ehundik gora edizio lortu baitzuen denbora laburrean. Loti ospetsuak 1897an argitaratu eleberrian dago oinarrituta. *Ramuntcho* ezarri zion titulua, eta Azkainen sinatua da. 1896an Virginia Vincent de Saint-Bonnet Anton Abbadiaren emazteari eskainia, honek egin baitzizkion gidaritzakoak eta erakusle lanak Euskal Herrian zehar, biak Hendaian bizi zirenez. Hauetariko bidaia batean Julien Viaud-ek Crucita Gainza ezagutu zuen eta honekin seme bat eduki zuen 1895ean, Raymond izendatu zutena, eta Ramuntxorenaren etorkian dagoena.

Frantses teatroan moldatu zuten 1902an Gabriel Pierne-
ren musikarekin baina ez zuen arrakastarik izan. Gero gaztelaniazko teatorako Rodrigo Figueroa Torres, Tobarreko dukeak moldatu zuen eta azkenean hauek zituzten akatsak zuzenduz Toribio Alzagak, Eusko Iztundeko zuzendariak euskara jatorrean apaindu. Jada Hendaian 1922ko martxoaren

26an igandez *Théâtre de Variétés* kafean antzeztua, hots, hainbat urtez Loti bizi izan zen herrian. Hain izan zen arrakastatsua moldaketa ezen Mondragoen Zine Bedian, 1929ko maiatzaren 4an hiriko ospitalaren alde, *Casino Viteri*-k, *Círculo Tradicionalista*-k, *Club Deportivo*-k, *Centro Católico*-k, *Círculo Jaimista*-k, *Juventud Católica*-k eta *Enzko Gaztedia*-k antolatua eta antzokiratua izan baitzen hainbat herri ezberdinetan.

Jakina da eleberria eta teatroa ez direla anai-arreba egokiak baina antzina-antzinatik eman izan dira bien arteko harremanak eta genero aldaketak. Orokorrean, oso modu laburrean esplikatzeko, eleberriak analizatu egiten ditu egoerak eta teatroak aldiz sintetizatu. Batek luzera jokatzen duen bezala besteak motzera. Eta Alzagak, Etienne Decrept operagileak dioskunez frantsesez *la couleur locale* erantsi dio, hots, bertakotasuna. Hizkera dotore eta garbian eta edozein belarritako atsegina. Gregorio Eguileor Itsuarena jokatuz eta Etxeberria jaunaren jokamoldea apaizarenean benetan ez ahanzteko moduko ikuskizunak dira. Eta zer esanik ez Beorlegiren lana, zeren eta Ramuntxo irudikatzen aski zail izan arren benetazko indarra daukan. Emakumeen antzezte lanak ez dira iristen gizonezkoen garrantzirik edukitzera, baina halere badute malenkonia eta gozotasun puntu benetan eder eta hunkigarria. Arrietak Maritxo andregaiarena ongi jokatu zuen eta are hobeto, hala esan badaiteke, Areitiourtena eta Aramendi andereñoek, azken honen amaren irudi erlijioso eta mistikoa guztiz aipagarri gertatu baitira benetan.

Amaitu zenean antzerkia ikusi zen euskal gaztearen ezina, Ameriketara joateko asmoak bakarrik aurrera eramanez

beharko dituela, Maritxo, amak monja sartu zuenez geroztik mundurako hila bilakatu baitzen.

Itziarrek gogoratu zuen nola Joakin Forradellas Peñaflorida Institutoko literatura irakasleak bere jakituria ohikoaz eta ahots eskasaz Luis Martin Santos Larachen (Afrika) jaiotakoaz, donostiartu psikologo eta idazleaz mintzo zela. Honen “El complejo de Ramuntxo” deitu lanaz, Salvador Clotasek aurkeztu *Apólogos y otras prosas inéditas* (Barcelona: Seix Barral, 1970) liburuttoan argitaratu zuenaz. Baita *Tiempo de Silencio* (1961), eta *Tiempo de destrucción* (1975) nobelez anitz gogokoago bazituen ere. Baina neurri batean kontsidera zitekeen Ramuntxo pilotari eta kontrabandistaren pertsonaia euskaldun prototipo gisara, eta espainiar Don Juan pertsonaiaren erabat alderantzizkoa, hau da antidonjuanaren irudia zatekeela. Moralik gabeko baten aurrean emakumearekiko errespetua lehen mailan ezartzen zuenarena.

Zineman hiru bertsio izan zituen *Ramuntcho*-k. Bata 1919an Jacques Baroncelli-ren eskutik. Bestea 1937an, zuzendaria René Barberis; gidoigileak hau bera eta Emile Allard, aktore nagusiak Madeleine Ozenay eta Paul Cambo Gaxuxa eta Ramuntxoren roletan. Paul Dutournier, gerora Sarako alkate izanen zena, kontrabandista gisa.... Eta azkena 1958an gerra kazetari ere izan zen Pierre Schooedoerffer-en zuzendaritzapean. François Guérin Ramuntxoren rolean jokatzeko duela, Mijanou Bardot Graziosarenean, Gaby Morlay Doloresenean eta Roger Hanin Itsuarenean, besteak beste.

Oroitzen da ere nola Donostiako Nazioarteko Festibalean ikusi berria duen Madeleine Ozenay eta Paul Cambo aktoreek protagonizatzen zutena baina zintaren egoera ez zela oso ona eta musika nahiko panggal entzuten zela.

Bukatzen denean ikuskizuna Tomaxek, Anderrek eta Antonio Labaien “Matxin”ek elkarrizketa luzea izan zuten basoerdi bat hartzen zuten bitartean, berriro *Beotibar* tabernan, hiru ekitaldien bilakaera eta antzezlarien duintasunaz, eta berandutzen ari baitzen, eta hurrengo egunean lan aski baitzuten, Matxin erretiratu egin zen bere villara, zenbait antzezle agurtu ondoren eta bai Tomax eta bai Ander herritik kanpo zegoen Laskibar Hotelerantz abiatu ziren taxiz, bertan prestatu baitzuten afaria eta ohea, pentsatuz nola berriro zituzten koaderno beltzean hartutako oharra *El Día*-n agerrarazteko.

Biharamunean, irailak 27, goizeko zazpi t´erdietan Diana jo zuten lehen ibilaldian txistulariek eta bederatzietan kale-jira bordontzariekin. Hamarretan Meza nagusia, musika herriko seme Mokoroa eresgilearena. Sermoia Resurrekzion Maria Azkue, Euskaltzaindiko buru jakintsuak eman zuen, nabaritzen zitzaizolarik ibilera astun samarra, urtetan nahiko sartua zegoena. Hamaika t´erdietan Errepublikaren Kalea inauguratu zen estaltzen zuen oihala alkateak, txalo zaparrada batek lagunduta, kentzen zuela eta agertzen kalearen deitura berria. Hamabietan Gorriti antzokian Poesiaren II. Egunari hasiera eman zitzaion. Mahai buruan Tolosako alkatea, Doroteo Ziaurriz, aldamenean ezker eskuin, Bonifazio Etxegarai eta Joseba Miren Agirre, Mikel Urreta,

Nikola Ormaetxea, Antonio Labaien, Polikarpo Elozegi, Jose Ariztimuño, Arantza Barrena eta Emeterio Arrese. Denak jaka eta janzki dotorez jantziak, txapela, txingola eta guzti. Etxegaraik, sutsuki eta hitz egokiz aurkeztu ziren poemen berri eman ondoren, erabakia aldarrikatu zuen: BASO ITZAL deitu poemarentzat izan zela lehen saria bere umotasun, gozotasun eta balio lirikoengatik. Eta Erreterian gertatu bezala Arantza Barrena esatariak lehenik *Ama* Arreseren olerki samurra goxo eta sentikortasun bereziz irakurri zuen. Alkate jaunak Emeterio Arreseri oroigarritzko hitzok zeraman Ohorezko Pergaminoa eskaini zion: *Arrese'tar Emeteri'ri bere Tolosa'ko erriak Euskera ta Euskalerria bere ertiaz intzatu eta goratu dituan olerkari bikain ta seme ospatsu*. Ondoren honek esker-hitz hunkigarriez erantzun zuen emozioz beterik.

Azkenik, Jose Ariztimuño “Aitzol”ek olerkari sarituaren aipamena eta Lizardiren poesia irabazlea irakurri zuen. Poema irakurtzen zuen heinean barnerago sartzen zen eta beste bertsoen artean hauxe estimatu zuen Tomaxek:

Neguz untzi lirain, laino-gainean,
Txindokil, orain agokit aurrean,
Goriak astundu-tantai arrizko,
Beeari inoiz baino errotuago....

- Txalo ugari jaso zituen ere Agirre jaunak zilarrezko ostoarekin batera. Ondoren, bazkaria Eskola Publikoetan eman zen, berrehun bat bazkaltiar bildu zirelarik. Bazkalondoan, Berazubiko estadioan Lizarza eta Esnaola

palankariak jaurtiketa saioak egin zituzten eta beren besoen indarra eta antzea erakutsi. Gero Mokoroa eta Agerre harri jasotzaileak aritu ziren nor gehiagoka latzean. Eta bukatzeko *Federación Atlética Guipuzcoana*-ko atletarik hoberenak agertu ziren: saltalariak luzeran eta pertikarekin, korrikalariak motzean eta luzean, bola, diska eta jabalina jaurtikitzaileak eta beste. Dena oso ordenatua eta ikusgarri benetan. Atleten jaia. Azkenean, gaztedia bitan banatu zen, batzuek Igarondoko belardirantz abiatu zirelarik Euskal Erromerian dantza egiteko asmoz, eta besteak donostiarren ikuskizunaz Gorriti antzokian gozatzera.

SASKI-NASKI-ko jokalariek beren prestaketak egiten zituzten bitartean Gorriti antzokian hurrengo arratsaldean, Tomaxek taldeak eginiko ibilbidea gogoratu du. Lehen aldiz Euzko Iztundeko aretoetan nola egiten ari ziren saioak. *Escuela de la Lengua y Declamación éuskaras* kartela jartzen zuen ataritik eskailera batzuek igo ondoren Toribio Alzagaren erreinura iristen zen. Zalduaren zuzendaritzapean mutiko eta neska taldeak kanta batzuk entseiatzen ari ziren. Eta adinduagoak bere txandaren zain zeuden behin-behineko oholtegira igotzeko. Aretoa ia beterik zegoen. Arropak eta beste tresneriak zeuzkan gelan eszenografoak oihalak eta margoak prestatzen ari ziren. Barrenago, bulego batean erresponsible nagusiak gestioen gora beherak moldatzen. Ia denak zeuden bertan. Antonio Orueta industrialak, gazte

dotore eta gorbata modernoz apaindua, bere folklore zaletasuna, dantzariarekiko amodioa agertzen zuen berba eta mintzo guztietan. Diplommatiko fina badaki inguruko jendeen ideiak, indarrak eta kemenak biltzen, artista ezberdinen ahaleginak bideratzen. Ez dirudi agintzen duenik, baina bada malgu eta bortitz batera. Hantxe zegoen ere Padero Antequiera Azpiri, marrazkilari profesionala, gusto handiko pintorea eta Juan de Zabalo, ezagunago *Txiki* gisa, beti bezain apal, umil, xalo eta zeukan antzea edozeinen zerbitzura jartzeko prest, sudur piku eta bigote labur, begirada bihoztun eta zorrotzarekin batera. Jose Agirre eta Jose Mendizabal, bata lasaia, urduria bestea, biak ere betaurreko, eszenografiaren arazo eta detaile guztiez arduratzen. Eta Karlos Landi Sorondo pintore gaztea saritu berria, helduagoen itzalean ikasten erne. Musikari artean Santa Mariako organista Jose Olaizola, dena bizartxo eta betaurreko, Buenaventura Zapirain, *Txanton Piperrri* eta *Amboto* operen musikagilea, eta bidenabar Donostiako Orfeoiaren hainbat eta hainbat soprano, kontralto, tenore, baritono, baxu eta beste. Hantxe zegoen ere irrati programen zuzendari eta bera ere kantari zen Jose Zubimendi. Guzti hauei erantsi behar zaizkie Gerlasio Aramburuk zuzentzen zuen Pasaiako *Schola Cantorum*-a eta Alfredo Larrochak zuzentzen duen hogeita hamarren bat maisu musikari. Eta ororen asmatzaile eta gidoilari Gregorio Mujika, Jeme.

Hain izan zen handi estreinaldi haren arrakasta non eta 1928ko irailaren 21ean eta 24ean berriro *Teatro Victoria Eugenia* aurkeztu ahal izan zen, Maria Kristina erregina

amaren eta Gorteko beste handien aitzinean, txalo zaparrada luze eta etengabeaz omendu zituztelarik antzezleri eta asmatzaileak oro. Honelako arrakastaren ondoren Baionan lehenik Boissel jauna Euskal Erakustegiko zuzendariaren laguntzaz jokatu ondoren Pariserako jauzia eman zuten, *Théâtre des Champs Elysées*, hots, Elizeetako Antzokian bi mila ikusleen aurrean dotore, apain eta bikain euskal ohiturak eta artearen erakusketa berezia eman zen, ikuskizun aparta, ahantzezina. 1929ko otsailaren 8a zen.

Denborak aurrera zuzendariak aldatuz joan ziren, hala nola abesbatza burua, Jon Gorostidi Orfeoikoa, Bernardo Zaldua Orkestakoa eta Jesus Esnaola Dantzakoa. Hala bada, Donostian ez ezik Donibane Lohizunen, Gasteizen, Iruñean eta azkenik Tolosan ikusleek dastatu ahal izan zuten Gorritin bai Guridiren *Amaya* operako ezpatadantza, Aita Donostiak bildutako zenbait kanta eder, hala nola *Negua*, *Iruleak*, *Oinazuez*, *Sagar dantza* eta *Belatsarena*, Jose Olaizolaren *Azparrengo jaietan*, *Bateleras de Pasajes*, *Anguleros del Nervión* eta *Ni naiz kapitan pilotu*, Jose Uruñuelaren *Caballeritos de Azkoitia*, Aita Olazaran Lizarrakoaren *Mutil-dantza*, Ramon Usandizagaren *San Permiñetan*, eta aipatu Tomas Garbizuren *Sagardotegian* sailerako prestatu kanta herrikoiak.

Ez ziren ahantzi ere urrundik iritsitako dantzarietz, zeren eta hantxe agertu ziren jantzi dotorez salto eta brinko hala Luzaidekoak nola Otsagabi eta Zuberoakoak.

ESTEBAN URKIAGA “LAUAXETAK” abendu hasieran Erreterian saritutako poema eta beste berrogei bilduz, hitzaurre bat eta azken hitz gisa ohar bat erantsiz *BIDE-BARRIJAK Nuevos Rumbos* poesia liburua plazaratu zuen Bilbaon Emeterio Verdes Achuricaren argitaletxean. Nicolás Martínez Ortiz, dekoratzaile, muralista eta kartelegile ospetsuak burutu zuelarik azala. Honek Arteta, Eloy Garay eta Jon Zabalo “Txiki” pintoreek bezala eskema geometriko sinbolikoak zerabiltzan, eta bai Parisen kubistek (Pablo Picasso, Georges Braque, Jean Metzinger, Albert Gleizes, Robert Delaunay, Juan Gris, María Blanchard...) bai margolari abanguardista sobietarrek (Vladimir Maiakovsky, Kazimir Malevich, Vasili Kandisky, El Lisitski, Vladimir Tatlin, Aleksandr Rodchenko, Liubov Popova, Natalia Goncharova,...) iraultza ondoko urteetan idekitako bideari neurri batean bederen jarraiki zitzaien, halere ez zegoen besteengan ageri zen deshumanizaziorik, honen figurak guztiz konprenigarri baitziren. Hala nola itsasuntziaren masta zuzen baten ondoan bi marinel gerritik gora bilutsik ageri direnekoa, bere bular hauspo, zain eta beso sendoak, aurpegiaren angeluak ongixko irudikatuak agertuz liburuko *Itsasora* deitu azken poemaren tenoreari segituz:

Soinutsik untzi-puntan, sakoneko lemazain [...]

Balerik eztoigu nai gogai barrijak baino.

Miresmena eta polemika ere sortu zuen Laukizen jaiotako poetak. Horrela Lizardik ARGIA astekarian *Bide Berriak?... Bide Guztiak...* idatzi zuen, non kontrajartzen ziren poesia erraxa eta poesia kontzeptista. Eztabaida pizturik

zegoen erraz-zale, mordoilozale eta berrizale eta garbizaleen artean. Kontatzen zuen ere beste batean, nola batek itzulpen bat eskatzen zion, honek antzerkitxo bat neskentzat, hark hitzalditxo bat, baina denak berdin eskuak zerurantz altxatuz esaten ziotela: *Vanguardismorik ez diagu bear.*

Lauaxetak Orixerekin, alegia, Esteban Urkiagak Nikola Ormaetxearekin mantendu zuen polemikan poeta klasikoei buruz bi pentsamolde ezberdinak kontrajartzen dira. Azken honek, hau da, orexarrak Horazio eta Teokrito maite ditu bereziki, laukiztarrak erantzuten dio nahiago dituela modernoagoak eta halaber klasikoak diren: Goethe, Maragall, Keats, Novalis eta Baudelaire, adibidez...

Santo Tomas egunean Konstituzioko Plazan ohi bezala baserrietatik ekarritako abere feria ospatu zen jende anitzek bisitatu zuelarik eta ogitar-tean txorizoa janez eta sagardo zurrutakada batzuk eginez.

Novedades zinema aretoan goizeko hamaiketan lehenik Jon Bautista Eguzkiza “Kirikiño” sariaren irabazleak idatzitako *Emakume euskotarra* irakurri zen, eta ondoren Donostiako Ikastetxe askotako, San Bartolome, Jesuitak, Sagrado Corazón, Nuestra Señora de los Ángeles eta beste zenbaitetako haur eta neskatilak aritu ziren nor gehiagoka dotrina kristauaren eta poesia ezberdinen errezitatzen, eta azkenean *Agur Jaunak* elkarrekin kantatu zuten.

Antonio Labaien “Matxingorri” idazle nekaezinari bazkari omenaldia oparitu zitzaion ordu batean eta ondoren arratsaldeko bost t´erdietan eta gaueko bederatzi t´erdietan

Teatro Gran Kursaal zeritzanean hasi ziren antzezkizunak ematen. Arratsaldekoan Toribio Alzagaren *Bost urtian*, bi ekitaldiko komedia eta Abelino Barriolaren *Gai Dagoenaren indarra*, jostirudia ekitaldi batean 1915ean jada idatzia. Eta gauean Jose Olaizolaren *Biar arte, ja, jai!* eta Toribio Alzagaren *Mutilzarra*, umorez eta ziriz beteriko antzerkiak. Azken hori Tolosan jada antzeztua larunbatez irailaren 26an Eusko Olerki Jaiaren bezperan.

Gauean 1921ean inauguratu zen Gran Kursaal antzoki ederraren sarrerako espaloi zabalean ikusten ahal ziren andere eta gizon multzo dotorea, larru garestiz jositako berokiekin eta kapelu finekin. Emakume dotoreen artean Margarita Beldarrondo bere zazpi urteko Kontxita pinpirinarekin, esku muturrean ageri nabarmen zeramala emakume abertzale batzako zilarrezko uztaia, eraztun eta belarritako ditzizariekin. Agurtu zituzten katedraleko kanonigoak eta inguratu zitzaizkien gizon gorbatadunak. Tege, Luzear eta Matxingorri ere tartean zebiltzan. Luzearrek esan zion Matxini:

— Benetan gogoko izan nuen lehengo egunean Jemerren omenez *Salón Novedades*-en eman zenuen hitzaldia euskal antzertiaren historiaz.

— Pozten naiz, bada, hurbiltze saioa bat besterik ez da izan.

— Eta zer moduz doakizu errebistaren prestaketa?

— Ongi, Txikiren irudia azalean duela aterako zaigu jaioberria urteberriarekin. Zorionak, berriro, bada.

— Eta zer iruditu zaizkizu bada, gaurko ikuskizunak?

— Ongi dakizun bezala, Abelino Barriolaren antzerkia ez da oraintxekoa, 1915ean idatzia baizik. Euskal teatro burgesa sortu nahirik dabil aspalditxoan, iruditegian etxe aberatsen saloiak eta ohiturak ezarriz.

— Bai, halaxe duk, irri antzerkitik dramara jauzi egin diagu.

— Horixe hain zuzen, euskaraz beti *Neskazar* bezalako arlotekeriak besterik ezin direla idatzi eta antzeztu sinetsita daudenei ongi erakutsi die drama burgesaren moldatzea gurean ere eman daitekeela. Baserritarkeriak utzi eta jende euskaldun kultu eta aberatsaren gora beherak, kezkek eta nahigabeak aurkez daitezkeela gure maila tipian ere, modu duinean...

Abenduaren 31an, beraz, urte zahar egunean *Easo*, Donostiako egunkaria Txikik eginiko marrazki batekin agurtzen zen. Honela zioen aita 1931k semeari, alegia, urte berriari, 1932ari:

Seme maitea, miseria gorrian hiltzen naiz, uste bainuen errekreoekin osatuko nintzela, baina ilusio hutsa izan da. Zu ahalegindu zaitetz arau hauxe betetzen: lana egiten, ordena errespetatzen eta elkarrekiko ongi konprenitzea eta eramatea lortzen baduzu ni baino zorientsuago izango zara.

IV

1932

ZIRIAKO GATZAGAREN HILKETA

URTEBERRI DA. Mila bederatzirehun eta hogeitamabiko urtarrilaren lehen egunean gaude. Donostian kaleratzen den *La Voz de Guipúzcoa* kazeta errepublikanoak lehen orrialdean Urteberri On bat opa die irakurle guztiei, Errepublika anderea ohiko kapelu trazioz jantzita ageri delarik Orri berean Isaak Abeytuak errepasotxo ematen die “Signo y presagio de la República” izeneko artikuluan bere betiko amets, gogoeta eta nahikundeei konparatzen dituelarik eguneroko errealitate zaratatsu, odoltsu eta lazarriak eskaintzen dionarekin.

Mende bat igaro da herri protestez eta militar asaldamenduez betea, baina frogatuta gelditu da azken finean beti Espainiako erregeak eta baionetak ados jartzen direla eta ondo konpontzen. Halere, hogeita hamaikako apirilaren

hamalauetan Errepublika aldarrikatuz eta, Eibarko herri langilea egun batez aurreratu zenez geroz, Parlamentu bat osatu da eta Konstituzio bat kontsentsuz lortu dena. Hori, noski, jakina denez ez dela perfektoa, akats eta tatsarik gabea, baina bidea ematen duena da modu harmoniatsu batez goberna dezaten bai burgesia liberalak, bai demokrazia sozialistak. Dena den, hainbeste sarraski eta katastrofe gertatzen ari diren garai latzetan bide salbatzaile bat gerta daitekeela, dio Abeytuak, Errepublika demokratiko moduan eratu Espainiak, justizia helburu daukalarik, egoera onean dagoela aurre egiteko une zailei eta onik ateratzeko.

El Día, urtarrilak 7, Donostiako kazeta nazionalistak bere “Carnet político” sailaren barrenean abertzaleek daramatzaten ekitaldien berri ematen du. Tolosako *Aberri-Etxea*-n Garitaonaindia apaizak idatzitako *Ixiartxo* antzezkiak jokatu behar dutela eta ondoren *Jo ta uts* komediatxoak. Oñatiko Eusko Batzoki-ko antzezlariek beste honako lanak irudikatuko dituztela arratsaldeko lau t'erdietan: Imanol Sota Aburtoren *Negarrez igaro zan atsoa*, eta ondoren Toribio Alzagaren *Aterako gera* antzerki barregarria.

Lezon Emakume Abertzale Batza osaturik gelditu dela aurreko igandean Karmen Berasarte buru aukeratu dutelarik eta arratsaldeko bostetan San Juan kalean kokaturik zegoen Batzokiko antzokian programa hau ematekoak direla: ekitaldi bakarreko *Xabiroia*, *Iñaxio Donostiyan*, eta *Lorentxo mutil zarra* bakarriketa.

Kostunbrismoaren bide ezagunetatik eta Sabino Arana alderdiaren fundatzailearen ideiei jarraiki, egunkarien ondoren teatroa dela biderik zuzenena herria euskalzaletzeko uste dute abertzaleek eta herriz-herri eusten diote bide honi jotake lanean, gogoz eta umorez.

Irratia gogoko duten euskaltzaleak pozik ageri dira Donostiako Unión Radio-n euskarazko ehungarren emanaldira iritsi direlako gaur, urtarrilaren 28an. Eta irratotsak Bernat Etxepareren *Euskara jalgi hadi mundura* leloa bereganatuz honela zioen:

Ua, ua emendik otsa,
Abil azkar, pizkor, abotsa,
Euskel mintzoen agur-oiua
Ludiko anai guziengana
Ortxe dijua...
Ua, ua...!

INOIZ BAINO animo eta umore handiagoz prestatzen aritu ziren tolosarrak bertako Iñauteriak, Karnabal alai, umoretsu, zaratatsuak. Igandean goizean goiz txistulariak behin Gipuzkoako hiriburu izan zenaren kaleetatik ibiliko dira jendearen esnatzea goxatzeko. Ondoren herriko banden txanda dator. Hauen izenak bitxiak dira: *El Polvo y La Paja*, *Txinparta*, *Desastre*, eta *Umore Ona*.

Zezen plazan korrika apostua izango da Azpirozko Alfontso Arrizubieta, korrikalari nafarraren eta Jon Artze, andoaindar korrikalari finaren artean. Plazari ehun eta hogeii jira eman behar dizkiote, hau da, hamabi kilometro ibili, eta parte bakoitzak bostehun pezeta ditu jarriak jokoan.

Arratsaldetik ohiturari jarraikiz zezenketak, Gregorio Yanguas, alias “Zapata” toreadoreak zuzenduta. Zezenak Lasturkoak, Sakako markesarenak. Sei t´erdietatik gaueko bederatziak arte Olinpia aretoan Donostiako Majestic orkestrak alaituta maskaradunen dantza. Dantzak gauez *Olinpia* aretoan eta *Cinema Tolosan* goizeko ordubata arte irautekoak dira.

Asteartitan, hauster egunaren bezperan, bukatzeko inauteriak Tolareberrietako—Aldameneko Bullosuak, gizonezko eta emakumezko ehun eta hogeii artistek parte hartuko dute, hartz, tigre, tximu, gorila, gamelu eta beste abere mota askorekin batera. Klown irrieragileak, Venus bizarduna, Petruska bere zaldi hegalariaren ganean hala nola munduko gizonik indartsuena, Martinoff, *La Maravilla del Músculo*. Libertitu nahi duenak bidera ditzala bere urratsak Tolosaruntz.

Ihauteri igandearen hurrena da. Getariako herria lasai ageri da itsasertzean erdi etzanda. Xagua elur txuriz jantzi da eta San Antongo kriseilua itsas-mailatik ia ehun metrotara jaso, dagoeneko hamar segundoz behin argi zuria zabaltzen ari da uhinen ganean itsasoan barrena. Elizako dorre oktoedrikoa etxe guztien gainetik ageri da sendo eta tinko

harri landuzko irudiz hornitua. Aspalditxo bezperetako kanpaiak jo zituela eta kanpaiguneen azpiko erloju handian orduak aurrera dihoaz. Portutxoan hiru bapore handi amarreak mutiloietan eta dozenerdi bat gasolinera deituak kulunkan sokak pabetan inguratuta.

Gaur jai eguna denez ez dira arrantzara atera. Antxoa garaia da, mukuru harrapatzen ari dira, baina tamaina oraindik erdipurdikoa da salazoa prestatzeko. Dena den, antxoa fabriketan hasiak dira dena prestatzen. Txueka eta Compañía-ko *Joven Miren* untzitik ikatza ari dira deskargatzen. Badian fondoratuak aingurekin *Paqui*, *Asunción* eta *Gijón* karguntziak, denak txatarrarekin Zumaia eta Oriorako. Arrantzaleen Aterpetxea duela hamahiru urte inauguratua txukun eta dotore dago kaia ondoan bertako aurrekaldean *Itsastarrentzat etxe atzegiña* idatzita duela. Arkupeko iragarleku batean arrainak egindako salmenta prezioen zerrenda: Primerako legatza, zazpi kilo ingurukoa, bi pezeta eta berrogei xentimotan; erdikoa, bi kilokoa, bi pezeta eta hamabost xentimotan; ttikia, bi pezeta eta bost xentimotan; amuko bixigua bi pezeta eta hogeita hamabost xentimotan; angulak bederatzi pezetatan, bakailaoa pezeta eta t´erditan, pantxoa bi errialetan, palometa berrogeita bost xentimotan...

Almiranteen kaleko etxeen alboan dagoen Elkanoren oroitarriak hitzok ditu: *Gipuzkoako bere seme Juan Sebastian Elkanoren oroimena, 1859*; eta frontoiaren gaineko partean herriko seme izan ospetsu izan zenaren monumentua itsaso zabalari begira dago, — *primus circumdedisti me* —, modu modernista batean hegalak idekita Samotraziako Garaipena

bailitzan, edota itsasuntziaren mamutzarra. Agirre eta Azpiroz arkitektoek asmatutako proiektua eta bai eskultura bai baxuerliebea Biktor Matxo eskultoreak zizelkatua laugarren mendeurrena ospatzearren.

Urte gutxi geroago, 1937an hain zuzen, Toma Agirre “Barrenoro” idazle trebe eta dotoreak argitaratu *Uztaro* nobelan honelaxe aurkeztuko dizkigu, San Antongo faroa eta El Cano: *¿Ugartetxoaren bizkarrean zutik dagon argi-torreak, ez aldu zirklope baten antza, bekoki-erdian begi bakarra zirkinka dula? [...] Emendixek irten zan Elkano auzartsua lur osoari alderen alde itzul-bira egin zionean...*

Herriko tabernetan ohiko kantak entzuten dira, eta noizean behin kartaketan ari diren builosoren baten oihuak. Gehien nabarmentzen direnak Bar Pelayotik ateratzen dira. Hemen futbol partiduak entzuten ari dira irratiz. Gasteizen elurte handia bota du eta beraz Athletic eta Alavés-eko lehendakariak Mendizorrotzara agertu dira ikusteko ea Vallana jaunak zuzendu behar duen partidua joka daitekeen, jokatzeko moduan egongo den futbol zelaia. Eta nola antza, ez zegoen partidua beste baterako uzteko arrazoirik lauak hoge gutxitan hasi da, talde bakoitza jokalaria hauekin osatua:

Athletic: Blasko, Kastellanos, Urkizu, Garizurieta, Mugerza, Roberto, Lafuente, Iraragorri, Bata, Txirri eta Felipes.

Alavés: Urreta, Arana, Deba, Urkiri, Antero, Fede, Olano, Trillo, Sañudo, Lekue eta Juanito Etxeberria.

Sei minutu pasata Alavéseko Antero erdilariak baloi bat hartu eta Etxeberriari pasatzen dio. Vallanak offside, jokoan kanpo dela adierazten du marrazain baten banderari kasu eginez, baina jokoa aurrera dihoa eta baloiak langan jo eta ondoren Sañudoren zangoetara iristen da, honek gol eder bat lortzen duelarik. Arbitroak, ordea, ez du tantoa onartzen. Gasteiztar ikusleak oso haserreturik daude. Halako batean Iraragorrik defentsa gasteiztarra aurreraturik topatzen du eta modu zail batez gola sartzen du. Hamar minutu falta zirela lehen denbora bukatzeko Athleticen defentsa batek area ttikian eskuz jotzen du, baina epaileak ez du kontsideratzen penalty denik. Lehen haserre bazeuden orain haserreago daude zuri-urdirak uste baitute argi eta nabarmen bilbaotarren alde ari dela arbitratzen epailea. Halako batean ikusle batek jauzi egiten du futbol zelaira eta honi beste batzuek jarraitzen diote, Vallana arbitroaren kontra dihoazelarik. Istilua handia da eta Vallanak erretiratzea erabakitzen du. Iristen dira bi ekipoetako lehendakariak, Castellanos eta Garaizabal, Gobernadore zibila Amilibia jauna ere aldageletan bertaratzen delarik. Vallana jauna, gobernadorearen eskaerari eta ordena mantenduko zuenaren aginduari uko egiten dio esanez ez dagoela jarraitzeko aski animos eta beraz partidua suspenditu egiten duela. Arriskutan ikusi baitzuen bere burua Gobernadore zibilaren autoz erretiratu zen.

Igandeko eta Liga Txapelketako beste partidu garrantzitsua hau izan zen: Madrid F.C. 1— Donostia F.C. 0. Taldeak jokalarik hauek osatu dute:

Donostia: Beristain, Arana, Perez, Amadeo, Aiestaran, Markuleta, Parrondo, Bienzobas, Albeniz, Insausti eta Garmendia.

Madrid: Zamora, Ziriako, Kinkozes, Leon, Prats, Ateka, Urretabizkaia, Regeiro, Olibares, Gurrutxaga eta Olaso.

Partiduari Miss Voz-ek eman zion hasiera. Donostiarren partidua Chamartinen ez zen hainbestekoa izan eta aurrelarien erasoak beti erraz gelditzen zituen lan handirik izan ez zuen Zamora atezainak. Defentsek gogor jokatu zuten, batez ere Amadeok eta Aranak, aurrelari merengeen erorketen aurrean ikusleek protesta handiak egin zituztelarik. Gol bakarra Arana defentsaren eta Beristain atezainaren gaizki ulertze baten ondorioz gertatu zen, zeren honetaz baliatuz Olasok sartu zuen baloia sarean.

Bigarren partean Beristainek zurien joko guztia gelditzen zuen eta bukaerako minutu gutxi falta zirenean Markuletari penaltia adierazi zion Arribas arbitroak, egoera berean lehen partean Atekari ez zionean hutsa seinالاتu. Leonzitok penaltia jaurtiki eta Begiristainek gelditze eder bat egin zuen, halere epaileak kontsideratuz atezaina pixkat aurreratu zela penaltia berriro botatzea erabaki zuen. Zamora joaten da beste puntaraino eta Olibares jokalaria beltzari jaurtikitzeko agintzen dio, baina berriro penaltia Donostiako atezainak gelditu egiten du. Beraz, partidua oro har aski eskasa eta ez Madriderik ez Donostiak ez zuten euren maila eman eta erakutsi.

Orduak aurrera dihoaz. Arratsaldeko zortziak dira eta jada neska-mutilak erretiratzen hasiak dira beren etxeetaruntz.

Zarauzko bidetik bikote batzuek besotik helduta datoz kalakari. Gizonek, ordea, tabernaz-taberna jarraitzen dute edarian, berriketetan, kantari. Pelayo tabernako barraren ixkin batean Ziriako Gatzaga dago, hogeita hamahiru urteko gizon garai, sendo eta zaildua bere bi adiskideekin politikaz hitz egiten. Apaizak dutela gertatzen ari den gauza askoren errua. Bikarioaren etxean biltzen direla eta handik iritsi dela debekua Xanti de Meabe mitinlari sozialista argiaren kontra. Herrian ez omen diote sartzen utziko eta. Ziriako arrantzalea da, Kaietano barberoa eta Antonio oinetako denda baten jabea. Beste ixkin batean koadrila bat kantu-kantari. *Ara nun diran, Donostiako iru damatxo, Zibilak esan naute, Ene aberri laztana, Pastelero dale fuego, Sekulan ezta sartu izandu...* Aldamenekoei ziria sartu nahiz honela abesten eta aldatzen ari dira kanta honen lehen bertsoa:

Sekulan ez da sartu izandu republikanorik zeruban
Nunbait ez zuten meriturikan irabazitzen munduban,
Gaiztuarentzat Jaungoikoaren justiziya dan moduan
Kondenaturik arkitzen ziran aiek danak infernuan.

Denak edariak nahiko berotuak daudela dirudi Ihauteri igandearen aitzakian, hau ospatu nahiz edo. Berandu da jada, hamarrak jota dira eta atea idekita dagoela apaiza ikusten dute pasatzen. Ziriakok oihu egiten du:

— Biba Rusia, kaguendio! Biba el Sobiet!

Patxi izeneko koadrilako gazte kaxkar batek sesioa bilatu nahirik edo Ziriakogana hurbiltzen da eta esaten dio:

— Hi, Xiri, isilik hago.

— Zergatik?

— Hargatik. Utz hitzak pakean apaizak.

— Pakean? Berak ez gaituzte pakean uzten eta.

— Beno, beno.

— Eta gainera beraiek dituk Euzkadin sua pizten ari direnak.

— Sua? Hori bai zuek bezalako maketo errepublikanoak.

— Maketo ni? Zer ari haiz esaten, mukizu? Ni hi baino euskaltzaleago eta abertzaleago nauk.

— Hi haizena faltsua besterik ez izatea dek, lehenbiziko batzokian henbilean Alderdiarekin, gero ANVkin eta orain errepublikanoekin, horri faltsua izatea deitzen zaiok, ez gizona.

Ernegatu zen berehala Ziriako eta amorrazio biziz hantxe bertan elkar muturjoka hasiko ziren ez bazuten Joxe zapateruak eta Anjel barberuak alde batetik eta koadrilakoek bestetik bereixi, eta erantzun zion:

— Hi bai ez haizela gixona ere. Ez didak hori esango bihar goizeko bederatzieta.

— Goizeko bederatzieta ez tailerrean lana zaukat eta, baina bihar eguerdian hemen bertan potrorik baldin badek. Eta apostu egiten diat seinale pezeta bat hemen nere lagun Anjeli utziz.

Bi pezeta jaso zituen Anjel Ezenarrok, eta talde bakoitzak bere bidea hartu zuen. Batzuek maldan behera porturantz jaitsi ziren eta besteak aldapa gora. Urrun ahots bat entzun zen, *oi eunen batin akatu in biar diu*. Patxi etxera zenean Kokili bere anaia zaharrenak, Udaletxean zinegotzi abertzaleen taldekoa zenak esan zion:

— Erne ibili adi, Patxi, badakik Xirik jenio oso txarra diala eta beste batean ere ibili zela Joxemielen atzetik hau johanian, ez dakit zer esan zuela eta.

Ziriako ere oso urduri etxeratu zen. Bertan aurkitu zuen panorama ez zen batere kontsolagarria. Alde batetik andrea Pantxika ohean hirugarren urtez gaixo zegoena, eta bestetik hamalau urteko Manuel, eta hamabiko Teresa. Amak prestatua zuen afaria denentzat eta porrusalda eta eguerdian gelditutako perloia berotuta afaldutakoan ohera erretiratu ziren denak.

Amets gaiztoz betea pasatu zuen gaua Ziriakok. Goizean goiz Manuel seiretako tutua antxoa fabrikak jo zuen bezain laster kafesnea berotu, edan eta xakotea eskuan han joan zen aldapan behera lanera. Teresa kafesne zopak katilukada hartu eta eskolara abiatu zen eta Ziriako sukaldean batera eta bestera zebilen, eseri eta altxa, gelditu gabe.

Amak esan zion:

— Zer dek seme, kezkatuta ikusten haut.

— Ez den ezebez, ama. Lasai.

Zamarra jantzi eta kalerantz maldan behera hor ikusten dugu dihoala Ziriako eskuak patrikan. Anjel Aizpurua ile-apaintzailearenean sartzen da:

— Egunon Anjel.

— Egunon Xiri.

Eseri ondoren lepoko oihal zuria ezarritakoan Anjelek esaten dio:

— Nola nahi dek ilea moztea? Betiko moduan?

— Bai. Garrondoa garbitu pixkat.

— Erne ibiltzen al haiz, Ziri.

— Bai, bai.

— Mehatxuak entzun dixkiat.

— Bai, bai, nik ere.

Ilea apaindutakoan batelera joan zen eta hantxe pasatu zuen goiza, bertako tresna eta erremintak antolatzen, txukuntzen eta arrantzako aparejuak behar bezala jartzen. Azkenean kalabroteak lotzeko burnia hartu zuen. Moileko eskailera irristatsuak igo eta kaian barrena eta kaleetan gora hantxe joan zen Ziriako. Atea idekita zeukan tabernaren ixkinean zeuden porroi baten inguruan marinel batzuek musean jokutzen.

— Adio, jaunak.

— Adio, Ziri.

Hamabiak Udaletxeko erlojuan joaz. Frontoian gazte batzuek pilotan. Atera zen Patxi Ferminaren etxeko sotoan alokaturik zeukaten haroztegitik eta, gubia badaezpada ere hartuta, abiatu zen Elkano kalean gora. Udaletxearen parean bidegurutzean elkar topo egin zuten Patxik eta Zirik. Honek esan zion:

— Esakidak ba orain aurpegira faltsua naukela, gixona, ezgizona.

— Ba hori, faltsua, gixona...

— Berrero esatea nahi dek?— erantzun zion Patxik.

— Ba, hori, faltsua eta ez gizona besterik ez haizela.

Ziri amorru bizian irakiten dago eta Patxi erasotu baino lehen honen anaia Kokili hurbildu zaio esanez:

— Patxi, joan hadi etxera. Eta hi, Ziriako, zerbaiten kexarik baldin badek presenta hezak Juzgaduan.

— Hi, kaguenlaputa, aluita alenoi, kaguendio, zergatik sartu haiz inork deitzen ez hauen lekuan!

Ziriakok hitz hauek oihukatzen zituen bitartean burdina poltsikotik atera eta altxatu egin zuen mehatxu moduan. Aldameneko tabernetatik jende mordera aterea zen eta leihoetan ageri ziren andreek hau ikusi zutenean karrasi egiten hasi ziren eta batek esan zion:

— Erraminta Kokili, erraminta.

Kokili alde egiten hasi zen eta Ziriako atzetik. Halako batean estropezu egin eta Kokili lurrera erori zen eta Ziriako joan zitzaion gainera. Hau ikusi zutelarik Patxik eta honekin ziren lagunak batera jo zuten Ziriakoren kontra. Patxik haroztegitik hartua zeukan gubia sorbaldatik sartu zion eskumuturreraino, berehala seko gelditu zelarik Ziriako. Hamaika gazte osatzen zuen taldeak Ziriako lurrean zerraldo zegoela ostikoka gelditu gabe jipoitu zuten etengabe buruan eta gorputz osoan, jada gorpua zena. Ohartu zirenean ez zela mugitzen batek esan zuen, *akabatu in diagu*, eta berehala denak desagertu egin ziren bakoitza bere etxera.

Jendea izuak harrapatu zuen eta berri txarra herrian berehala hedatu zen. Hilketak gertatutako lekuan agertu ziren bi errepublikano, Jose Gurbide eta Antonio de la Hoz adiskidearen gorputz hila jaso eta *Centro Republicano*-ra eramán zuten. Berehala deitu zioten herriko medikua zen Leonzio Ugarteri. Honek ikusi zuen hildakoa eta kanposantuko depositora eramateko agindu zuen. Bidean hain justu azken etxea Ziriakorena zen. Honen ama beltzez jantzia hantxe zegoen atarian, aurpegia ximur eta malkoen iturria lehor.

Alkateak gertatutakoaren aurrean Varela Rendueles jaun Gobernadore zibilari deitu zion hilketaren parte eman ez eta honek berehala agindu zien Zarauzko indarrei sarjentoa buru Getarin aurkezteko eta herrian karabineroak zaindari uzteko. Halaber gobernadoreak bere idazkari partikularra, Martinez jauna Jaka jaun ofizialarekin bidali zuen Getarira gertaera argi zezaten. Hauek Azpeitiatik zetorren Don Manuel Casado jueza baino pixkat lehenxeago iritsi ziren. Honek agindua

eman zien mikeleteei parte hartu zuten guztiak udaletxetik pasa zitezten deklarazioa hartzeko.

Autopsia juezak eta Egiguren jauna forenseak egin zuten eta ikusi aurpegiko kolpeez aparte hilketari sorbaldatik sartutako gubiak eragina izan zela. Familiak hala eskatuta gorpua gauean etxera eramane zuten hileta elizkizunetarako presta zezaten.

Gobernadore zibilak gauean kazetariak errezibitu zituen eta honakoak esan zituen Getarian gertatutako hilketaz. Alegia, oso hunkitu zuela gertatutakoak, eta benetan tamalgarria zela eztabaida politikoak halako ondorio tristeetaraino iristea, eta hilketaren epaia prentsan zabaldutako berrien aurrean irakurle bakoitzak hartu behar zuela. Bidali zuela bere ordezkaria herrira telefonoz konturatu ondoren bertako alkatea ez zela gauza ezertarako, eta ez zela gai zeukan agintea zentzuz eta taxuz erabiltzeko. Galdetu ziotenean kazetariak ea zer esan zion Donostiara joanarazi zuen Larrea bikarioak, ez zuen ezer esan nahi izan, bakarrik baieztatu zuen horixe, deitarazi egin zuela eta berarekin hitz egin zuela gertaera penagarriaz.

Arratsalde osoa iraun zuten dilijentziak eta deklaratu ondoren udaletxeko kalabozora pasatzen joan ziren Patxiren koadrilakoak. Herriko plazan jende asko pilatu zen jakin nahian zer egin behar zuten detenituekin. Hauek banan-bana pasatu ziren instrukzioko juezaren aurrean eta hamabiak, komunikaziorik gabe, Azpeitiko kartzelara bidali zituen. Donostiatik iritsitako seguritate kotxe batean eramane zituzten

goizeko ordubietan goardia zibilaren pareja bik zainduta. Presoak hauexek ziren bere burua hiltzailatzat aitortu zuen Patxi Idiakez eta bere anaia Kokiliz aparte: Anjel Ezenarro, Pedro Azkue, Jose Domingo Azkue, Florentzio Iribar, Eleuterio Iribar, Jose Iturrino, Jose Domingo Uranga, Jose Domingo Uzin, Jesus Larrañaga eta Juan Azkue.

Goizean goiz iritsi ziren presoak 1889an eraiki zuten Azpeitiko kartzelara, atariko goikaldean zioen bezala:

JUZGADO Y CÁRCELES

1889

Biharamunean *La Voz de Guipúzcoa*—ko kazetariak beribila Donostian hartu eta goiz abiatu ziren Getarirantz Ziriako Gatzaga errepublikano erahilaren hileta elizkizunetara joateko eta albisteak jasotzeko asmoz. Eguraldia ederra zen eta polliki polliki Aiako Harri ingurutik altxatzen zihoan eguzkiak berotu egiten zuen epelki. Halere ez zen egun alaia izan.

Eliza barruan bederatziak baino lehen jada jende asko zegoen. Atiempoko meza batzuek eman ziren alboetako aldaretxoetan eta hasi zen hileta elizkizuna. Eskailetan gora dago aldarea eta harrizko horma gorak Kalbarioko irudiz hornituak daude. Arku gotikoak eder eta beirategietatik egunargia sartzen. Abesbatzak koroan kantatzen zutelarik *Libera me Domine de morte aeterna ...* eta *In paradisum ...* arrantzale sendo eta emakume beltzez jantziak musuzapi zuri batzuek eskuetan negarrez ikusi ziren.

Hamar t'erdia inguruan frontoian herriko eta probintziako agintariak, denak uzkur, aurpegia hits zeuden. Lehenik Gobernadorean ordezkari Martinez jauna, ondoan Diputazioko Sasiain eta Arratibel jaunak, Getariko alkate eta kontzejalak eta hilaren familiakoak.

Donostiatik iritsiak ziren *Partido Republicano Radical*, *Republicano Autónomo* eta *Radical Socialista* taldeetako ordezkariak. Eibartik radikal sozialistak bandera eta guzti, hau da koroa eder bat dedikatoriarekin. Getaritik *Unión Republicana*-koak banderarekin. Mutrikuko errepublikanoek, bertan jaioa baitzen Ziriako, adierazi zuten ez zutela bandera ekarri ez zekitelako baimendurik izango zen ala ez, eta kazetariei hori jartzeko eskatu zieten. Jarraitzen zieten probintziako beste herri guztietako ordezkariak euren banderarekin.

Kanposantuko bidean Ziriakoren etxe aurretik pasatu zirenean ama seme-alabarekin zutik zegoen atarian denek txapela burutik kendu zuten. Apaizak otoitz bat egin zuen latinez katabuta xumea bedeinkatzen zuen bitartean hisopo urez hilkutxa hobiratu baino lehen. Gobernadorearen ordezkoak, Martinez jaunak ere hitz batzuek esan zituen gaztelaniaz, adieraziz, Errepublikaren martir bati lurra ematen ari zirela, eta batasuna, askatasuna eta anaitasunaren alde borrokatzen zutenak zirela mementoan XX mendeko Kristoren benetako jarraitzaileak.

Partido errepublikano guztietako eta *La Voz de Guipúzcoa*-ko ordezkariak osatutako komisioko batek bisita egin

zion familiari, beren eta errepublikano guztien izenean doluminak adieraziz, eta idekitako suskripzioan bildutako dirua eman zieten ama eta alargunari, aurrera atera zitezen seme, senar eta aitarik gabe gelditzen ziren gizaraxoak. Kolekta berriak egingo zituztela eta ahalegin guztiak aurrerantzean ere nola edo hala laguntzeko.

Hurrengo egunean, 18an *La Voz*-en protesta telegrama ugari agertzen ziren hala nola Ziriako Gatzagaren familiaren alde egindako suskripzioa. Beste askoren artean Xanti Meabek hamar pezeta eskaintzen zituen, Frontón Modernoko abisatzaileak bi, bere burua antirreakzionariorzat jotzen zuen batek bat, emakume errepublikano batek bat, Valentziako radikal sozialista batek bost, *una nacionalista*-k bi, *uno que es así* beste bi, eta orotara mila seirehun eta hamar pezeta eta berrogeita hamar zentimo bilduak ziren dagoeneko.

Talde errepublikarren biltzarrak, Bago lehendakariak sinaturik, protesta telegrama bat ere bidali zuen adieraziz tamalgarria zela ikustea nola hilketa eta biharamunean libre geldituak ziren hiltzailekide zitezkeenak, alegia, *los presuntos coautores del asesinato*.

FEDERICO GARCÍA LORCA poeta New Yorkean, eta Habanan ibili ondoren Donostiako Ateneoan daukagu. Ez da lehen aldia Granadan jaiotako idazle ospetsu eta modernista etortzen dela hitzaldia ematera Donostiara, jadanik 1930ko

abenduaren 6an egona baitzen Ateneoak gonbidaturik, *La arquitectura del cante hondo* deitu hitzaldi liluragarria ematen. Bertan Casa Erviti-k unerako utzitako gramolari esker entzun ahal izan ziren gaiarekin lotura zuten hainbat kanta eder *La niña de los peines*-ek, hots, Pastora Pavónek kantaturik.

García Lorcaren hitzetan, honen ahotsa itzalez betea da, estainu gorria, goroldioz jantzitako ahotsa, eta adibidea ezarritakoan azpimarratu duen bezala koplak andaluza amodiozko eresia da, eta sakonean koplak guztietan amodioa edo heriotza entzuten dira soilik. Zorion uneak ez dira islatzen sekulan koplak andaluziarrean. Albéniz, Falla eta Granados aipatu ditu erudizioz, dotoreziaz eta graziaz bete hitzaldian. Nola kartel kubista batzuen bitartez (gitarra batzuek eta zazpi ezpata) saiatu ziren kante norgehiagoka antolatzen. Nola andaluzak kantatzen duenean bertan errotu erritu zahar eta sakon bati eusten dion. Errezitatzen duenean koplak bakoitza hitzaldia emozioz betetzen da, fotografia baten flaxak irudiarekin biztuko balu bezala gertatzen da, tragediaren oihartzun bizi. Eta erreberentziaz aipatzen ditu kantante ezezagun anitzen izenak.

Gaur berriro, mila bederatzirehun eta hogeita hamabiko apirilaren zortzian, arratsaldeko zazpi terdietan Ateneoko saloia berriro bete da jendez. Hirurehun bat pertsona bada aretoan entzuteko modan dagoen poeta New-Yorkez mintzo. Espero du duendeak ihesi ez egitea hainbeste jenderekin izaturik. Mahaietan edontzi bat ur azukre koxkorrarekin eta eskuz idatzitako orrialde batzuek. Federiko gaztea da,

beltxarana, begi ilun, misteriotsu, ilaje labur, jertsei beix lepogora, xaka, hitz eta ahotsez eder.

Poetaren irudiek New-York gureganatzen digute, gizateriaren arkitektura neurritz haratagokoa, eta honen pulstu bizi eta urduria. Bizitzeko beharrezko den zoramenik ez duten amerikanoen aurka hitzegiten du, eta beltzen doloreaz, beltzen haurren gosez, beltzen musikaz, beltzek adierazten duten oinazea baita mundu hartan den gauzarik espiritualena. Beltzen basa nortasun alaiaren aurrez-aurre Wall Street-en basakeria beltza. Izpiritu eza, izpirituarekiko mespretxua, orainaren gainbalioaren deabrukeria, moral protestante hertsia... Kaleetan gaindi ageri den infernu eta heriotza bizia. Sustrairik gabeko mundu hura utzi, zeru-orratz haietarik urrundu eta Habanara jauzi egiten du. Ez da ageri orain taberna, fruita denda eta tabako estanko baino, beltzak dramarik gabeak, zeinen ahotan entzun daitekeen, *nosotros los latinos*. Bere baitan daukan duende berezia lagun duelarik *Cuando llegue la luna llena iré a Santiago* errezitatzen du.

Honako bertsoarekin ematen dio hasiera:

Iré a Santiago

En un coche de agua negra...

Santiagora joango naiz, ur beltzezko auto batean ... Juan Luis Zabalaren itzulpenean. Eta bukatzerakoan bi bertso lerro hauek deklamatzen ditu modu apart berdinezinaz:

¡Oh Cuba! ¡Oh curva de suspiro y barro!

¡Iré a Santiago!

*Oi Kuba! Oi hasperen eta lohizko bihurgunea!
Santiagora joango naiz.*

Jendea zutik txaloka hasten da eta esku zaplaren zaparrada ez da amaitzen berehalakoan. *Bravo!* errepikatuak ere entzuten dira. Irteeran ilara bat sortzen da liburua eskuan duen irakurleekin, poetaren sinadura itxaroten daudelarik.

LEHEN ABERRI-EGUNA Bilbon 1932ko Bazko egunaz ospatu zen, hau da, apirilaren 27an, Eusko Alderdi Jeltzaileak deia zabalduz. Manifestazioa erraldoia suertatu zen. Bermeo, Lekeitio eta beste kostako herrietatik jendez betetako baporeak sartu ziren Ibaizabalaren hiri barneraino. Jesusen Bihotzaren plazan hasi eta Sabin Etxean, aurreko urtean berraiki zen Bilbaoko EAJ-PNVren egoitzan bukatuz, non Luis Aranak, Sabino Aranaren anaiak, zabaldu zuen ekitaldiaren plaka hamabiak puntu-puntuan. Omenaldiak, ekitaldi ezberdinekin luzatua, gaua arte iraun zuen.

Kazeta komentariogileen kalkuluen arabera 65.000 pertsonen parte hartu zuten manifestaldian, eta orden erabatekoan errespetu eta seriotasun handiz eman zen. Lehenik Eusko Alderdi Jeltzaileko buruzagiak zihoazen, talde ezberdinetako banderak eta ikurrinak, gero Emakume Abertzale Batzakoak, Bilbao eta Abandoko Junten ordezkariak eta azkenik gizonak. Arratsaldetik, bazkariaren

ondoren Arriaga antzokian omenaldi bat egin zitzaion euskarari, eta Euskalduna frontoian jaialdi bat ospatu zen.

Campos Elíseos teatroan *Pedro Mari* antzerkia oholtzaratu zuten, Arturo Campionek Frantzia eta Espainia arteko gerran, 1793an kokatu zuen nobela laburretik Alfredo Etxabek lau ekitaldi ezberdinetan bermoldatuta eta Elias Gallastegiri eskainia. Verdes argitaletxeak eginiko edizioak Nikolas Martinez Ortiz bilbotarraren azala dakar. Bertan Pedro Mari txapelaz jantzia ageri zaigu lehenik eta atzean frantses jendarme batek zuzenduko du fusilamendu lekua izango dena. Ikuskizunaren zortzi argazki dakartza liburutxoak eta bukaeran gizon abesbatz batek kantatutako abesti zaharberritua:

Jagi, jagi, euzkotarrak

laster dator eguna

sortaldetik agiri da

argi gozo biguna.

Bere aurrian bildurtuta

igesi dua iluna.

Eta hau entzutean Pedro Mariren azken bakarrizketa entzuten da, aberriko kanta askatzaileak lagun fusilamenduko azken unean, honela dioelarik gaztelaniaz: *¡Cantad, cantad, hermanos!*

Ikuskizun honek estrainaldia hilabete bat lehenagotik izan zuen arrakasta handia jasorik, eta geroago oholtzaratua

izan zenean baita ere, hala gerra garaian nola gerra bukatutakoan, erbestean beti txalo zaparrada ugari jaso zituen antzeztu zen bakoitzean. Bartzelonan Teatre del Liceun, *Setmana proEuzkadi*-n 1937ko maiatzaren 29an adibidez.

Aberri Egunaren inguruko ekitaldiak astelehenean amaitu ziren Begoñako Ama bisitatuz eta bertan Meza entzunez, eta beste festibalekin batera Artxandan bankete ofiziala egin zelarik.

ANAIEN ARTEKO MUGA da Nikola Ormaetxea “Orixe”k *Txistulari*-n idatzitako artikulua izenburua Bilbon ageri den bi-hilabetekarian mila bederatzirehun eta hogeita hamabiko uztailaren 15ean. Erakunde hori 1927an Eibarren sortu eta gerra zibilarekin itzaliko zen, eta VI. Biltzarra Baionako Euskal Museoan ospatu zuen, bertako zuzendaria zen William Boisselek eta Oruetak, hala nola Aita Donostiak eta Lizarrako Olazaranez adierazitako interesagatik.

Tomaxek **MENDIZ AINDIKO** izeneko beste artikuluan animatzen ditu txistulariak Bidasoa iragan eta Lapurdiko hiriburura joan daitezen, aberri-mina eta euskal eresiak zabaltzera, zenbaiti bihotza arrunt gogortu zaien arren. Haiek honuntz, eta hauek haruntz bideratu daitezen, gaitezen. Unamunok eta Barojak ez badakite ere aberria maitatzen ez eta aberri gogoia inolaz ere ulertzen, halaber Miarritzeko Casino-an eta Donibane Lohitzuneko Pergola-n dabilzan

udatiarrek orokorrean pentsatzen baitute fandangua besterik ez dela euskal musikan, aita Donostiak ongi ezagutzen dituenak dioskunez. *¡Oh, le fandango!*

Biltzarra dela eta honako agurrez hasi zuen bere solasa Orixe olerkari handiak:

Espainiaren mendean gauden eskualdunak agur bero batekin gaituzute egun Frantziaren mendean zaudeteneri. Gu ez gira frantses; zuek etzarete español; bai ordea orok eskualdun.

Gogoak, bertzeren gogoak altxatu du gure artean muga, ez esiz, ez harresiz, buruz ta bihotzez baino. Ta buruz ta bihotzez ura eta suntsi behar dugu harresi gotor hori. Guk zilatu dugu, zilatu bederen, handik etorri giranez geroz, eta anaitasunez etorri gaituzute. Harresi hori lurreraino berdindu behar ginuke, bidean beaz toparik egin ez dezagun. Atzeko herrietan muga izaitea ez da harrigarri; baina anai artean ezarri diguten muga hori ahalkegarria dugu. Kaskoinak eta biarnotarrak, Aragoa ta Gaztela mugakide ditugu: bego horien eta gure artean lehengo muga zaharra. Eskualherriaren erdian zendako?

Espainia aldeko txirulariek eta Frantzia aldekoek muga hori suntsi dezagun beintzat. Hortakotz etorri gaituzute egun, bihotza bero ta burua zut. Gure ohidura zaharren altxatzen hari gira elgar arturik, haindiko danbolinak oro. Hemengoekin bat eginez, gure dantza bereiziek eta gere musika xoragarria dagokien mailaraino jaso nahi ditugu. Agur bero bat hango anaien izenean.

Litargik, hots, Gilen Lizaso, Errenteriako txistulari iaio, trebe, ospetsu eta ARGIA astelakarian noizbehinka poema

batzuk argitaratzen dituenak bere aldetik TXISTULARI aldizkariaren seigarren urtean, hogeita zortzigarren alean, hau da, iraila eta urria hilabetei dagokionean URA EGUNA lantxoan gogoratzen du Baionako jaia eta esaten digu laino zatar batzuek euri zaparradak busti bazuten eguna azkenean aiton eguzkiak bere musu zabala agertu zuela, eta gomendatzen ditu Euskal Herrietako beste txistulariak eusko eresi zaharrak mantentzen eta atzerriko eresietara ez txirristatzen. Bestalde, aski txistulari gutxi izan arren Iparraldean, orotara jada badituela aldizkariak 240 bazkide, eta biltzarrean erabaki zela egindako bileran Lapurdiko ordezkaria elkartean egon zedin, eta hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idaztea ale berezia.

HIRUGARREN EUSKO OLERTI EGUNAren bezperan Abuztuaren 6an, jada hasia zen besta Hernanin haurren egunarekin eta *Zintzotazuna* zinema aretoan Fermin Iturriotz jaunak hitzaldi entzungarria eta txit txalotua eman zuen herriko seme ospetsua izan zen Agustin Pascual Iturriagaren bizitza eta obrari buruz.

Nola Bernardo Antonio Ayerdi bikarioak bataiatu zuen 1778ko otsailaren 1ean bezperan gaueko 11tan jaiotako haurra, eta izena ezarri zioten Agustin Ignacio Maria.

Nola 1833tik 1839rainoko karlista eta liberalen arteko lehen gerratean Muñagorri Berastegiko eskribauak eskatzen zituen Pakea eta Foruak ongi iruditzen zitzaizkion.

Nola pasatu zituen 1839 eta 1840. urteak Bidasoaz haraindi, Milafrangan, Château Larralde Arkangoitzeko markes jaunaren jauregian bertan idatzi zituelarik zenbait idazlan euskaraz.

Nola 1842an Donostian Ramon Barojaren moldiztegian inprimaturik plazaratu zuen *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado*, hauei eranskin bat ezarri zielarik non irakur zitezkeen Virgilioren 3. Eglogaren itzulpena, San Ignazioren martxa txit sonatua bilakatuko zena eta euskara-gaztelania hiztegia.

Nola, itzultzaile trebea izaki, bertso egoki ugari moldatu zituen, itzulpen asko itzulpen direnik ere ez diruditen, eta hauen artean honakoak azpimarratu zituela:

Lana da birtute guztien ama

Eta alferkeria gaitz guztien iltzea,

Erregek austen ez duen legea.

Txalo zaparrada ugari jaso zituen Iturrioz jaunak, noski, eta gero herriko Orfeoiak jendez beteta zegoen aretoa gozarazi zuen kanta ederrez.

Biharamunean goiz-goizetik herriko kaleetan barrena kale-jirak, Donostia, Tolosa, Lezo eta Hernani bertako dantzariz osatua ikusleak alaitu zituen. Goizeko bederatzi

t´erdietan Ubarretxena jaun alkateak eta Festa Komisioko zenbait lagunek Iturriaga´tar Agustin (1778-1831) apaiz olerkari eta irakaslearen omenezko oroit-harria zabaldu zuten Kale Nagusiko 21. zenbakian.

Hamarretan, ohi bezala Refice-rena deitu Meza Nagusia, eliza jendez blai zegoela. Aita Altzo Lekarozko kaputxinoak egin zuen sermoia, luzetsi ez zutena ohiturik baitzeuden bikarioaren solasen luzamenduetara.

Hamaiketan *Salón Zintzotazuna* deituan III Poesia Egunari zegokiona. Ekitaldia alkateak zuzentzen zuen, honen ezkerrean Migel Urreta eta eskuinean argazkiaren azpituduluak izendatzen ez duen apaiz bat eta honen ondoan Arantza Barrena. Alkatearen gibelean zutik zegoen Aitzolek hitza hartu zuen eta euskararen, euskal arrazaren joiarik bitxiena eta preziatuena mantentzearen aldeko aldarrikapena egiten du, txaloen artean. Ondoren aurkeztu lanen eta sarien berri ematen du. Lehenari narruzko eta zilarrezko palmondoa. Bigarrenari 550 pezeta. Hirugarrenari 300, etabar.

Lehena Juan Agirre, “Bedoña´tar Jokin Aba” bezala ezagutuagoa zen kaputxino bizardun gazteari suertatuko zaio, hots, “Loramendi” gisara sinatzen duenari eta nola ez dagoen aretoan Aita Alzok jasotzen du saria. Gero Arantza Barrenak irakurtzen du urtero bezala, sentimendu eta dotorezia handiz *Barruntza-leioan* poema, zein honela bukatzen den:

Ta abesti orren oiartzunera, pizkor genuzke

Maite-eguerdien egon luze ta bazkal-mintzo.

Ta arratsaldeak, izpi-euritan, lekarzkiguke

Maite-koluxken izar zuri ta zorun-ardo....

Itziar Gatzagak, Loramendiz zertxobait gehiago jakin nahiean, Jon Kortazarrek argitaratu *EUZKEREA ETA YAKINTZA aldizkarietako olerkigintza* liburua aurkitu du, non Luis Jauregi Jautarkol poeta errenteriarrarekin batera Gustavo Adolfo Becquer-en eskolako erromantiko atzeratuak bezala sailkatuak aurkitu dituen, poesia kristauaren lekuko. Iruzkin zenbaitekin batera japoniar eskolakoak diruditen Gabriel Ramos Urangaren marrazkiak gustatu zaizkio.

ATENEO GUIPUZCOANO aipatu dugunaren eraginez 1932ko abuztuaren 28an Teatro Gran Kursaal-en egingo zitzaien omenaldia Maurice Ravel euskal musikari urruñarrari. Parte hartzaileen artean zenbait musikari solista izanen zen egitarauak zioenez: Jeanne Stepper de Pol, Clara Bernal, Miguel Maiz, German Alzueta, Nikanor Zabaleta, hala nola Gorostidik zuzentzen zuen Donostiako Orfeoia eta Figueridoren *Orchestre Philharmonique* delakoak.

Esku programak, besteak beste, honako doinuak dakartza: *chansons grecques, chansons hebraïques, chansons madécasses...*, alegia, kanta greziarrak, hebraikoak, Madagaskarrekoak, eta beste zenbait.

Aideen hitzak irakur daitezke hala frantsesez nola euskaraz, M. Ravelek eginak bezala, adibidez *Trois oiseaux du*

paradis, (Zeruko iru txori polit). Zuzenketatxoren bat egin du transkribitzaileak errata konpontzearen, eta garbi dago gipuzkera osatuan idatzia dela eta ez Ravel omenduaren lapurteran.

ZERUKO IRU TXORI POLIT

Nere kutuna gudan det nik.

Zeruko iru txori polit,

Auzoan ditut nik.

Bata det izartxoak lez urdin

Nere kutuna gudan det nik

Bestea zuriya elurra bezin,

Urrengoak urrea diruri.

Txori guztiz zoragarri,

Nere kutuna gudan det nik,

Zeinen bila zabiltz,

Nik dakart begikada ezti bat.

Ezpain gorri auetan

Musu gordin guztiz garbiak.

El Día abuztuko 30eko alean Ziburuko semeari eskaini kontzertuaz mintzatzen zen eta iragartzen *Claro de Luna* delako batek komentatuko zuela xeheki. Bidenabar Debussy frantses konpositorearekin konparatzen zuen Ravel, nola hau dena dardarra eta samurtasuna den bezala hura fin, mehe, irri eta zorrotz den, nola Debussy hunkigarri eta zirrara eragile

bada Ravel jostalari eta libertiarazle, bere harmonia garbi eta aratz delarik eta orkestazioa era berean sakon.

Hurrengo egunean ageri ziren Clara Bernal kantari bilbaotarraren eta Juan Jose Vitoria arrabita jotzailearen fotografiak, non dotore, apain eta serio, erabateko artista gisara ageri diren. Honek habanera ezaguna interpretatu zuen hala nola Tzigane, Ravelek Jelly d'Arany biolinista hungariarrari eta Donostian egon berriari eskaini zion. Aipatzen da ere nola Nikanor Zabaleta donostiar arpa jotzaileak Ravelen *Sarrera* eta *Allegroa* jo zuen, soka laukotea, flauta eta klarinetearen laguntzaz, zeinak arrakasta handia eta txalo zaparrada handia jaso zuen ere. Halaber beste donostiar baten, Miguel Maiz pianistaren jokaturiko bi pieza zail aipatzen dira, bat Sonatina eta bestea jada urte zenbait Rubinsteinek Donostian interpretaturiko *Graziosoaren goiz-alba*. Jendetzak txalo ugari eskaini zien bukaeran bai interpreteei bai eta tamainaz tipi baina jenioz handi zen Ravel Maisuari, zein beti bezain xalo, xume baina dotore eta apain agertu zen. Euskal musikagile handienetakoaren apaltasuna!

Tege, ohi bezala xaka eta xingolaz jantzia, hantxe zegoen lehen lerroetako butaka batean koaderno beltz batean oharrak hartzen, bere bizitzarako bide gidaritzat hartuko zuena entzuten txoil barneraturik. Gerora esango zuen bezala, tamalgarria izan zen Ravel hain gazte hil izana, zeren eta *Zazpiak Bat* sinfonia amaitu egin izan balu, Picassoren *Guernica* bezala pintura munduan, balia zezakeen musika arloan hobeto ezagutzeko euskal sentimenduen sakona munduan barrena.

EMAKUME ABERTZALE BATZA, jakina den bezala, 1922an sortu zen Ambrose V. Martin O'Daly irlandarrak Bilbon apirilean emandako hitzaldiaren ondoren CUMANNAN BAN elkartearen antzeko zerbait sortzeko eta egituratzeko borondatea piztu baitzuen euskaldunen artean. Baina 1923ko irailean debekatu egin zuen Primo de Rivera jeneralak, eta 1931an berriro sortu zen apirileko Bigarren Errepublikarekin. 1932an jada bazituen antolaturik 116 egoitza Bizkaian, 66 Gipuzkoan, 12 Nafarroan eta 11 Araban. Beren helburuen artean zegoen anderea ongi prestatzea eta janztea bizitza modernorako, takigrafia, mekanografia eta euskara ikasiz, hala nola antzerki ikuskizunak prestatuz euskal kontzientzia biztearren, eta mendirako irteerak eginez.

Bilbon bazen talde bat Donostiako EUZKO IZTUNDEAREkin konpara zitekeena eta OLDARGI deitzen zena, Salamankako Unibertsitatean legeak eta Cambridgekoan ikasten izan zen Manu Sotaren inguruan sortua.

Sotak *Pedro Ignacio* (1925) hiru ekitalditan moldatu dramaren epilogoan, obraren bukaerako *Candilejas (ensayo de autocrítica)* deitu azken solasean dioenez, ongi dago zentzu arrunta pulpitan edukitzea, baina antzokian beharrezko dena zorakeria apur bat dantzan ezartzea da. Horregatik, dio, beti hobetsiko ditut James Barrie eta Bernard Shaw ingelesak Jacinto Benavente eta Manuel Linares Rivas teatro idazle kastellano prolificoei.

Honek Oldargiren estreinaldirako 150 pertsona mugiarazi zituen, zeina izan zen 1930eko martxoaren 8an Campos Elíseos antzokian, *Oztin* eta beste zenbait obrarekin. Errepertorio hori handitu eta zabaldu egin zen koadro eszenikoak ugarituz 1931ko urtarrilaren 17, 18 eta 19an. *Oztin*, Imanol Sotak gaztelaniaz idatzi eta Joseba Altunak euskaratua, edizio oharrak dioskunez, Oldargiko neska-mutilek Bergaran, Durangon eta Bilbon *antzeztu eben txalo andijak irabazirik*.

Ikuskizunak ageri duen gaia hauxe da. Mendi tontorrean bi artzain daude elkarrizketan. Mirotz eta Lirain. Honek hirira jaitsi nahi du, baina hark esaten dio, *Nayago yuat neuk artzain ezenkija ixatia, langile aberatsa baño*. Halere biak jaisten dira hirira eta ola batean lan egiten hasten dira. Ezbehar baten ondorioz Lirain hil egiten da. Langileek euzko-abestia kantatzen diote eta Mirotz triste gelditzen da aurpegia esku artean pentsakor. Hiria eta mendiaren arteko kontrajartze topiko honetan, lehengo garaien amesle eta berrien arriskuen aurkezle ageri zaigu, ohar eszenografiko interesgarrien artean.

Sotak maite zituen Barrie eta Shaw teatrogileak bezala bada beste autore bat zeinaren obra berezi bat aipatzen duen, alegia, Williams Yeats (1865-1939) poeta eta dramagile irlandarraren, mistizismoz eta abertzaletasunez betea, *Negarraz igaro zan atsua* antzerkiaren sarreran. Honelaxe aipatzen du preseski:

Gau baten, ames argi ta garbija egin neban, benetako amesik ezirudijana. Basetxe aberats baten barruba ikusi neban: berton, laratza su ederragaz eguan, eta beronen inguruban, laster egingo zan ezkontzatzazko barriketea.

Basetxe baketsu atan ikusi neban baltzez jantziriko atso baten irudija agertuten zala, Eireann (Irlanda) berbera zan, abesti asko abestu, edesti ugari esan-erazo ta bere mattetasunaren gixon askok eta askok erijotz-bidera jo egin daben Kathleen-ni-Howlihan berbera.

Lady Gregory'ri W.B. Yeats'ek Zuzendutako idazkija, bere "Kathleen-ni-Howlihan"-etzaz itz-egina. Kathleen Ni Houilhan ... (Dublin, 1902-IV-2).

Gaia laburzki emanda hauxe da: Dendariñe baserriko Ganboa deritzan basetxean emakume talde bat, atsolorra amonak dioskunez, berriketan ari da Miren-Bijotza eta Gorka, bertako seme nagusiaren ezkontza egunaren bezperan. *Atsua* (Euskal Herriaren irudia) ageri da eta aholkuak ematen dizkie, eta gero desagertu egiten da. Hona bukaera ingelesez eta euskaraz:

PATRICK : I did not, but I saw a young girl, and she had the walk of a queen. [*The end*]

MIREN-BIJOTZA (*Bijotz-ikaraz*) : Eztot besterik ikusi, eder-ederra zan neskabila bat baño, erregina baten antzera joyana... Erriko gastiak bere atzetik joyazan, sutsu abestuten... (*Mai-ganera negarrez jausten da. Astirotxu urreratuten asi dan mendigoxalien abestija, orain ederto entzuten da...*)

Ezaguna denez Yeats eta Lady Gregory (1852-1932) izan ziren teatro irlandarraren sortzaileak XIX. mende bukaeran Dublingo *Abbey Theatre*-an, mito zeltiarretan oinarritu eta erdi aroan kokatu gai mistiko-erlijiosoak aurkeztuz: *The countess*

Cathleen (1893), *Cathleen ni Hoolihan* (1902), *The Hour Glass* (1903), *The Unicorn from the Stars* (1908), *Plays for Dancers* (1916).

Azken hau Nō teatro japoniarrean oinarritua dago, non antzezleek maskarak daramatzaten eta bionbo baten aurrean antzezten duten. Yeats-ek ez zuen dantza obraren parte funtsezko izatera kontsideratu, Nō antzertia ezagutu arte, zeina Ezra Pound-ek ezagutarazi zion, Coleman's Hatch-en Suxxex-en elkarrekin bizi ziren garaian.

Negarrez igaro zan atsua Verdesen argitaratu zen 1933an baina lehenagotik ezagutua zen, zeren eta 1932an bertan Durangoko antzezlariek Arrasaten urriaren 9an eta Galdakaon abenduaren 8an eta 11an antzeztu zuten. Eritz Jaionek jokatzeko euskara irudikatzen zuen atsoaren rola. Nō teatro japoniarraren *Shit* andere zerutiarraren antzera.

IKERREK BILBON Diputazioko liburutegian bezala Itziarrek orduak eta orduak igaro ditu liburuak irakurtzen, egunkariak errepasatzen, argazkiak hartzen eta laburpenak egiten KM-eko liburutegian. Julio de Urkixoren aretoan topatu ditu bera bezalako zenbait ikasle seriooki beren lanetan eta ordenagailuetan murgilduak, hala nola ikerle adindunen bat edo beste beren apunteak letra ttikiz koaderno zaharretan hartuz aldamenean liburu eta eskuzkribu zaharrekin borrokan.

Jesus Prieto irakasleak agindu bezala deitu ditu Monreal eta Castells irakasleak eta hauek oso borondate onez eta

interes handia adieraziz hitzordua eman diote. Egon da beraiekin solasean orduerdi bana Zuzenbide Fakultate inguruko kafetegi batean. Hainbat eta hainbat aholku eman dizkiote, bereziki garaiko gora-beheretan espezialista diren zenbait historiagile gomendatuz. Halere ez diote eman ahal izan garai horretako itzulpengintzaz eginiko tesi edo artikuluen berri. Baina jasotzen ari den oharrei eta berriei oso interesgarriak deritzote eta iharduteko lanean eta urte horietako kazeten eta errebisten hustuketan aurkituko duela nonbait albiste intereskorik eta.

Hala bada Urkixo aretotik hemeroteka aretora igarotzen da, baina hemen agure berritsu batzuk besterik ez ditu topatzen bertan, politikaz, futbolaz eta telebistaz mintzo direnak eta bere kontzentrazioetik kentzen dutenak, eta beraz, baimena eskatu ondoren itzultzen da Urkixo salako isiltasunera, nora eramaten dizkioten artoski eskaturiko prentsa idazkiak.

Halaber Gipuzkoako Audientzia Probintzialeko artxiboetara jotzeko aholkatu diote. Eta hemengo Zerbitzu Prozesal orokorrera joateko eta Sententzien Aktak, epai-agiriak ikusteko ea zerbait aurkitzen duen.

Hala egin du, bi eskaera gutun idatzi ditu xehetasunak emanaz bilatzen ari denaz. Azkenean baia eman diote, zaborrez betetako poltsa beltzez beteriko pasillo batetik igaro eta areto eskas batean ezarri, non irakur daitekeen honako iragarkia: *¡¡¡Ojo!!! Ventana averiada, no abrir.* (Erne! Leiho

hondatua. Ez da irekitzen). Arreta handirik gabeko lekua dirudi, kuxidade eta fundamentu eskasekoa.

Ekartzen dizkioten bi tomoak 1932 eta 1933koak dira. Azken hau estua da, aurrekoa lodikotea. Errepasatu ditu, eta aurkitu ditu infantizidioak, haurrekiko sexu abusuak, hilketak, bizikleten, erlojuen, arrainen, erlojuen lapurketak, iruzurrak, *Viva la República Vasca* oihukatzeagatik Sebastian Elizalderi ezarritako isuna, Jose Lekaroz Goñiri “Matxin de Urxo”ri *El Día*-n idatzi artikulu bategatik eginiko salaketa eta absoluzioa, Manuel Santos Pasai San Pedroko arrantzaleak Juan Chouza borroka batean hiltzeagatik jasotako askespena, Getariako Bizkarraga baserriko Prudentzio Azkue Aizpuruari bere anaia Bernardo hiltzeagatik enbor batekin arduragabekeria kriminalagatik ezarri zaion 250 pezetako isuna, prozesuaren kosteak eta bestela eguneko 10 pezetako ordain kartzela.

Baina Francisco Idiaquezen sententziarik ez da ageri inon. 1934ko akten liburua ere falta da. Non galdu ote da?

V

1933

FRANTSISKO IDIAKEZEN EPAIA

URTE BAT pasatxo da Getariako hilketa tristeaz geroztik eta Espainia osoan giroa pil-pilean dago. Gori-gori. Ez dira falta alde bateko eta besteko gizerailketak, ez eliza eta komentu erreketak Bartzelona eta Madrid aldean bereziki. Gipuzkoan egunkarietako berriemaileek herri guztietan, direla errepublikano, nazionalista, sozialista, komunista, karlista, liberala edo apolitikoa agintariek esandakoak errepikatzen saiatzen dira. Errepublikano sozialistentzat *El Caso de Gatzaga*, hots, Ziriakoren hilketaren inguruko epaia egiteko eguna iritsi da, eta abertzaleentzat Idiakezen kasua erabakiko da Donostiako Justizia Jauregian.

Otsailaren 21a ailegatu da eta hotz egiten du hirian. Deialdiak halere izan du oihartzunik eta eguerdirako Audientziaren aurrean jende ugari bildu da jadanik. Palazioaren luzera-zabalera osoan hedatutako gizonezko eta andrezko ilara marmarrean urduri dago. Sartzean poliziak

xeheki eta zuhurki errejistratzen ditu larruzko berokiz jantzitako andre dotoreek daramatzaten poltsak eta gizonen gabardinetako eta txaketetako poltsikoak. Asko eta askok gelditu behar izan dute pasilloetan epai-gelara pasatu ezinik edota kale gorrian hotzak hartuta, aretoa beteta baitago.

Hirurak puntuan ahots batek gaztelaniaz *En pie* aldarrikatu ondoren esaten du: *Audiencia pública*.

Eta denak zutik ipini ondoren eseri egiten dira agindutakoan murmurioen uhina zabaltzen delarik mantsoki hil arte aldameneko Kontxako olatuena bezalaxe.

Epaimahaiko lehendakaria Don Antonio de la Campa da eta honekin dauden magistratuak Don Juan Cebian eta Don Zirilo Barkaiztegi. Fiskala Seijas jauna da, familiako abokatua Fermin Vega de Seoane, eta Idiakezen abokatua Ignazio Usandizaga dira. Auzia Herri Juratuak erabakiko du eta juratua osatzen dutenak hauexek dira: Jose Matxain, Jose Agirre, Jose Aizpurua, Ruperto Marieta, Julio Mendia, Martin Munoseguen, Andres Aizpurua eta Jose Toribio.

Bistara abokatu eta kazetari anitz dira etorriak. Besteak beste *La Voz de Guipúzcoa*-ko errepublikanoak, *La Constancia*-ko karlistak eta *El Día*-ko abertzaleak.

Presidenteak argitzen die gaztelaniaz ohar batzuen bitartez herri juratuko partaideei zein den zehazki euren eginkizuna eta zein betebeharra. Hala bada agindutakoa betetzeko promesa egiten dute, zina emanez.

Fiskalak, Seijas jaunak, hilketaren berri xeheki eta laburzki eman ondoren bere konklusioak aurkezten ditu, adieraziz eta azpimarratuz nola urtea igaroa izan arren Frantzisko Idiakez presoak oraindik ezarritako hamabost mila pezetako isuna familiari ordaindu gabe duen.

Fermin Vega de Seoane, familiaren abokatuak gertaera beraren xehetasunak errepikatzen ditu eta fiskalak eskatutakoa onartzen du.

Ignazio Usandizaga, Idiakezen abokatuak, aldiz, argi eta garbi esaten du bera ez dagoela konforme fiskalak eta familiaren abokatuak atera dituzten ondorioekin eta bere defenditua berehala libre uztea, absoluzioa eskatzen du.

— Sar dadila akusatua, — dio epaimahaiburuak.

Bi guardia zibilez zaindua agertzen da Frantzisko Idiakez aretoan. Gaztea da, hogeita sei urtekoa. Gorbata beltza jantzia du, eta itxuraz ez dirudi sendoa. Txikia, eskasa eta argala da. Ofizioz harotza, eta lehendik inoiz juzkatu gabea.

Galdera arruntak eta orokorrak galdetzen hasten denean Fiskala Idiakezek gaztelania ez duela konprenitzen erantzuten du, eta Usandizaga abokatuak Tribunalari interprete baten bitartez euskaraz deklaratzeko aukera izan dezan eskatzen dio.

Abokatu akusatzaileak *Ley de Enjuiciamiento Civil* delakoa aipatzen du eta lege honen arabera hori ezinezkoa dela azpimarratzen du. Honi Usandizagak eranstean dio bere defendituari ezina zaiola behar bezala erantzutea ez bada euskaraz eta gainera Estatuko Konstituzioak badituela

emanak aginduak, non errejio autonomoetan tribunalen aurrean bertako hizkuntzak erabil daitezkeen zenbait kasutan, hau da, bere interpretazioz esku artean daramaten kasuan euskara eta gaztelania koofizialtzat erabil daitezkeela, katalana eta gaztelania koofizialak diren bezala 1932ko irailaren 9an onartutako eta 15ean Donostian Niceto Alcalá Zamorak sinatu Estatut de Catalunyak dioen bezala.

Akusatzaileak, Sotos jaunak ihardesten du ez dagoela arrazoinik Korteetako Legeei buruz eztabaidan hasteko eta akusatuak ez badu gaztelaniaz erantzuten *Ley de Enjuiciamiento Criminal* delakoari jarraitu behar zaiola, alegia, juizioarekin aurrera akusaturik gabe.

Fiskalak eta ondoren epaimahai-buruak onartzen dute galderak egitea euskaraz eta interprete batek bitartekari lanak. Juan de Urresti jaunari dagokio egiteko hau. Horrela bada galderak, itzulpenek eta erantzunek osatzen duten saioak luze jotzen du, aspergarri guztiz. Batzuetan Idiakez jaunak ez du batere erantzuten eta halako batean eransten du ezin duela gaztelaniaz hitzegin, *porque no he aprendido a desirlo*. Akusatzaileak aktan hitzok jasotzeko eskatzen du.

Fiskalak galdetzen dio Idiakezi:

- Gubiarekin ibiltzen al zinen normalean?
- Ez, jauna.
- Nola, bada, zeneraman egun horretan?
- Neraman, ze adiskide batek Ziriako gizon indartsu eta arriskugarria zela esan zidalako, eta kontuz ibili behar nuela.

Horrela ordubete luzea iraun zuen Idiakezen galdera-itzulpen-erantzunen saioak eta bukatutakoan Cardenal eta Castillo doktore jaunen txanda izan zen. Hauek esplikatu zuten, hildakoak, Ziriako Gatzagak zauria errezibitu zuen momentotik gubiaren kolpez hil arte ez zirela hogeita hamar segundu igaro, beraz taldeak erasotu zuenean ezina izan zitzaiola inolaz ere defenditzea.

Ondoren testigantzen saioa egin zen, eta lekukoen artean Kokili Idiakezek parte hartu zuen lehenik. Anaiak bezala arazoak zituela gaztelaniaz espresatzeko eta euskaraz nahiago zuela mintzatu eta hala hitz egitea eskatu zuen. Fiskalak itaundu zion:

— *¿No sabe usted castellano?*

— *Sí, pero pronunsio mal.*

Hala erantzun zuen Kokilik eta akusazioak gaztelaniaz mintza zedin eskatu zuenean salan zegoen jendearen artean protestak eta zurrumurru luzeak entzun ziren. Tribunalak, ordea, ez zuen onartu lekukoaren eskaera.

Fiskalak berriro galdetu zion ea hilketaren egunean ikusi zituenean Ziriako eta Patxi sesioan, mehatxuka eta elkarri irainka zebiltzala, zergatik ez zion anaiari esan Ziriakori barkazioa eskatzeko, istilua gehiago ez handitze, ez eta okertzearren.

Halamoduz erantzun zion Kokilik eta Sotosek ondoren ahotsa altxatu zuenean deklaraziogilea beldurrarazteko asmo nabarmenez, jendartean oihu bat entzun zen:

— *No hay derecho, eso es coaccionar.*

Ez dago eskubiderik, hori bortxatzea da bezalako oihuak entzun ziren errepikaturik, gizonezko eta emakumezkoen ahotsez. Tribunaleko presidenteak salari isiltasuna eskatu zion mailu kolpeak mahai gainean joaz. Ondoren pixkat baretu zenean sala, Usandizaga abokatuak bere solasaren txanda hartu zuen eta Kokiliri honakoa galdetu zion:

— Getariako zinegotzi al zara?

— Bai, jauna.

— Egia al da Patxik ez zuela bere aita ezagutu?

— Bai, hura hil eta hiru hilabetera jaio baitzen.

— Egia al da anaiarentzat aita ordekoa bezala izan zarela?

— Bai, jauna.

Hurrengo lekukoa Jose Domingo Uranga izan zen. Kokiliren koinatua. Honek kontatu zuen nola hilketaren egunean Elkano kaleko tabernan tutean ari ziren jokatzeko, buila eta zalaparta entzun zutenean plazan, baina ez ziotela garrantzi handirik eman, partidarekin jarraitu zutela hau bukatu arte. Jende ugari ikusi zutela bilduta Frantzisko eta Ziriakoren oihuen inguruan. Une batean Fiskalak galdetu zion.

— Borroka gertatu zenean zer egin zuen lekukoak?

— Ziriakori besotik heldu, bihurritu eta zeraman burnia kendu nion.

— Ez al zuen ikusi lekukoak nola sartzen zion Patxi Idiakezek Ziriako Gatzagari gubia?

— Ez.

— Ez al zuen ikusi nola hamabi gizonez osatutako koadrila batek Ziriako lurrian zegoela ostikoz jipoitu zuen?

— Ez.

— Zezilio Idiakezen etxean egindako bilera batera joan zen lekukoa Azpeitiko epaitegira deklaratzera deituak izan baino lehen?

— Bai.

— Nork deitu zuen bilera?

— Denak bat ginen deialdiarekin.

— Abokatu bat ere deitu zenuten bertara?

— Bai, jauna.

— Zein helbururekin?

— Nola Herriko Juzgaduan deklarazioak eginak genituen, jakin nahi genuelako zer arraiotarako behar zituzten Azpeitian gure bigarren deklarazioak.

Orduan akusatzaileak, Sotos jaunak galdetu zion:

— Ziriako Gatzaga eta Zezilio Idiakezengana hurbildu zenean lekukoa ikusten al zuen ongi zer gertatzen ari zen?

— Bai.

— Beste edonork ere ikus al zezakeen berdin?

— Bai, uste dut baietz.

— Ikusi al zuen lekukoak nola inguratu zen Frantzisko eta nola Ziriakori gubia sartu zion?

— Ez, ez nuen ikusi.

Erretiratu zen Uranga, eta peritu armeroek beren iritzia hilketako armaz eman ondoren Usandizaga abokatuaren galderei erantzunez, faltsua eta gixona bezalako hitzak arruntak zirela sagardotegietan eta garrantzia gabekoak, erantsi zuten. Jesus Larrañaga, hiltzailearen lehengusua ere pasatu zen lekuko gisara, adieraziz, bera ere Ziriakoren gainean bota zela, zeraman burnia kentzeko asmoz.

Hauek entzun ondoren Fiskalak hildakoaren alargun gizagaxoa, Frantziska Esnal, hogeita hemezortzi urteko emakumea ezarri zuen lekukoaren esalkian eta galderei apalki erantzuten saiatu zen:

— Izena?

— Frantziska Esnal, *para servir a Dios y a usted*.

— Zure senarra al zen Ziriako Gatzaga.

— Bai jauna, goian bego. Nire senarrari, mehatxuak eginak zizkioten aspalditik.

Fiskalak galdetu zion orduan:

— Nork?

- Koadrilak.
- Ze koadrilak? Izenik aipatu al zizun?
- Ez.
- Batzokian izan al zen mehatxatua?
- Ez. Tabernan.

Ondoren beste lekuko batzuen artean Anjel Aizpurua barberoari hartzen diote lekukotza. Honek gauza berdintsuak errepikatzen ditu, salbu eta behin ile-bizar-apaindegian entzun zuela Ziriako mehatxaturik zegoela.

Agustin Aranburu pelotariari galderak egin zizkionean Usandizagak jendea farrez lehertu zen, han zegoela esan baitzuen behin eta gero berehala frontoian, hau da ia ehun metrotara. Egun hartan Juan Jose Altuna pelotaria ere entrenatzen ari zela eta ikusi zuela gertakizuna adierazi zuen, beno, gertaeraren bukaera. Bere ustez Xiri eta Kokili erorita zeuden moduan ezinezkoa zen jakitea nork nori bota zion azken kolpea.

Egun hartan alkate bezala zegoen Antonio Alegria jaunari ere hartu zioten lekukotza eta honen adierazpenen arabera egun haiek oso lasaitasun erabatekoak ziren, ez zebilen kaletik inolako talde sesio biltzailerik eta isuna merezi zezakeenik. Halaber erantsi zuen ez zuela inoiz entzun bikarioaren etxean bilera politikorik egiten zenik.

Beste lekuko batek, Jose Gurrpidek, erre eta erre bere kazketari darraio, alegia, Ziriako ostikoka hil zutela.

— Baina autopsiak argitu zuenaren eta medikuek sinatu zutenaren aurka doa diozuna eta.

— Medikuek nahi dutena esango dute, baina ostikoka hil zuten.

Vega de Seoane familiaren abokatuak ideia hori uxatu nahirik mundu guztiak onartua zela gubiak egindako zauriak hil zuela, eta agian bere lehen inpresioaz bakarrik mintzo dela, erantsi zion.

— Nik ongi dakit ostikoka hil zutela.

Erantsi zuen, jendea berriro farrez gainezka egin zuelarik.

Parte hartu zuten ere beste lekukoen artean: Anjel Ezenarro, Pedro Jose Larrañaga, Sabino Ezenarro, Antonio Mujika, Fermin Olaskoaga eta Juan Urresti, baina ez zuten deus berririk adierazi.

Halaber Antonio Aranburu, Idiakezen tailerreko enkargatuak hitz egin zuen bere aginduetara izan zuen langileaz. Mutil ona zela, ez zela batere sesio biltzailea eta baketsua izan zela bere lantegian bederen. Ez zuela ere inoiz bere ideia politikoak nabarmen agertu.

Almiro Perez Moratinosek Donostiako *La Prensa*-ko zuzendariak adierazten du gobernadore zibilaren beribilean joan zela Getariara, zeren gertatutako jakin zuenean eskatu baitzion eraman zezan berarekin. Nola iritsi bezain laster Udaletxera joan ziren eta bertan jada detenitu batzuek aurkitzen zirela.

— Beraz, zuk ez zenuen ikusi gertatutakoa?

— Ez. Dakidan guztia gero hantxe kontatu zidatelako da.

— Zein ziren zure ustez Frantziskoren arrazoiak egin zuena egiteko?

— Sesioak, hau da, hura izan zen azkenekoa. Baina kontatu zidatenez, egun hartan gertatu izan ez balitz beste edozein egunetan gerta zitekeela, Ziriako mehatxupear baitzegoen.

— Uste duzu zerbait egiazkorik badela mehatxu kontu horretan?

— Ez dakit, baina nire ustea da ez zuela Ziriakok lagun asko herrian eta aspalditik zebilela talde harekin haserretuta.

— Zerbait zehatzagorik arazo honen gainean ba al dakizu?

— Ez. Dakidan guztia kontatutakoa besterik ez da.

Gero, Primitibo Urbietta Getariako Círculo Republicano taldeko burua agertu zen lekukoaren artean. Honek adierazi zuen apaizaren etxean goizeko ordubiak arteko bilerak egiten zituztela batzuek eta horien artean Anselmo Campos delako bat ere ibiltzen zela.

— Ez daki zertaz tratatzen zen bilera horietan?

— Ez, ez dakit.

— Zu, beste elekzio batzuetan erregezaleekin aurkeztu zinen ezta?

— Bai jauna. Berdin zait, monarkiko edo komunista.

Salako jendaratean oihu batzuek entzun ziren, *monarkiko, farsante, transfuga, txaketero...* Jendea isilarazi zuen Usandizaga abokatuak eta erantsi zuen:

— Ah, ongi da, ongi da... Zuri berdin zaizu monarkiko, errepublikano edo komunista izan.

Akusazioak, Gaspar Eizagirre eta Jose Maria Basurtoren lekukotasunen ondoren auziaren uztea eskatzen du, zeren lekukoek esandakoaren arabera zigor eta epai berri batzuen merezitzaileak aurkitzen baititu.

Defentsak, aldiz, ez zela izan albiste ez berri garrantzizkorik hura merezi zezakeenik eta *no procede* ihardetsi zuen. Ondoren epaimahaiak ez zela akusazioaren eskaera onartzen, erabaki zuen.

Hala lekuko guztiak galdera-erantzunen saioa pasatu ondoren, Sotos fiskalak txistu artean eta Usandizaga defentsak txalo artean epaiarako espreski sortu beren txostenak luze eta xeheki aurkeztutakoan Herri Juratua erabakia hartzera erretiratu zen.

Biharamunean goizeko zazpietarako denak zeuden berriro Salan. Epaimahaiburuak beren erabakia zazpi galderei erantzunez eman zuen banan-bana, zein honela labur bildu eta jaso zuten agiri egileek:

Lehen galdera: 1932ko otsailaren 15ean akusatuak, Frantzisko Idiakezek Ziriako Gatzagari gubiaz emandako kolpearen ondorioz hau hilik gertatu zen ?

Lehen erantzuna: Bai.

Bigarren galdera: Ziriako Gatzaga lurrean zegoenean eragin zion erasotzaileak sorbaldatik kolpea joaz berak inolako arriskurik ez zuenean ?

Bigarren erantzuna: Bai.

Hirugarren galdera: Hilketa gertatutako egunaren bezperan akusatuak, Frantzisko Idiakezek eta Ziriako Gatzagak apostu egin zioten elkarri pezeta bana ezarriz seinale, eta hila gertatuko zenak esan zion lehenari hurrengo egunean irain haiek ez zizkiola esango ?

Hirugarren erantzuna: Ez.

Laugarren galdera: Heriotza gertatu baino lehenago Ziriako Gatzagak esan al zion Frantzisko Idiakezi errepikatzeko hitz haiek ?

Laugarren erantzuna: Ez.

Bostgarren galdera: Ziriako Gatzaga egun hartan burnia hartuta Zezilio Idiakezen atzetik abiatu eta lurretik altxatu gabe hilak akusatuari kolperik bota al zion ?

Bostgarren erantzuna: Ez.

Seigarren galdera: Akusatuak eraso bere anaia arriskuan ikusita egin al zuen ?

Seigarren erantzuna: Ez

Zazpigarren galdera: Asesinatua izan aurretik Ziriako Gatzagak minik eragin al zien akusatuari edo honen anaiari ?

Zazpigarren erantzuna: Ez.

Salan isiltasuna da nagusi. Izua. Goizeko zortziak hogeita bost gutxi dira. Akusatzaileek hilketari dagokion zigorra eskatzen dute. Usandizaga abokatu ere Sotos eta Vega de Seoane akusatzaileek eskatutako zigorrarekin bat dator. Epaimahaia deliberatzera erretiratzen da, eta goizeko zortzi t´erdietan epaia irakurtzen du. Frantzisko Idiakez erruduntzat jotzen da.

Beraz Don Antonio de la Campak ahots goraz idatzi duen sententzia irakurtzen du:

En la ciudad de San Sebastián...a 22 de febrero de 1933...vista la celebración del Juicio...contra Francisco Idiáquez...1º Resultando que... 2º Resultando que..., FALLAMOS que debemos condenar y condenamos al procesado...a veintiun años, seis meses y veintiun días de cárcel...y a pagar las costas...

Hogeita bat urte, sei hilabete eta hogeitabat eguneko kartzela zigorra ezartzen zaio, epaiko gastuen ordainketa eta alargunaren familiari zuzenbidez erabakiko dena.

Aretoan isiltasun astun bat hedatu da. Jendea harri eta zur dago. Hala ere ez zen hemen bukatu epaia, zeren bola zuri eta beltzen prozeduraren bitartez galdetu zitzaion Herri Juratuari ea zigorra gehiegizko zeritzon eta honek konprenituz gertaturikakoa hala kontsideratu zuen. Beraz, zigorra jaisteko espedientea idekitzekotan gelditu ziren.

Biharamunean otsailak 23, mutu, hitzik gabe gelditu ziren abertzale batzuek epailearen erabakia egunkarietan irakurri zutenean. Fiskalak hamalau urte eskatu eta Herri Juratuak hogeita bat ezarri. Hura bai zela galanta, eta bai *Euzkadi*-k Bilbon bai *El Día*-k Donostian kondenatuaren erreibindikazio kanpaina bati eman zioten hasiera.

Hala biharamunean jendeak *El Día* egunkaria ideki zuenean Dreyfus kasuko Zolaren diskurtso famatuaren hasiera aurkitu zuen hizki handiz inprimatua, alegia, NIK AKUSATZEN DUT, eta “Frantzizko Idiak ez da erruduna”.

Amorru biziak jota, luma dardarez esaldi kontsokratua berrartzen dugu: Nik akusatzen dut.

Euzkadiko eta Estatu espainoleko kontzientzia publikoaren aurrean justizia berriro ezarri izan dadin eskatzen dugu....

Bihar akusatuko dugu Justizia Euzkadi eta Munduaren aurrean ager dadin behar duen bezala, zeren Euskal Herri osoaren arima den euskara gutxietsi eta oinperatua izan baita.

Eta horrelakoxe titularrak agertu ziren hurrengo egunetan. Juizioaren berrikustea eskatzen zen. Ohorea itzultzea, euskaldun zanpatuari justizia egitea.

Donostian otsailaren 24ean dataturiko Ruperto Marieta Hotel Continental-eko langile xumearen gutun autografoa atera zuen *El Día*-k. Bertan esaten zuen bera izan zela herri juratuaren bozeramailea, bakarra zelako zekiena gaztelaniaz,

bik oso gutxi eta beste guztiak ezerez. Galdetu zienean zer nahi zuten erabaki erantzun ziotela Idiakez errugabea zela agertu nahi zutela. Egin zuena anaia defenditzeagatik izan zela eta, beraz, kalera atera behar zutela. Nola berak erantzun zien iritzi berekoa zela eta lau galderei erantzungo ziela ezetz eta hiruri baietz, baina gero konturatu zela aldrebes egin zuela, eta ez zutela jakin behar bezala galderei erantzuten. Deklarazio berri hura egiten zuela, Idiakezi gertatu zitzaionak pena handia sortu ziolako, zigorra zerbait arintzeko esperantzarekin.

Juratuko bat bizi zen Aizarnako baserrira gaueko hamarretan iritsi zenean *El Día*-ko kazetaria elurra ari zuen mara-mara. Inguruetako bazter guztiak zuriz jantzirik zeuden. Juratu izandakoaren semea agertu zen atarian esanez:

— Aita goian dago. Igo zaitetze. Erabat samindua eta kezkez beteta dago gixajua.

Jota zegoen benetan eta esaldi bat besterik ez zuen errepikatzen:

— Ederra egin diagu!

Kazetariari aldamenekoak esaten dio baserritarrak bere bizi osoan izandako ordurik tristeenak ari dela pasatzen.

— Ai, ene! Zer egin liteke Frantzisko salbatzeko? Gertatu dena izugarria izan da. Zer egin nezake?

Galdetzen du behin eta berriro, eta eransten du:

— Galderak erderaz eginak zeuden eta ez genduan konprenitzen zer arraio esan nahi zuten. Geure larria

ikaragarria zen. Guk esan nahi genuena zen, Frantziskok Ziriako hil bazuen ere bere anaia defenditzeagatik izan zela. Galderak euskeraz eginak izan balira zerbait konprenituko genduan baina...

— Frantzisko errugabea da, — errepikatu zuen berriz eta honela amaitu zuen begietatik masailetan behera malkoak zerizkiola —. Egin zazute al dezuten guztia Frantzisko gizarajoa salbatzeko, kartzelatik ateratzeko. Nik egin nezakeen guztia bihotz-bihotzez egingo det.

Amorrazio biziz irten ziren kazetariak Aizarnatik gogoratzean nola Sotos jaunak konprenitzen ez zuen hizkuntza batean mintzarazi nahiz torturatzen zituenean. Azpeitira jaitsi zirenean oraindik elur malutak goian behean etengabe erortzen ari ziren. Azpeitiko beste juradu batek gauza berdintsuak esan zizkien eta hau erantsi:

— Goazen Errexilera, hango juraduak nik diodan gauza berbera esango dizue eta.

Jose Matxain juratuak honelako autografoa idatzi zuen *El Día*-rako:

Jose Machain eta Eraunseta esaten det nic

Atzo Donostico Audiencian juradu nitzala Fransisco Ydiaquezen causan. Erderaz esnaquiyelaco ondo esnuela eguin nainuena; nic esan nai nuen Fransiscoc Ciriaco Gatzaga eritu zuanian eguin suala bere anaya Cesilio iltzeco peligro aundiyan icusisuelaco eta berac eser egin esin suelaco bere defensan: pena aundiya daucat juradubai egindaco galderak es ondo comprenditzia.

Donostian otzaillaren 23an 1933

Jose Machain.

Kanpaina honen aurrean Fermin Vega de Seoane eta Carlos Sotos abokatu akusatzaileak gutun publiko batean errebisioaren alde agertu ziren, esanez portaera orekatua hartu zutela, YO ACUSO, Nik akusatzen dut hain hitz handiz eta serioz zerabilenak erresponsabilitateak eta okerregileak behar eran salatzea, baina ez zela hala gertatu. Ez zen oso kontent gobernadorea, ordea, eta agindua eman zuen *El Día*-ren otsaileko hogeitabostean ateratako aleak erretira zitezten. *¡Nihil novum sub sole!* Deus berririk ez zerupean, eransten zuen honek txoko batean.

EUZKADI-EUROPA lelopean mila bederatzirehun eta hogeita hamahiruko apirilaren 16an, hauteskundeak baino aste bat lehenago Bigarren Aberri-Eguna ospatzen da Donostian

Meza Nagusia 10tan Andra Mariren elizan Erramun Labordak eman zuen bere tenor ahots gora aipagarriaz, eta irteeran kale nagusia osorik betea zen. Barreiatu zen portu eta Urgull aldera badiaren ederra kontenplazearren eta ikusi

zituzten ikurrinaz beterik Bermeotik, Zumaiatik, Oriotik, Donibane Lohizunetik eta beste zenbait portutatik iritsitako itsasuntziak.

Hala Getariatik ateratako bapore batzuek Santa Klara uhartea pasa eta Ondarretako kartzela aurretik igarotzean tutuak, adarrak eta oihuak entzunarazi zituzten barnean zegoen Patxi gazteari euren elkartasuna adierazi nahiz, eta haraino oinez jai eta besta moduko pasioan inguratu ziren gazte kuadrilekin bat eginez.

Bazkaria *Maitea* Egia auzoan zegoen erreboteko frontoian izan zen. Ondoren hizlarien txanda, zeinak aurkeztu zituen Donosti-Buru-Batzarreko zuzendariak, Urreta jaunak. Aurkezpen kantaria egin zuen ere Iparraldetik iritsitako Mattin ttipiak baina bertsolari handiak.

Mitinlarien artean Teodoro Hernandorena zizurkildarrak euskaraz hitzegin zuen, eta Joseba Andoni Agirrek euskaraz eta gaztelaniaz. Traje dotorez jantzia musu zapi zuria xakaren goiko ezker poltsan, bere aberriarekiko sua hitzetan ezarri zuen. Halaber Manuel Carrasco Formiguera *Katalunyakoko Unió Democrática* talde politikoaren lehendakaria katalanez mintzatu zen. Ramon Otero Pedrayo, *Partido Galegista*ko diputatua gaztelaniaz eta galegoz aritu zen. Francesc Maspons Anglases katalanez eta frantsesez eta Edward Ammende jauna, Europar Nazionaliteen Biltzarreko (CNE) presidente orde eta idazkaria frantsesez eta alemanez, *Argia*-ko kronikagileak dioen bezala. Telesforo Monzon izan zen hizlarietan azkena frantsesez eta euskaraz mintzatuz. Denak bat etorri ziren

azpimarratzerakoan Euskadik aske bizitzeko duen eskubide berezkoa, hau sortze beretik baitagokio.

Denak zutik arreta handiz entzuten zituzten solasak. Andreak eta gizonak zein baino zein apainago, alkandora txuria eta trajea, gizonezkoak txapela beltza buruan eta andrazkoak kapela zuria. Oholtza frontoiaren ormari atxikita altxatua zen eta garaiko argazkiak erakusten duten bezala han atzean ikus zitekeen Atotxako futbol zelaiko horma, MATERIAL FERROVIARIO kartelarekin, almagazak eta tximiniak.

Bazkaria eta hitzaldiak bukatu zirenean jendea Santa Katalinako zubi dotorea igaro eta estropada ikustera inguratu zen Kontxara arratsaldeko lauretan izan baitziren.

Ondoren eta jai osoa ospatu nahi zutenek, eta jendez blai bete zen lekua seiretan Atotxako futbol-zelaietan bildu ziren jaiak ospatzen jarraitzearen. Dantzarien txanda zen. Dena zuri, gerriko gorri eta txapela beltz. Ezpata-dantzariak, gorulariak eta beste.

Biharamunean kazetek ziotenez orotara berrogeita hamar mila abertzale bildu omen ziren leku orotarik, zazpi probintzietatik etorriak, eta bat baino gehiago ere Madrid aldetik.

LAUGARREN EUSKO-OLERTI-EGUNA Iparragirre poeta hilezkorrari eskainiko zaio. Omenaldia Urretxun uztailaren 15ean eta 16an larunbat eta igandez ospatuko da. Larunbatean arratsaldeko sei t´erdietan txistularien banda kalez-kale. Eta bederatzietan *Ederrena* Antzokian Zumaiako *Euzko Etxea* antzeztaldeak berriro Pierre Lotik asmatu eta Toribio Alzagak antzerkirako moldatu *Ramuntxo* obra antzeztu zuen, txalo zaparrada handiz sarituak izan zirelarik antzezle trebeak. Kale batean kartel handi bat zintzilik balkoi batetik bestera. URRETXUA ´K ONGI ETORRIA DENOI. Eta Iparragirre jaiotako etxean beste honako plaka hartitz hauekin ipini zuten:

ECHE ONETAN

JAYO ZAN

ON JOSE MARIA IPARRAGUIRRE

Nació 1830 — Murió 1881.

Igandean goizeko zazpiretako banda munizipalak diana joaz ohiko ibilaldia burutu zuen kalez-kale eta bederatzietan txistulariek. Donostiatik trenez joandako komentariogileak dioskunez, danborra jotzen danborrariak gau pasa egina behar zuela, ez baitzitzaien danborra entzuten askotan. Hamarretan Meza nagusia. Perossiren Bigarren Pontifikala. Organoan Toribio Nabarro. Sermoia Antonio de Abaunzaren ahoz, *Otoitza eta Poesia* gaitzat harturik. Testamendu zaharreko igarleak ere aipatu zituen, besteen artean, Isaias, eta Jeremias. Dabid errege poeta ere. Andre Maria Birjinarekin eta

Iparragirrereren bertso batzuekin bukatu zuen sermoi ederra. Solo ederrak ere entzun ziren Egurenen *Ave Maria*, eta Urkidi eta Ugalde jaunen ahots bikainei esker.

Hamaika t'erdietan Herriko Etxearen Areto nagusian Iparragiren omenaldia. Mahaiburu Bonifazio Berriotxoa alkatea. Iparragirreri buruzko hitzaldia Jose Eizagirrek prestatu du. Musikari ospetsuaren bizitzaren gora beherak xeheki kontatu dizkigu, nola jaio zen Urretxun eta Madridera bizitzera joan ziren, nola behin eskolatik ihesi ibilia zen Lehen Karlistadako gerlan, eta gero Frantzian, Suizan, Italian, Belgikan eta Londresen ere mundua ezagutzen. Azkenean etxera itzuli zenean amak esan omen zion: *Seme, au al duk eskolatik etortzeko ordua ?* Ondoren Madridenten Café de San Luisen Juan Jose Altuna lagun zuela asmatu zutela elkarrekin hainbesterainoko arrakasta izango zuen *Gernikako arbola*, kanta hunkigarria.

Sari banaketa iritsi zenean Aitzolek hartu zuen hitza eta sariaren historia aipatu ondoren argitu zuen nola aurtengoan eman zitzaion zilarrezko haritz abarra Pantxeska Etxeberria, jesuita gazteari Marneff-etik (Belgika) bidali zuen *Bost lore* poemagatik. Txirrita eta Telleri-Txiki aritu ziren ere bertsoan kantari, eta azkenik bazkaria *Casa Lizarralde*k prestatuta berrehun bazkaltiarrentzat arkupetan eman zen: zizka-mizkak, Iparragirre zukua, miga lekabakin, legatz egosia, oilasko errea urazakin, mota askotako postreak. Edaritzat Errioxako ardoa eta bertako sagardoa. Kafea, kopa eta purua, edo oso kezale ez zen kronistak dioskun eran, akeita, edari biziak eta txokorrak. Komentatzen digu ere nola ez zen gelditu Toribio

Altzagak prestatu zuen *Dollorra* antzerkia ikusten, trenez itzuli behar baitzuen Donostiara garaiz. Jakina den bezala, Dollorra, Jose Elizondok Molière-ren *L'avare* obrarekin eginiko moldaketa jokatzekoa da.

EL DÍA donostiar egunkariak, abuztuaren biko lehen orrialdean honakoa dakar:

Vista del proceso instruído, por revelación del voto, contra tres miembros del jurado que condenó por error a Francisco de Idiakez... Quedó patentizado de manera definitiva que el tribunal popular no supo lo que hacía por desconocer el castellano.

Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariak bart, abuztuak 23, Federiko García Lorca poeta eta antzerkigilearen *Bodas de sangre*, [*Odol ezteiak*], Victoria Eugenia antzokian jokatu zen estreinaldiaren berri ematen du. Iragarkiak dioenez bi funtziotan eman zen asteazkenean, arratsaldeko zazpiak laurden gutxitan eta gaueko hamar t´erditan. Eta komentatzen du nola Pepita Díaz de Artigas eta Manolo Colladoren konpainiak poeta andaluziarraren tragedia sakona jokatu zuen, hainbeste komedia lelo eta txotxoloren ondoren, *después de tanta comedia ñoña*. Nola Josefina Tapias aktoreak, amaren pertsonaia zailean, modu ezin ederragoan deklamatu zituen bertso berri, bikain, eta tentsio apartaz beteak. Eta honi jarraki zitzaiola merituz Rikardo Juste, neska ezkongaiaren aitaren

rolean bikainki jokatur. Ez dela batere harritzekoa, beste ikuslerien artean hain eztabaidatua den obra Donostian hainbeste gustatu izana.

TXISTULARI errebistan Tomaxek “El genio de la raza” izendaturiko artikuluan txistuaren modernizatu beharraz dihardu. Modernotasuna behar dugu zentzurik benetazkoenean, alegia, handitasuna, duintasuna, soinu argitasuna, ideologia, baina ez putzu zikinak ur-erreka garbiekin nahasteko ...

Nola Arturo Kanpionek, *Erraondoko azken danbolintero*a 1917ko urtarrilaren 5ean idatzitakoa handik hamabost urtera eginiko omenaldian Iruñeako hirian, behialako *caput Vasconiae* delakoan jai handia ospatu zuten. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik iritsi ziren autobusak eta San Lorenzo elizaondoan bildurik denak Udaletxe, Diputazio eta Gobernu Zibil aldera abiatu ziren. Eta hasteko, arratsaldeko zazpi t´erdietan, Teatro Gayarren funtzio eder bat eman zuten berrehun txistularik Zubizarreta maisuaren zuzendaritzapean Guridi, Garaizabal, Donostia eta Urteagaren obrak interpretatuz.

Nola hurrengo egunean, goizeko zortzi t´erdietan txistularien abesbatzak Perosiren Meza Pontifikala abestu zuen, organoa Zubizarreta jaunak jo zuelarik, eta bakarlarien saioak Bedialauneta, Lezea eta Casas jaunek kantatu zituztela.

Errenteriako Lizasok emandako hitzaldian azpimarratu zuen kanta zaharrek ohitura onen suspertzaile behar zutela izan, eta ondoren Tege ezagunak, errebistako idazleen izenean

“Erraondo goguan dugularik” hitzaldi alai eta bizkorra irakurri zuen, denengan eder-mina sortu nahiz. Umore eta grazia handiz honela bukatuz: “Aurten ba Erraondoko azkenengo txistulariaren odoletik sortutako semiak goralduko dute Iruñan Erraondoko azkenengo txistularia, Aitorren seme zintzo illezkor ura”. Batzarre Nagusia San Frantziskoren Eskoletako aretoan ospatu zela. Lehendakaritzan sinbolikoki aulki huts bat zegoelarik eta hormaren goialdean Arturo Kanpionen fotografia. Julio Altadill presidenteak urrutitik etorriak zirenei eskerrak eman ondoren Arturo Kanpion han ez izatearen arrazoiak adierazi zituen eta honen gutuna irakurri, non argi eta garbi esaten zuen, *Yo, espiritualmente estoy con ustedes, entre ustedes.*

ONDARRETATIK EL DUESORA eramatea Patxi Idiakez erabakitzen du Gobernadore Zibilak, kontutan hartuta euskara dela eta bisitetan familiarrak eta lagunak joaten direnean sortzen diren istiluak eta haserreak goardia zaindarien esaten dietenean *se prohíbe hablar en euskera.*

1933ko abuztuaren 9an goizean goiz esnarazten zaio Idiakezi eta petakan sartu ondoren bere arropa eta garbiketako erremintak, polizia komisaria lagun Guardia Zibilen Asaltoko Indarrek babestuta eta aurretik motoziklista bat daramatela abiatzen dira Santoña aldera. Gaua da. Beldur ziren

zurrumurruak zabalduak baitziren bi mila eta bostehun nazionalista armatuak komitibaren zain zeudela Durango eta Bilbaoren artean. Eta porsiakaso kostako bidea hartu ordez batzuek ziotenez Gasteiz aldera abiatu omen zirela. Baina badirudi zurrumurru hori ez dela egia, zeren eta Eli Gallastegik bere memorietan dioenez, Atxuriko geltokian ikusi zuen guardia zibilez inguraturik.

Idiakezek Leongo mehatzetako trena hartu zuen, beraz, ongi zainduta, eta lau ordu luzez Barakaldo eta Castro Urdialestik igarotakoan Santoñara iristen dira. Hemen trenetik jaitsi eta auto baten barnean sartuta, motorista aitzindari, lintzirezko parajeen itsasotik aski hurbil dagoen 1907an eraikitako hormigoizko kartzelara, alanbrezko hesiz eta dorrez inguratura ailegatzen da.

Presozainak halako mugimendu tzarra ikusitakoan Alfontso XIIIaren adiskide monarkikoren bat izango zela pentsatu zuten. Cavalcanti markesa edo, jeneral konspiratzailearen bat, *un pez gordo*, preso garrantzitsuren bat, eta ikus zutenean nazionalista hiltzaile arrunt bat zela, ziega batean sartu zuten inkomunikaturik.

Madrideko *El Herald*o kazetak, handik hilabete batera, irailaren 25ean hain zuzen, adieraziko du Picavea Diputatuak eskaturik Lerroux jaunari esker lortu zuela kartzelaren irautaldia lehen hogeita bat urte sei hilabete eta hogeitabat eguneko zigorra zena, zortzi urte eta egun batekoa izatera jaits zedin..

Albiste honen berri ere zekarren *Argia* Donostiako euskal astekariak “Idiakez Dueso’ko itxitegira” artikuluan aipatzen du ere nola “bizkaitar aldun Horn Areilza’tar Joseba jaunak Madril’ko Auzitegi Nagusitik eskutitz bat jaso duen lengo 22 urteko zigorkada 8 urte ta egun batekoan utzi diotela. Onekin ez degu gelditu bear euskotarraok, Idiakez gure artean ikusi arte. Jo ta aurrera”.

Beraz, euskal nazionalistak ez daude konforme zigor beherapenarekin ere eta kasuaren errebisioa lortzearren ahaleginak egiten omen ari dira.

Honen adierazgarritzat kontsidera daiteke ere Bilbon argitaratzen den *Jagi-Jagi* aldizkariak 1933ko urriaren 14ean lehen orrialdean eskatzen duenean Idiakezen argazki batekin eta honen ilustrazio batekin burdin-sarearen atzean, askatasuna presoarentzat, *El candidato de la Libertad*. Eta bukaeran honakoa gaztelaniaz:

TODOS LOS
PATRIOTAS DEBEN PEDIR
Y VOTAR COMO PRIMER CANDIDATO
A LAS CORTES ESPAÑOLAS A
IDIAKEZ’TAR PANTZESKA.

Hurrengo urtean Uzturrek Ondarretako kartzelan idazten duen bezala, presondegi hau kanpoa itsusi eta barrena itsusiago da, atepak eta atepak, giltzak eta burdinak besterik ez.

Eta El Duesokoa areago, handiago, ilunagoa, zatarragoa ere bada, Euzkadi maitetik urrun sentitzen baita bertan.

FRANTZISKO IDIAKEZEN aldeko kanpaina ez zen horrela gelditu, ordea. Kausaren errebisioa, auziaren berrikustea eskatzea erabaki zuten defentsako abokatuek baita ere akusatzaileek. Gipuzkoako Buru Batzarrak, Telesforo de Monzon aitzindari zuela, EL DÍA-n argitaratu zen honako erabakia hartu zuen:

Ez gaituzte, ez, alderditako gora bera itxuak gure ahotsa altxatzera beartzen.

Euskeldun batzuek beste euskeldun zindo bat epaipetu nai ez ta, ogeita bat urterako espetxetziak jartzen gaitu zutik zuzenbidea eskatuz.

Gure mintzo zaarrian itz egite debekatziak sortu duan oker itxu eta ikaragarri onek gure gogoak bizi eta gogo-gogoz biurritzen ditu zuzengabekeri ikaragarri orren aurka.

Alde batetik zuzentasunak. Bestetik euskerarenganako maitasunak. Gure euskeldun gogo agiri oiek biartu gaituzte ots egitera gizon zuzenbide zale eta euskeldun zintzo guztieri, zuzenbidea egingo den artian, eta euskerari bere eskubideak azaltzen ez zaizkion bitartian.

Asmo oetan gizarte zuzenbideetaz, gure abenda eskubideetaz, eta baita ere euskeraren omenez euskeldun guztieri dei dakiogu datorren igandeko azalpen aundiera etorri ditezen.

Gipuzko Buru Batzar lendakari MONZON´dar TELESFOR.

Mitin handi hartan parte hartzekoak ziren Donostiako *Eusko-Gaztedi*ko buru zen Teodoro Hernandorena jauna, Manuel Irujo jauna diputatu ohia, Bartzelonako Jurisprudentzia Akademiako lehendakari orde zen Maxpons jauna, Jose Antonio Agirre Espainiako Korteetan diputatu eta Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakari zen Telesfor Monzon jauna. *Euzkadi* aldizkariak zioenez otsailaren lauean *Sabin-Etxia* batzokian bi errealeko suskripzio bat ideki zuten, Idiakezen auzia berriro aztertua izan zedin. Deiari erantzunez abertzale askok beren poltsikoak astindu egin zituzten eta zerrenda luzea osatu zen. Emaileen artean ageri ziren, besteak beste, Keperin Jemein´dar idazlea, Basauriko Udal batzarra eta beste.

Esan bezala Ondarretako kartzelan zegoenean kazetari abertzaleek preso *Patxi gaxoa* izendatzen zuten, eta abisua emanaz, bisita orduak ostegun eta igandetako goizeko bederatzietatik hamar t´erdira zirela. Preso-zaindarekin istiluak maiz gertatu ziren, bisitak joaten zitzaizkionean. Hala, Patxiren ama, arreba, familiakoak eta herriko lagunak euskaraz hitzegiten hastean goardiek berehala ohi bezala – *hablen en castellano* – esaten zieten eta protestatzen bazuten lepozurretik Patxi hartu eta ziegara itzultzen baitzuten. Honela gauzak, El

Duesoko kartzelara urruntzea erabaki zuten agintariek, esan bezala. Ez zen, halere bisita lagunik gabe gelditu, Keixetak *El Día*-n kontatzen digun bezala:

Igandean Dueso´ko espetxian giñan Idiakez ikertzen eta guk beñere egin ez gendun ibilaldia egin genduelako, ara emen gure jun-etorri ederra lerro txiki onen bidez.

Exkerra buru genduela atera giñan Getariatik ogeitabi gizon ontzi eder batean gabeko amabitan, Getariatarrak, zarauztarrak, tolosarrak, ernaniarrak eta azkoitiarrak; zerua urdin zegon, itxasua bare, barrenean gendun kezka ura estaltzearren abeslari giñan eta Itziar´ko Ama agertu ondoren Txintxon satua sarri eskuratutzen gendun.

Ordubik aldean, lurreko aizea zala edo etzala, ontziaren sabelean sartzeko agindua; indartu zan lurreko aize ori eta gu an illunpean danbadaka alde batera eta bestera ikaraz, eta ori zarauztarrak eta getariarrak lo zurrundaka nabaitzen ginduzela.

Nik alde batetik Exkerra nun eta bestetik Errena. Onek etzun toki jakinik, orantxe nabaitzen nun lozorruan bezela nere gañetik zear Exkerraren ao zuloan oin muturra sartzen eta Exkerra amorruz Errenari alpargatatik aginka, geroxuago nere txanda izaki eta ume bat bere amaren besoetan edo magalean ezkutatu oi dan bezela nere iztar azpitik igarotzen zitzaidan berriro. Exkerrak buruko azkurea kentzen zion arte eta bitartean gure buru gañean ur otza eta ontzia danbadaka.

Etzuan guk nai bezin azkar eguna zabaldu. Egunakin batera itxasoan goratuaz, artean indarge zan eguzki ama berriaren izpi gozoa. Goizaren ederra! Bilbao inguruan giñala esan ziguten eta geroxeago, zazpirak aldian marmitakoa jan bear zala. Zer ote dek, genion guk alkarri, marmitako ori? Eta nik ez dakit edo guk itxas gosea genduelako edo jaki ura gozoa zalako beñepein beriala marmit tankarraren erraiak ximurtu eta legortuta agortu ziran.

Zortzirak ingurun Santoñan giñan. Jaupa ikusi eta Dueso´ra. Beriala giñan Idiakez, Forset eta beste Barakaldoko gazte baten aurrean.

Ez galdetu irakurle zer esan giñion alkarri: espetxeko nagusiak une batzuk gehiago igarotzen utzi zigun, eta itxasora amabitan.

Irurak inguruban berriro marmitakua eta lenago bezela. Ura janariaren goxoa eta gure jateko gogua!

Bostetan zuzendu giñan Bermeoruntz. Bermeotarrak ondo artu giñuzen beren Batzoki berdingabea erakutsi, ontziraino lagundu eta Garagarrilaren 17an izango duten zabalkunderarte agurtuz.

Kaitik irteeran ogeitaka ontzi etxeruntz eta gure ikurrintxo nabaitu zutenean, ango orrua, ango deadarra! Gudaritzan buruzagia bezela gure ontzia an igaro zan ontzi taldearen erditik; bederatzietan Getariara, akeita eta lota etxera.

Logale izaki eta ametsetan. Exkerra eta Errena ontziaren sabelean burrukan.

Denak ez zetozen bat Gatzagaren hilketak eta Idiakezen auziak hartu zuen ildo eta jaidurarekin, eta horrela Itxasurre mutrikuarrak besteak beste *La Constancia*, kazeta tradizionalistan honakoak bota zituen bortizki, hildakoa errazegi eta arinegi ari zirela ahanzten azpimarratuz:

Eldu naiz irakurtera igaro dan asteko *Argia* eta bertan irakurri nituan izpar batzuek, eta orretarako gaur nola batzokian irikita zegon arpide bat Idiakez errugabe kartzelatik ateratzeko. Nere buruari galdetu nion, idazle onek maite ote du mutrikuar odola. Errugabea, plazaren erdian gizona sasoikua ilda!

Nik Idiakez ez det ezagutzen, baña bai onek il zuana, eta nik ezagutzen nuan garai artan abertzale zintzo edo purrukatua, eta gauza au esango dute beren orduko lagunak, gaur Batzokian aurrenengo daudenak.

Lotxagarrikeria da Mutrikuarrak arpidea irikitzia Idiakezen alde; danik gutxienian Mutrikuarren odolak gehiago balio du, eta ez arpidea, baizik justizia eskatu bear luke.

Bigarren aldiz erorten da mutrikuar odola Getariako kalia eta oraindik guk askatasuna eskatu?

Ez ote du balio gure odolak? Benetako Mutrikuarrak, altxa biotzak eta eskatu justizia bear dan eran.

Gizonaren bizitzak asko balio du, ta karlisten mitiña egin zanian, abertzale bat zerbait zauritu zutela eta beste gabe or ari dira nork egin ote dion bila bear dan eran zigortutzeko eta berak gizona ilda, ezertxo ere ez?

Karlisten mitiña pakean egingo zan, baldin abertzaleak etorri ez balira, eta alaz guztiz ere zigortu egin bear.

Il zutena etzen karlista, baña bai Mutrikuarra, eta erritarra zan aldetik begirapen gehiago bear zuan.

JUSTIZIA JAUREGIKO agiri liburuak dioskunez igandean hamabiak pasata iritsi zen Pasaiako portura *Mascota* itsasuntzia eta bertan zihoazen Antonio Rafagos Pontevedrakoa eta Jose Manuel Martinez A Coruñakoa. Sesio handia izan zuten elkarrekin nabigatzen ari ziren bitartean eta erabaki zuten lehorreratzea arraindegiaren aurrean izango zutela eztabaida garbitzeko okasioa eta. Jose Manuelek poltsikotik labaina atera eta Antonio erasotu zuen, hau deskargako kaxa batzuen atzean gorde zen eta hauen inguruan zebiltzala halako batean Jose Manuelek sudurra eta ezkerreko ixterra urratu zizkion, eta agertu ziren arrantzale on batzuei esker banandu zituzten.

Antonio Donostiako *Casa de Socorro*-ra eramán zuten eta hantxe ipini zizkioten lehen sendagaiak. Erasotzailea Mascota itsasuntzira itzularazi zuten, eta zauritua erietxetik komisaldegira pasatu zen deklarazioa egitera, eta badirudi konplikaziorik sortzen ez bada laster onik izango dela.

Badirudi garaiko giroaren latza gero eta latzagoa, gordinagoa, basatiago dela edonon. Huelgak nonnahi, eliza erreketak, hilketak, lapurretak...

VI

1934

KASUAREN ERREBISIOA ETA ASKATASUNA

JOSE MARIA AGIRRE “LIZARDI” Tolosan hil zen biriketako gaitzez mila bederatzirehun eta hogeita hamalauko martxoaren 12an 36 urte zituela. Lizardi, poeta oparo eta kritiko zorrotz den Koldo Izagirrek dioskunez, lirika mengel maitagarria egin zuen gerentea zen, Lauaxeta, Orixe, Larreko, Zaitegi eta beste olerkari eta politiko anitzekin gutunezko harremanak izan zituen. Elkarri iritziak eta laudorioak eskaintzen zizkioten egindako poemez, honek bihotz-isuria du, hori bizia eta samurra da, hura aski landua eta polit-askia...

Galera handitzat jo zen, noski, euskal letrentzat maiz agertzen baitzen bere iritzia hitz-lauz ere egunkarietan, zeren eta denbora gutxian hiru poeta hil berriak ziren. Zubigar (1930), Loramendi (1933) eta Lizardi (1934).

Epailaren hogeita hamarrean egunkarietako kirolak sailean Max Schmeling Greifswaldeko pisu astunetan munduko txapelduna eta Paulino Uzkudun Errexilen jaiotako, — errex jaio eta nekez hil —, aizkolari famatuaren arteko boxeo eguna, *matcha* aipatzen dute, luzatuko den edo ez zalantzan baitira ukalondoa, antza, lesionatua baitu boxealari alemanak.

Apirilaren batean Bazko egunez Euzkadiko III'garren Aberri Eguna ospatu zen Gasteizen. Ugarteren kartelean gudari lirain bat ageri da belauna lurrean duela eta ikurrina zabalik aidean, kolore txuri-gorri-berdeak nabarmen.

Programa ekintzez betea izan zen. Goiz-goizetik txistulariak kaleetan zehar alborada joaz eta jendea esnatuz eta ohetik jaikiaraziz. Zortzi t'erdietan Meza Nagusia Karmeldarren komentuko elizan. Hamaika t'erdietan Príncipe Antzokian Euskerari Omenaldia Toribio Alzagaren *Bost urtian* antzerkia Donostiako Eusko Iztundeak prestatuta.

Hamabietan Floridako parkean berriro txistularien alardea, bertara ehunetik gora zirela emanaldi hartan bildutakoak.

Ordu bata laurden gutxitan Gasteizko Eusko Abesbatzak, Bilbo, Donostia eta Iruñako Eusko Gaztedirekin batera kanta xorta eder bat abestu zuen Errepublikako Plazan.

Ordu bata t'erdietan Hotel Frontón-en bazkaria.

Hiru t'erdietan berriro Príncipe Antzokian Sabino Aranak idatzi eta Imanol Sotak antolatutako *Libe* antzerki osatu, mamitu eta eraberritua Oldargi taldearen eskutik. Obra

hau bost ekitalditan banatua; *Matxin-gorri* garaiko komentariogilearen arabera, zein baino zein zoragarriagoa da, garaiko ideologia abertzalearen isla.

Bizkaiko historiaren zati bat hartzen du gaitzat. XV. mendean kokaturik, Libe, Billala etxe handiko alabak Salinasko konde gaztelarrari ezkon-hitza eman dio Abendañotarren Andima Ugarteko seme maitemindua ezetsiz. Herriak ez du begi onez ikusten ezkontza hori. Billala nagusiak berriz ez du nahi alabaren bihotz aukera okertu. Arrotza etxera sartzeri doa. Bizkaitar semeak osteri etxetik urruti, itsasoan barrena dabilta... Beraz, ikuskizunaren hari nagusia Andima bizkaitar adoretuaren, borrokan garaile baina maitasunean galtzaile denaren inguruan dabil. Ezteiak ospatzen dira besta eta jai handiz, baina *Zoritxar* izeneko sorginak aspaldidanik iragarria zeukana gertatzeko bidean da. Bizkaian gerra zurrumurrak ari dira hedatzen, eta Salinasko kondea ausartuko ote aurka erasotzen? Gerra biztu da eta 1471ko goiz batez su ta garrak nonahi ikus daitezke, bizkaitar gudariak zaurituak daude batzuek, besteak hilak. Bat batean Libe ageri da Salinasko kondearenganako maitasuna gorroto bilakatu zaiolarik. Une honetan Libe eta Andimak topo egiten dute aurrez aurre eta maitasunak sortu sua elkarri adierazi gabe ezin utzi. Azken agerraldiak negargarriak dira, zeren Libe hil egingen da Andima garaile gelditu arren.

Antzerti-n Labaienek emandako kritikaren arabera teatro lan benetan goraipagarria zen. Libe Gardeazabal andereño lirainaren jokatzeko moldea benetan ikusgarria, hala nola besteena. Halere hutsegite nabarmenak zituen, batez ere gauza

eta zati mordoxka sobera. Eta, ekintza hartatik nahita nahiez sorrarazi beharrezko zela abertzaletasuna duda-mudazkoa...

Hona Liberen bakarrizketetako bat Frantziska Astibia “Astitxe”-ren bizkaieraz buruturiko itzulpenaren arabera, oroitzuz askatasun eguzkia eta Bizkai-askatasuna:

LIBE: Goi Askatasun-eguzkijari dagitsogun opea lez...!
Aintza geure ilai, baina batez ere aintza euron odolaren inoizko bixi biurriz bixiko dan Aberrijari. Aberrijarren il danak, bere opeaz, betiko Bizkai-askatasuna eraltzen dau...! AINTZA! Bizkai-askatasunarren ilten diranai!

Teatro aberkoiaren eredu gisa hartua izan zen eta hain arrakastatsu bilakatu zen, ezen guraso anitzek beren alaba jaioberria *Libe* izenez bataiatu zuten, eta EL DÍAko iragarki batek honelaxe: *Libe, el dentífrico ideal para señoras.*

GOBERNUA GORTEETAN amnistia lege bat prestatzen ari zen eta egun batez aretoan diputatu gutxi zirela laurak puntu-puntu Alba jaunak ideki zuen ohiko bilera. Jose Horn de Areilza euskal minoriako buruak Parlamentu espainolean eranskin bat sartzea lortu zuen, zeinaren arabera prozeduraren akatsen ondorioz Frantzisko Idiakez kondenatua izan zenari berriro bere auzia berrikusteko aukera ematen ahal zitzaion. Honela Epai-Gorenaren Bigarren Aretora jotzeko aukera izan zuen Idiakezek bere epaia

berrikusia izan zedin. Hizkera administratiboan hona nola aurkeztu zen gaztelaniaz Horn-en proposamena:

Se autoriza a la Sala Segunda del Tribunal Supremo de Justicia que la solicitud de parte, y dentro del plazo improrrogable de tres meses desde la publicación de la ley, pueda con carácter extraordinario y formación de expediente con audiencia del Tribunal sentenciador que, adoleciendo de evidente injusticia en el fondo de una falta grave de garantías procesales en la forma, a juicio de la propia Sala, no aparezcan comprendidas explícitamente en los casos previstos en las leyes para los recursos de casación o revisión.

Si en las causas a que tales sentencias hubieran puesto término existiese acusador particular, será indispensable su propia conformidad con la revisión.

Bidea idekia zen, beraz, Idiakezen epaiaren errebisorako. Bere aldetik, Getariako *Unión Republicana*-k abuztuaren hamarrean egindako asanbladan berrikusteko zen auzian akusatzaile gisara ez aurkeztea eta juizioan parte ez hartzea erabaki zuen.

SABINO ARANA FUNDAZIOA-ra joan beharko duela erabaki du Itziarrek aurkitu dituen erreferentzia batzuek kontsultatu eta baieztatzearen. Bertako artxiboetan zer ageri den Idiakez auziaz ohartzeko. Eta busez joan da Donostiatik

Hotel Amara-Plazan kafesnea eta kruasan batekin gosaldu ondoren. *Euskaldunon Egunkaria* irakurtzen doa. Noizbeinka paisaia berdean baserri txuri urrun bat ikusten duela, eta noizean behin lo kuluxka ttipia ere eginez. Bederatzi t´erdietarako botxoan dago. Hiria, duela ez denbora luzea, ilun, zulo beltz bat zirudiena, gaur argitsu eta beste bat dirudi. Bizia eta dotorea ohi bezala baina apainago eta jantziago.

Oso modu abegikorrez errezibitu du Iñaki Goiogana Mendiguren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiako zuzendariak, eta liburutegian lekua mahai handi baten izkinean eseri da, motxilatik ordenagailua atera ondoren, eta eskaera fitxa bete duenean, laster ekarri dizkiote karpeta batean Manuel de Irujo Ollok, *Diputado a Cortes por Guipúzcoa* zenean Lizarratik, 1934eko uztailaren 27an Justizia Ministroari, Vicente Cantos Figuerola Txit jaun Gorenari idatzitako gutuna eta eskaera. Bai eta honek hilabete bat geroago, abuztuaren 27an, zehazki, idazten diona.

Fotokopiak eskatu eta dohan lortu ondoren, hasten da irakurtzen eta lizarratarrak idatzitakoa laburtzen. Protokolozko agurraren ondoren aitortzen du hilketa auzi hartako juratuak ez zekiela kastellanoa behar adina bere funtzioak zuzen betetzearren. Nola, euskaldunek, sinbolo gisara hartu zuten Idiakez kasua, eta Amnistia legea diktatu zenean enmienda bat, zuzenketa bat aurkeztu zuten, zeinaren arabera kasuaren errebisioa eman zitekeen.

Epaitegi Gorenak dekretatu bazuen *capitis diminutio*, zentzumenaren tipitzea, ez zegokiola hori egitea berari

Parlamentuari baizik, eta Kataluniari emandako Elebitasunezko Dekretua, Estatutua bera aprobatu baino lehenagotik, errejimen berriaren orientabideak garbi zeudela azpimarratzean herriek badituztela berezko eskubideak euren hizkuntza propioa erabiltzeko okasio guztietan.

Tamalgarría dela Epaitegi Gorenak hartutako erabakia, eta eskerrak Minoriaren buru zen Don Jose Horn Areilzak eragindako ekintzari gauzak berbideratu ahal izan ziren, zeren lehenagoko arau atzerakoiak bazirudien lurperatuak zeudela betirako.

Kontutan dauka Idiakenez *un vulgar homicida* dela eta hilketa arrunt baten aurrean dagoela, eta familiari kezkatzen badio kasuak Euskal Herriko Parlamentariei ez diola axola handirik, bederen berari partikularzki.

Justiziako Ministroak ihardesten dio esanez barkatzeko erantzunaren atzerapena, eta onartzen duela adiskide bezala pasio noblez idatzitako gutuna, baina aurrerantzean argi eta garbi dagoela Juratu funtzioetatik aske izanen direla kastellanoa ongi ezagutzen ez duten denak. Juizioa berriz egingo dela, aurreko erabaki guztiak deuseztatuak gelditzen direlarik eta oraingoan berme guztiak segurtatuak izanen dituela.

Bi jurista on eta jakintsuren arteko harremana zuzena eta zentzuduna iruditu zaio, dotore idatzitako gutunak, bi zaldun. Valentziarra bat eta nafarra bestea.

EL DÍA egunkariak ekainaren 9an dioskunez Portugaleteko herrian komunista batzuek saiatu egin dira indarrez prozesio bat eragozten eta sesioen ondorioz izan den borrokan hila gertatu omen da bat.

Gilen Lizazo “Litargi”k, Errenteriako kronikak idazten dituen txistulariak ARGIA-n zazpi bertso eskaintzen dizkio El Dueson giltzapean dagoen Idiakez abertzaleari, honelaxe bukatzen dituenak:

Loreak zimel leiar artean...

Aizerik gabe soin barrenean...

Osasun gaia

Aize garbiya

Iretzat bakar duk, Aberriya.

San Anton-pean

Atoz, bai, aske, laztan gaitean.

Idiakezen aldeko kanpaina ez da eten, beraz.

Argia astekariak ekainaren 10ean Zarautzen ospatuko duen Lizardi'tar Xabier-en oroiz *Euskaltzaleak* bazkunak eratu duen jaiaren berri ematen du. Lehen planan Lizardik Xabier Markiegiri eskainitako poema dakar *Umezurtz Olerkiak* liburutik hartua, euskalzale diren guztiak animatzen dituela Zarautzera joatera, honela hasten dena:

Argi egidazu

izarño dardarti

gauaren altzoan

otz-ikara beti...

El Día- k asteartean, ekainak 12, egiten duenean kronika luzea Luzearren lumaz, aipatu Ander Arzelusen idatziz dio, alai eta paketsu igaro zirela Zarautzen Lizardiren omenezko jai guztiak. Izan zen jende ugaria, euskaltzaleen batasuna, Lizardiren jaiotetxean ezarritako oroitarria azpimarratzen ditu, eta nola poesia norgehiagokan Jokin Zaitegi gertatu zen zilarrezko haritz abarrez sariztatua. Eta honela aurkeztu zuen poemaren hasiera.

Tori artzai-ontzi au, olerkaria!

Txatxarra izan-arren, abenda-odolez

igortzi eta aren gogoaren atsez

lurrindu baitizut nire oparia.

Aitonaren aitak asi zun arloa:

oianean ezipel-makilla ebaki,

ta pitxi bait-litzan landu dut poliki...

Azaltzera noa gure lan-asmoa. ...

Luzearrek dioenez ohi bezala Arantza Barrena, Emakume Abertzale Batzako lehendakariak egoki, liluragarriri, txit ondo irakurri zuen ezin ederrago zatekeen poema, eta bai egilea bai eta irakurlea oso txalotuak izan zirela. Bai halaber Aita Agirre, Zaitegiren izenean Urriza jaunaren eskuetatik saria jasotzera joan zenean.

Bazkariak ez zuela izan inolako aitzakiarik, ez zizkamizkak, ez sopak, ez txampinoi arrautzopilak, ez maionesakiko legatzak, oilasko eta eskarragoak, igaliak eta batez ere izozkiak. Baina kexu da ere, zeren eta *edariak egosi egin zitzaizkigun*, dio, *eguzki galda hartan*. Hain ziren mahai zapiak zuri ezen Luzearren aurrean zegoenak eskuak begi azpian eduki zituen *inotizatu nahi banindu bezala*. Beraz, jan zutela, edan, ordaindu eta alde egin zutela.

Lizardiren jaiotetxean oroitarria agertu zenean honako irakurri ahal izan zen:

Eusko elertiaren langile

Agirre Egañ'tar Joseba Mirena

“Lizardi'tar Xabier”

olerkari gorengo

sortu zitzaigun

jaiotetxea

1896 g. jorraileko 18 gn.

zorion egunean

Zarautz euskaltzaleak

opaldutako oroitzarria

1934'gn. Garagarrileko 10'ean.

Eta noski, Zarauzko alkateak ere bere solasaldia egin zuen, honela hasi zuelarik: *Zarauz'tar eta erbestekoak...* Erbesteko hauek ez izan arren oso urrutikoak, noski. Aitzolek

eman zion erantzuna eta ondoren bukatutakoan taldea abiatu zen kalean barrena poxpolinak aurrean zituztela.

Gauean zarauztar xaguxarrak bakarrik zebiltzala uste zuenean hantxe ikusi zuen *Cine Modelo* antzokia jendez betea, eta Donostiako Eusko Etxekoak taldeak *Ramuntxo* antzerkia jokatu zuen eta ez makalki, Egilegor antzezlarri nagusi zela...

Orixek bere aldetik Orexatik Marneffera ekainaren 16an bidalitako gutunean Zaitegi adiskideari atseginik beroenak opa dizkio saria irabazi duelako, *ni zapaldu nauzun arren nik ere koxkor bat bialdu bainun.*

TEGE, bere aldetik, Donostiako Gran Kursalean Bilboko Oldargi taldeak *Iru Gudari* aurkeztu behar duela ekainaren 30ean eta hantxe dago zintzo-zintzo oharrak hartuz lehen ilaran. Polixene Trabuduak, Emakume Abertzale Batzaren izenean egin duen aurkezpena asko gustatu zaio.

Iru Gudari drama historikoa XIX. mendean kokatzen da eta ixtorioa Nafarroako mendietan lekutzen, lehen karlistadaren garaian. Lehen ekitaldian hiru gudari heriotzara zigortuak izango dira, beren buruak soilik euskaldunak kontsideratzeagatik, halaxe baitio Ganitzek:

Ez Espainiako bakaldunarena, ez Franceko erkalarena: euzkotarrak uts-utsik.

Bigarren ekitaldian fusilatuak izango dira, baina Barkaiztegi jeneralak triste eta penaz beterik gualostea abandonatuko du, bere ahaleginaren frakasoaren aurrean. Tragediaren bukaeran EMAKUMIA deritzan eta Euskal Herria irudikatzen duen pertsonaiak honako bakarrizketa egiten du:

LENENGO BURUZAGIJA: Iru zoro erail doguz baña euren zorakerija berpiztu dogu onengan!

EMAKUMIA (*Iru gorpuben ganian zutunduten dala leoi baten legez*): Neure semiak erail dozubez! (*Emakumiaren ingurubak argi dizdikor batek estalduten dauz zerutiko agerpen bat ixango balitz. Bittartean Euzko-Abendearen Ereserkija entzuten da*). Neure semiak erail dozubez! Mendijak ... eta itxasuak ... lurra ... eta aberriko ur gustijak zeben aurka jagi biar litzakez, gaizkiñok, zoratuta legez matte naben semien gaizkiñok ... Nazana naz eta ixango nazana! Semien odolaz ta samiñakaz azi tta aintziduten nazana naz! Itxartuten diran euzkoen goguetan bixi nazana naz! Euzkotarren mattale bakarra izango nazana naz! Lur zati bat ludijan dan artian eta euzko-bijotz batek dardar dagijan bittartian neure amatasun ezilkor au bixi ixango da! Ixadijaren asikeratik euzkotarren egijazko ama ixan nintzana naz! Il diran euzkoen amea neu ixan naz eta bixiko diranena neu naz. Neure altzuan alkartuta bixiko dira ezilkorra dan azkatasun donian!...

Antzoyala.

Nabarmen da EMAKUMIAk *Euzkadi* aldizkarian argitaratutako *Iru Gudari* antzerkian eta ATSUAK *Nigarrez igarozan atsua* Verdes argitaletxean plazaratu lanean bezala, teatro

sinbolikoaren oihartzuna dakartela, Manu Sotak eta Lauaxetak dublindar antzerki aberkoiaren egokitze eta moldatzearen bitartez eta hau Nô teatro japoniarren eraginez, ama EUSKARA irudikatzen baitute. Hara bada nola ekialde urruneko teatroa gureganatu izan den Dublindik barrena igaro eta. Harri eta zur uzten dute zenbaitetan Arteak hartzen dituen ibilbide arrotzak.

ARGIAKO KRONIKAGILEAK irailaren bian kanpainen jarraitzen du, esanez, nola Idiazkez Ondarretan dagoen, baina ez zorigaitzez asko bezala eguzkitan, epel eta goxo eta itsasoan pulunpatu eta bustialdiak hartuz, azkarrenak igeri eginez, baizik eta espetxean gaixo errugabea. Nahi duenak ikustera joateko aukera duela asteazken eta larunbatez eguerdiko hamaiketatik hamaika t'erdia bitartean. Eta Esteban Zubillaga tolosar ausarta ere hantxe dagoela urte bat, hilabete bat eta hirurehun pezetaz zigortua tomate bat bota omen diolako On Fidel Azurza jaunari. Pozaldi bikaina emango dietela gizarajoei...

PYSBE (*Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España*) lantegiko huelgisten lanera itzultzea erabaki zuten bitartekari arazoan gobernadorea eduki zutelarik, baina antxotar, sanjuandar eta trintxerpetar ugari kartzelaratu zituzten, bai Ondarretan bai eta Guadalupeko gotorlekuan.

La Constančia egunkari tradizionalistak bere aldetik irailaren 4ean kontatzen du, nola Donostian 31 de Agosto kalean ospatzen ari zirelarik bertako jaia, gazte komunista batzuek oihuka eta deihadarka aritu ziren, mobilizazio aginduaren kontra aldarrikatuz *¡Abajo la guerra!* Gerrarik ez! Eta asaltoko guardiei esker ez zen inolako istilurik gertatu, eta bakea ezarri zen kalean.

Don Inda edo buda asturiarra, Euzkadiko Jaungoiko berriaren karikatura bat ematen du, non gaztelaniaz goiko tituluan honako esaldia ageri den, *¡Oh, manes de Sabino!* Eta oraindik goraxeago kontatzen da nazionalistek, ezker errepublikanoek, sozialistek eta komunistek egin duten maniobra Zumarragan Prietoren lehendakaritzapean. Nola guardiek eratutako hesia hautsi zuten lehenik Indalezio Prieto, Mairal eta bertako alkateak eta honen atzetik katalandar eta euskal diputatuek. Jada udal areto nagusian gobernadore zibila, Muga jauna, guardia zibilaren komandantea eta Donostiako zaindari nagusia zeuden. Bileran bidean gertatu ohi zen bezala izan zirela oihu separatistak Katalunya libreari, Euzkadi askatuari, Sozialismoari eta Komunismo libertarioari egindako aldarrikapenak. *La Constančia*-k dena dela, bere ohiko pentsakera kontserbatzaileei jarraiki gertaera guztia komedia politiko gisara kontsideratu zuen.

Irailaren hamaseian Kontxako badian ospatutako urteroko estropadetan, berrogeita bigarren aldian hain zuzen, aurreko urtean bezalaxe Orioko *Emen Gatoxti* gelditu zen berriro garaile, bederatzigarren aldiz, San Nikolas traineruaren lema Domingo Mitxelena patroiak zeramala. Saria hemezortzi

mila pezeta, bandera eta kopa, Sasieta eta Aldekoa jaun bilbotarrek eskainia. Bigarren *Aita San Pedrokoa* trainerua iritsi zen Manuel Arrillaga patroi ospetsua buru zuelarik, hamabi mila pezetako saria jasoaz. Eta hirugarren oso denbora gutxira Hondarribiako *Lurra*, alegia lehorrekoak, - zeren bi eskifai aurkeztu baitzuten urte hartan, bat *Itxasoa* arrantzaleen taldeak osatua eta Meltxor Amunarrizeko gidatua eta bestea lehorrekoak -, Roman Agirre patroiarekin, zortzi mila pezetako saria eraman zutelarik hauek Bidasoako bokalean eta Jaizkibelgo magalean etzaten den herri polit aldera.

MUTITEGIKO MUINOAN udaberria hastear zegoela Jose Maria Agirre *Lizardi* hildako olerkariari beraxek hainbat miretsitako parajeen, izadia ederresten egoten zen Urkizuko partean hilarria eraiki zioten alderdikide eta adiskideek, hemen sortu baitzuen *Urte-aroak* poema ederra, sagardi kargatuaren inguruan irailaren 17an jaso zuten, gerra zibil zitalak desegingo duena.

Irailaren 23an Astuariasko mehatzetan ondorio odoltsu eta guztiz lazgarriak izango dituen greba orokorra iragartzen dute, hau da, deitzen zuten bezala izendatzearen *huelga general minera*. Honi *Revolución de Octubre de 1934* deitu izan zaio ere. Iraultza hori, alabaina, Asturias aldean errotu zen bereziki mehatzarien artean, zeren hemen soilik batu ziren zenetistak Langileen Itunean UGT eta PSOEkoekin.

Asturiasko Komuna bezala ere ezaguna izan da, Pariseko 1871eko Komunarekin izan zuen gertakizunen bilakaeraren antzarengatik, eta batik bat bukaera odoltsu tamalgarriagatik. Hasieran errejimen sozialista baten sorrera suposatu zuen, non sozialistak edo komunistak ziren nagusi, adibidez Mieres aldean, non Errepublika Sozialista aldarrikatu zuten, hala nola Sama de Langreo-n, edo komunismo libertario baten aldeko joeraz iraun zuten Gijón eta Felguera aldean, baina denbora laburrez.

Alejandro Lerroux-en gobernu radikal-zedistaren presidentearen aurka izan zen altxamendua, zeren eta errepublikarrak ez ziren CEDAko hiru ministro izendatu baitzituen. Francisco Franco jeneralak militarren operazioak Madrid bertatik zuzendu zituen, bereziki indar marrokiar kolonialak, Afrikako gudaloste regularra eta Legiokoak. Eta sarraski izugarri batez bukatu zen dena.

Kronikagileek (Manuel Chaves, José Díaz Fernandez, Josep Plà ...) kontatzeko modu eta era ezberdinez komentatu zituzten gertakizunak, noski, kazetaren joera politikoaren eta ikusitakoaren arabera, eta oraindik gaur egun historiagileen artean hilda erorien kopuruaren inguruan ez dago konformidade osorik. Ohi bezala iraultzaileen artean legoke hil kopuru handiena. Mila eta bostehun mehatzaritik gora hilak eta bi mila baino gehiago zaurituak. Artean Luis de Sirval kazetaria, salatzeagatik errepresioan gertatu ziren torturak eta hilketak. Ejerzitoaren eta seguritate indarrean artean hirurehun bat. Hogeita hamalau apaiz eta fraide ere erahilak gertatu zirelarik.

Oviedo, Asturiasko hiri nagusia borroken ondorioz parte handi batean suntsitua izan zen, bai alde batekoek bai eta bestekoek eragindako suteez. Halaber beste leku eta egoitza nagusik jasan izan zuten haustura eta txikitzeak, hala nola Katedraleko Ganbara Santuak, Unibertsitateak eta Campoamor antzokiak.

Espainia guztian, izandako greben ondorioz kontutan hartuta Katalunian, adibidez, Companys eta gobernu osoa Katalunyako Errepublikara aldarrikatu zutelarik hurrengo egunean kartzelatuak izan zirela, berrogei mila pertsonatik gora gertatu ziren presondegiratuak.

Alber Camusek, emigrante familia pobre batean jaioa Mondovin (Aljeria) eta frantses idazle engaiatu ospetsu bilakatuko denak, *Révolte dans les Asturies* antzerkia lau ekitalditan idatziko du, non irratia gerra albisteek leku handia hartzen duten, hala Lerroux presidentearen diskurtsoek, nola soldadoen arteko solasek. Bukaera honela ematen diolarik obrari tentsio latz eta gogor baten ondoren atsedean pixkat hartzearen:

ANDREA: Gauak freskatzen hasiak dira. Negua badator.

GIZONA: Bai, laster lehen elurrak gainean ditugu.
(*Iluntasuna. Kale buru batean, ikusleen atzetik infernuko hauspoz lagunduta kanta hau entzuten da.*)

Arratsaldean, maite, elkar dugu ikusiren,

Eta biok dantzan elkarrekin jauzi dugu eginen.

ETA HALAKO BATEAN, estropaden ondoren Idiakezen epaia berrikusteko garaia iritsi zen. Ekarri zuten bi guardia zibilez inguratua lehenik El Duesoko kartzelatik Larrinagako presondegira, gero Ondarretakora eta hemendik Justizia Jauregira. Juizioa Donostian 22an hasi eta 1934ko irailaren 26an burutu zen.

Ohi bezala goizeko hamar t´erdietan hasi da berriro Justizia Jauregian Frantzisko Idiakezen prozesuaren berrikustea.

Herri Juratu berria Azpeitiko epai barrutiko hamar gizonek osatzen dute, hauen artean alkatea bera dagoelarik, eta denak presidentearen aurrean frogatuta dute gaztelaniaz badakitela.

En pie, oihu egiten du epaimahaiburuak, eta ondoren, *Audiencia Pública*. Aretoa betetzen dutenen artean gazte ugari dago, batez ere hamazazpi-hogei urte inguruko neskati abertzaleak. Asaltoko guardia batzuek hala nola poliziakoak dabiltza jauregi aurrean eta inguruetan bertako jendea lasaitu dadin, sarrerako ilara azkenean desegin delarik.

Defentsako abokatua berriro Ignazio Usandizaga da. Sotosek eta Vega de Seoanek, bai familiako bai Ezkerra errepublikanoko abokatuak huts egin dute, ez dira agertu, ez baitute bidezko zat jo parte hartzea.

Fiskalak, Seijos jaunak, gertatutakoa berriz oroitzuz eta hilketa zela kontutan hartuz, hamalau urte, zortzi hilabete eta egun bateko kartzela eskatzen du.

Honen ondoren jaiki da Idiak ez gaztea, dotore jantzita, xaka, txingola eta guzti, esanez nahiago dituela adierazpenak euskaraz egin. Salak onartu du eskaera, interpretea bertan agertu delarik. Idiak ezek dena ukatzen du, aurreko adierazpenak ezeztatuz, eta fiskalak hitz egiten du epaituak momentu batean itzultzaileak gaztelaniaz adierazitakoa oker itzulita dagoela esaten duenean. Noski, epaimahai-buruak epaituari kontraesanaz ohartarazten dio, alegia, nola dezakeen zuzendu itzultzailea ez badaki gaztelaniaz.

Hasten da aurreko epaian bezala lekukoaren desfilea. Hogeita hamazazpi, hain justu. Lehena, Frantziskoren anaia Kokili. Honek ere euskaraz egiten ditu bere adierazpenak. Odolaren erantzuna besterik ez dela izan bere jokaera, azpimarratuz.

Domingo Uranga, Jesus Larrañaga eta Eleuterio Iribarrek ere euskaraz deklaratu dute, esanez, garai hartan Gatzaga oso urduri zebilela herrian eta berak hasi zuela borroka Kokiliri burniarekin erasotuz kaguendioska. Denek uste zutela hasieran Ziriakok hil zuela Kokili, Patxi gertatu zenean, ordea, hiltzailea.

Alarguna ez da ageri. Antonio de la Hoz, Gatzagaren adiskidea zena ere ez, eta Fiskalak eskatzen duenean honen bila joan daitezten, erantzuten zaio marinela dela eta seguraski itsasoan dagoela arrantzan.

Ordu bietan auzia eten egiten da esanez lauretan berriro jarraikiko zaiola.

Bazkari legea bete ondoren hasten da arratsaldeko sesioa. Fiskal jauna oso haserre dago gertatutakoaz egiten ari den interpretazioarekin eta galdetu egiten du ea zer pasatu den Gatzagaren alargunarekin, zer akusatzaile pribatuekin, zer lekukoekin, eta galdera guzti hauei isiltasunak besterik ez die ihardesten.

Usandizaga abokatuak hitza hartzen du eta luze mintzo da. Nola iritsi den Errepublika, nola egunkarietako tituluak oso kezkarriak diren, nola azken finean hila errepublikano bat den, hobeto esateko ezkertiar bat, eta hiltzailea abertzale bat. Bere ustez, ez dela hilketarik izan, zoritxar, ezbehar, tragedia bat baizik. Eta kontatzen du berriro gertatutakoa.

Nola mila bederatzirehun eta hogeita hamabiko otsailaren hamabostean, eguerdian, Ziriako Gatzagak esan zion hiru aldiz Frantzisko Idiakezi:

— Atzoko hitza mantentzen al dek?

Eta Patxik bere bidea segitu nahi zuela baina behartuta erantzun ziola:

— Zer nahi dek esatea? Atzo esan nian faltsua hintzela, nik ez nuen esan gizona ez hintzenik.

Hitzokin bazirudien Ziriakok mendekioa hartua zeukala, aski zuela, eta bi pezetak zituen Anjel Ezenarrori esan ziola:

— Emaizkidak bi pezetak.

Beraz, bere burua garailletzat kontsideratzen zuela une hartan, eta Anjelek eskua poltsikoan sartzera zihoanean agertu zela Kokili, Frantziskoren anaia zaharrena, eta esan ziola honi:

— Hi, hoa etxera bazkaltzera.- eta Ziriakogana bueltatuz - eta hik kontra zerbait baldin baduk presenta ezak kargua Epaitegian.

Eta honi erantzun ziola Gatzagak:

— Nik ez diat hirekin ezebez. Nire kontuak hire anaiarekin dituk.

— Baina nik bai nire anaiarekin.

Gatzagak haserre atera zuela burnia eta kontatzen du Usandizagak kolore biziz nola anaiak ez bazukeen erasotu Ziriako agian hila Kokili izan zitekeen. Alfonso X.ak XIII. Mendean idatzarazi *Las Partidas* lege bilduma aipatzen du, hala nola *Novísima recopilación* delakoa, zeinetan hitz egiten den defentsa legitimoaz, hain zuzen, Frantzisko Idiakezi zegokiona. Aitatzen ditu beste epaiak ere, hala nola Gasteizko audientzian gertatutakoa, non Juratuak aske eta errurik gabe erabaki zuen Domingo Luzilo Villarren kontra egindakoa, zeinak uztailaren zazpian Antoñanako taberna batean *El Leonés* deitu batekin izandako borrokan hau akabatu zuen. Eta juratukoengana zuzenduz esaten die ziur dagoela denek nahi dutela Idiakezen askatasuna, beraz, hartuko duten erabakia izan dadila bakeaz hain behartuak dauden momentu nahasi hauetan bake garai berri baten hasiera. Besterik ez.

Epaimahaiburuak herri-juratuari galdera hauek egiten dizkio eta erantzuna honakoxeak izan dira.

Lehena : Frantzisko Idiakez Inda jaunak, 1932ko otsailaren 15eko eguerdian Getariako plazan gubi batekin Ziriako Gatzaga erasotu zuen eta une batzuek geroago hau hila gertatu zen?

Erantzuna : Bai.

Bigarrena : Gertatutako hilketa egunaren bezperan Frantzisko Idiakez Indak Ziriako Gatzagari esan al zion ez zela gizona eta faltsu bat zela, zeinari Ziriakok erantzun zion ez ziola horrelakorik esango hurrengo egunean eta apostu egin zuten pezeta bana?

Erantzuna: Ez.

Hirugarrena: Gertatutako hilketa baino momentu batzuk lehenago esan al zion Frantziskori bere anaia Zeziliok etxera joateko eta bera Gatzagarekin konponduko zela, memento honetan Ziriakok erasotu zuelarik?

Erantzuna: Ez.

Laugarrena: Zezilio eta Ziriako zeuden lekura hurbildu zenean Frantzisko, eta berarekin han zeuden beste pertsona batzuek, hauetako batek gubia kendu zion Ziriakori eta besteek ostikoka kolpatu zuten?

Erantzuna: Ez.

Bostgarrena: Ziriakok erasotu zuelako Zezilio erraminta zorroztu batekin hau lurrean defentsarik gabe zegoela, eta ihes egiten ari zelarik gertatu zen gertatutakoa?

Erantzuna: Bai.

Seigarrena: Frantzisko Idiakezek bere anaia Zezilio heriotzetik libratu nahi izan zuelako gertatu zen gertatutakoa?

Erantzuna: Bai.

Zazpigarrena: Zezilio Idiakezek epaitzen ari garen bere anaia moduren batean bultzatu al zuen egitera egin zuena ?

Erantzuna: Ez.

Zortzigarrena: Epaitua den Frantzisko Idiakez Indak bere anaia Zezilio Ziriakoren kontra egindako xaxatzeren batean parte hartu al zuen ?

Erantzuna: Ez.

Beraz, fiskal jaunak honakoa ondorioztatzen du, alegia, hilketarako arrazoi garrantzizko eta funtsezko zenbait agertzen direnez, epaitua libre geldi dadila. Abokatuak ez du inolako hitzik erantsi nahi.

Era berean Epaimahaia erretiratu egiten da erabakia hartzera, eta hogeit hamar minutura agertu ondoren, epaia ematen du, Sententziaren Agiria ahots goraz, data, *resultandoak* eta *falloa* irakurtzen du, Frantzisko Idiakez Inda aske utzirik. Halaber, agindua ematen dio presondegiko zuzendari jaunari libre laga dezan, eta erabakitzen du epaitegiko kosteak ofiziozko izan daitezen.

Patxi Idiakezi kentzen dizkiote esku-muturreko burdinak eta aretoan dagoen jende gehiena pozez eta kontentuz lehertzen da. Giro izugarria dago. Denak nahi dute Frantzisko zoriondu eta besarkatu. Lehenik etxekoek, gero herritarrek eta alderdikoek, azkenean bertan zeuden Emakume Abertzale Batzako andre dotoreek.

Patxadaz eta oinez Kontxako uharteari begira, itsasoko kresala dastatuz joan zen Ondarretako kartzelara berriro bi guardia zibilez inguratuta aske ateratzeko beharrezko paperak betetzera. Ondarretako kartzelaren sarrera hondartza ondoan kokatua, lau uretara teilatua daukaten bi solairuko dorretxe txikik ezker-eskuin gordetzen dute. Murru gora batek inguratzen du egoitza ixkin bakoitzeko garitan zaindariak goardia egiten dutela. Leihoetatik ikusi ahalko da nola donostiar tenislariak jotzen dioten pilotari eta korrika dabiltzan pistetan pilotaren atzetik noizbehinkako oihera eta buila artean. Eta leiho burdinztaturiko zirrikietatik ere ikus daiteke uhartea, Santa Klara islako kriseilua gauean bere argia aldi labur eta zehatzetan piztutaitzaliz itsasoratzen duela.

Jadanik aske, Bilbo aldera doan kostaldeko trena hartu du anaia Kokilirekin. Zarautzen jaitsi da eta Getariako bidean abiatu kartzelaz-kartzela bi urte t´erdi ibili ondoren, ama besarkatu nahi baitu alden lasterrena.

Etxera zenean ama hantxe zeukan sukaldean zain eta haserre balego bezala hitzokin errezibitu zuen:

— Askatu al haute?

VII

GETARIAN ELKARREKIN

LUIS COMPANYS I JOVER lehendakari katalanaren hitzak irakurri ditu Itziarrek Idiakezen largazkia dakarren guardia zibilen trikornio eta fusilen artean dakarren *El Día*-ko lehen orrialdean. Ez zait interesatzen legala den ala ez Euskal Udaletxeen mugimendua, interesatzen zaidan bakarra Euzkadiren kausaren garaipena da, zeinari Kataluniak bidaltzen dion bere agurrik sutsuena. Gora Euzkadi!

Politikari katalanistaren nondik-norakoa aztertu nahi du eta irakurtzen du, Tarròs-en jaioa dela gizona, abokatua, Katalunia-ko *Esquerra Republicana*-ko liderra, Espainako Itsasoko Ministroa izana, CEDA-ko hiru ministro gobernuan sartu zirenean eta sozialistek deituriko greba iraultzailea zabaldu zenean Espainako herrialde ezberdinetan eta bereziki Asturiasen, urriaren seian Gobernu berria monarkiazale eta

faszista kontsideratutakoan *L'Estat Català* aldarrikatu zuena ez denbora luzez *República Federal Española* deitua izan zenaren barnean. Companys-ek eta beste batzuek sinaturiko Bandoa honela bukatzen zen:

CATALANES: La hora es grave y gloriosa. El espíritu del presidente Macià, restaurador de la Generalidad, nos acompaña. Cada uno en su lugar y Cataluña y la República en el corazón de todos. ¡Viva Cataluña! ¡Viva la República! ¡Viva la libertad!

Ezkerrako indarrekin hala nola partidu eta *Alianza Obrera* deituan biltzen ziren langileen erakundeekin kontaktzen zuen Companys-ek, CNT-en salbuespenarekin.

Ekintza honen interpretazio ezberdinak eman dira. Adibidez, Stanley G. Paynek, historialari ingelesak dioskunez gizon zentzuduna eta zuhurra zen Companys, baina ezker muturreko katalanistek estutzen zutela eta bultzatzen erabaki radikalak hartzera.

Halaberetsu Pere Anguera Nolla historiagileak dioskunez independentziazaleen giza radikalizazioak eta talde marxisten katalanismoaren eraginak bultzatu zuten halako egoeran, non joera ezberdina zuten Madrیدهko eta Bartzelonako agintariek krisi larria sortu baitzuten. Gizarte iraultza oztopatzen entseiatu omen zen Companys, mugimendu politiko propioa sortuz apropos iraultzaileen ekintzak saihestearren, batipat talde independentisten eta langileen arteko borrokarik sortu ez zedin, aurrez-aurre kontra joan ez zitezten.

Josep Sánchez Cervelló-k bere aldetik esaten du nahas-mahas handi bat sortu zela Espainiako beste ezker indarrekin ituna egiteko zirenen aldekoen (Justiziako kontseilari zen Joan Lluhíren jokamoldea), independentisten (Gobernazioko kontseilari zen Josep Dencàs-en postura) eta funtsezko, benetazko iraultza sozialista bat bultzatzen zutenen artean (Joan Comorera, USC-eko liderra, eta Ekonomia eta Laborantzako kontseilaria), eta ondorioz bere izaera katalanista aski modu apalean ordurarte adierazi eta agertu izan zuenak, kontrakoek zioetenez, ondorio lazgarriak izan zituen erabaki hura hartzera bultzatu zutela.

Madridek aginduta Domingo Batet jeneralak berehala suntsitu zuen Companys-ek aldarrikatu Estatu Berria, zeren eta gobernu osoarekin batera detenitua eta preso hartu baitzuten eta burdinsare atzean kokatu Bartzelonako portuan moilaturik zegoen URUGUAY itsasuntzian, zeina errekiatua izan baitzen presondegi bilakatzearren, non mantendu zituzten 1935eko urtarrilaren zazpia arte. Egun honetan Madrideko Cárcel Modelo deitura eraman zituzten, Berme Konstituzionalak zeuzkan epai-mahaiaren aurrean aurkeztearren.

Hogeita hamaseian ospatu hauteskundeak eta Frente Popularraren garaipenaren ondoren laster, ez batzuek nahi bezain laster halere, iritsi zen Amnistia. Manuel Portela Valladares ministro zentristak dimititu ondoren Manuel Azañak ezkerreko gobernu osatu zuen otsailaren 19an. Kale manifestaldi ugarien aurrean urriko presoek askatasuna eskatuz, Korteetako Diputazio Iraunkorrek amnistia lege

dekretu batez aprobatua izan zen 21ean, eta instrukzioak eman ziren berehala presoak askatuak zitezten. Gau horretan bertan Puerto de Santa Mariáko presondegian zeuden Companys eta bere kideak, Comorera eta Lluhí, libre utzi zituzten eta Madriderantz abiatu ziren, Kordoban gaua igaroz. Biharamunean Ocañan bildu ziren Cartagenako kartzelatik zetozen beste lau kontseilariekin eta errezibitzearren Bartzelonatik iritsiak ziren familiakoekin.

Gerra Zibila 1936ko uztailaren 18an piztu zen Afrikan, Francisco Franco jenerala buru zutela, eta Generalitateko Jauregian Lluys Companys-ek anarkisten delegazio bat hartu zuenean bere bulegoan besteak beste, hemen euskaraz emana esan zien:

Gaur hiriko eta Kataluniako jabeak zarete zuek bakarrik gainditu dituzuelako militar faszistak, eta espero dut ez duzuela gaitzetsiko une honetan gogoraraztea ez zaizuela faltatu ene partiduko gutxi edo askoren laguntza eta eskuadrako mutil eta goardiena [...] Irabazi egin duzue eta dena dago zuen boterearen menpe, ez banauzue behar edo ez banauzue Kataluniako lehendakaritzat, orain bertan esaidazue ni faszismoaren aurkako soldado bat gehiago izango naiz eta. Alabaina uste baduzue kargu honetan, zeina soilik utziko nukeen faszismo garailearen aurrean, nire partiduko gizonekin, nire izenarekin eta nire ospearekin borroka honetan lagun dezakedala, gaur hirian bukatzen dena, baina ez dakiguna noiz amaituko den Espainian, nirekin konta dezakezue, nire leialtasunarekin politiko eta gizon bezala...

Hiru urtez anaien arteko borroka latz eta odoltsua pairatu ondoren, gerra galduta zeukatela ikusita exilioko bide garratza hartu beharrean aurkitu ziren Galizia, Katalunya eta Euzkadiko lehendakariak. Castelao, Agirre eta Companys. Tamalez, Frantzia okupatuan zegoelarik Companys polizia alemanak Nantes ondoan zegoen La Baule-les-Pins herrian detenitu zuen, eta aginte frankistaren atzaparretan utzi zuten. 1940ko abuztuaren 29an Irungo frontera, euskaldunen sasimuga igaro eta Madridera eraman zuten, non torturak pairatu izan zituen urriaren 3a arte. Hemendik Montjuic-eko gaztelura pasarazi zuten, eta gerra epaia, juicio sumarisimoa egin zioten urriaren 14ean. Oso ordu gutxi iraun zuen honek, noski, erabakia aldez aurretik hartua baitzuten, hau argia izan zen: heriotz zigorra militar errebelioagatik.

Biharamunean, 1940ko urriaren 15ean goiz alban, Francoren baiarekin, *enterado* zioen soilik telegramak, fusilatu zuten Montjuic-eko gazteluan Lluys Companys, eta lurperatu Santa Eulalia izeneko hobian.

EUZKADI kazetaren orrialdeak ere pasatzen aritu da Itziar eta 1936ko irailearen 23an topatu du nola Muniategi´tar Sabinekin ematen duen Federiko García Lorca poeta ospetsuaren heriotza, hobeto esatearren erahilketa, zehazki dioen bezala, *fasciotarrak erail dabe geyagoko barik. Bere omenez*

en zkerara itzuli dodaz alik-onduen olerkitxu bi. Eta Bilbon (*Yerma*) eta Donostian (*El romancero gitano*) urte hortan bertan egondako poetaren poema itzulikatuetarik xit iradokigarri iruditu baitzaio bigarrena kopiatu du.

ZALDIKARIARENA

Kordoba

Bakar eta urrun.

Zaldiño baltz, ilargi aundi

eta, gaimelurrak zorroan.

Ni Kordobara inoiz ezin el

bidea ondo jakin arren.

Leunetik eta bai aizetik

zaldiño baltz, ilargi gorri.

Eriotz, eriotz begira daukat

Kordobako landetxietatik.

O, au bidearen luzea!

O, nire zaldiño kementsu!

Ai, eriotzak, eriotzak ditxarost,

Kordobara eldu baino len!

Kordoba.

Bakar eta urrun.

DOKTORE TESIA bikain batekin gainditu du Itziar Gatzagak. *Sobresaliente cum laude*, dio Unibertsitateko idazkaritzako agiriak, eta bertan sinatu dute epai-mahaiko partaideek. Gregorio Monrealek, presidente gisara, Jose Manuel Castellsek idazkari moduan, Abelina Gutierrez eta Marie Lafourcadek bokalak eta Jesus Prieto, tesi-zuzendari bezala. Esposizio benetan klar, argi eta bikain baten ondoren Nafarroako, Euskal Herriko, Bordeleko eta Madrideko unibertsitateetako irakasleek euren jakituria erakutsiz, iritzi eta oharrak, laudorioen ondoren adierazi dizkiote doktoregaiari, zeinak apaltasunez irentsi behar izan dituen. Batik bat argitaratzeko unean zuzendu beharko lituzkeen erratak, eta forma aldaketa batzuk aholkatu dizkiote.

Gregorio Monreal jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohiak eta Bizkaiko Foruetan hala nola Estatutu ezberdinen historian txit aditua denak goraiatu du egindako lan serioa hala nola azpimarratu oraindik ikertu gabeko beste bide ezkutu batzuek, sakondutakoan lagungarri izango direnak garai horietan argia eta zehaztasuna ezartzen.

Jose Manuel Castells jaunak hemeroteke ezberdinetan egindako lana goratu du, eta batez ere historiako une zail eta eztabaidatsu horietan zenbait talde politikoren jokaera makur eta iluna argitzeko balioko duela.

Abelina Gutierrez andreak 30. hamarkadako Arte eta artistei buruz txit ongi jantziak, Clara Campoamor eta beste zenbait emakume feministek egindako lanaz mintzatu da, nola lortu zuen botoa emakumeentzat eta Parlamentuan diputatu

izatea. Hala nola Nicolas Martinez Ortiz-ek eta Obdulio López de Uraldek Aberri egunetarako egin kartelez, eta Jon de Zabalo *Txiki* Estatutoaren alde egindakoez...

Marie Lafourcade andreak azpimarratu du artxiboetan egin beharrezko ikerketak eta bereziki auzietako gora-beheretan nola aurkitu izan diren euskarazko lekukotzak, beste inon aurkitu ezin direnak, eta lekuko bakoitzaren euskalkia adierazten dutenak, apaizen dotrina eta liburu aszetikoen jaidura garbizaleek jaso izan ez dutenak.

Administrazioko paper denak bete ondoren gonbitea egin die denei, hala nola adiskide kuttunei Jovellanos 3 kalean dagoen Euskal Etxeko Irizar jatetxera. Taxiak hartu dituzte Senda del Rey kalean eta Mendebaldeko Parketik gorantz, Princesa kalea eta Gran Vía igaro ondoren iritsi dira Alcalá kalera eta Círculo de Bellas Artesen parean jaitsi dira. Antonio Machado liburu-dendatik eta Hotel Sueciaren paretik pasa eta sartu dira Euskal Etxean solasean. Atetzar handi bat igarotakoan sotoko horman zintzilik dagoen oroit-harria irakurtzen dute, non esaten den *1982ko urriaren batean Eusko Jaurlaritzako lehendakaria zen Karlos Garaikoetxea, eta Madridedeko alkate zen Enrique Tierno Galvánek inauguratu zuten egoitza*. Gipuzkoako eta Donostiako Kutxak, Gasteizko eta Arabako Kutxak, hala nola Bizkaiko eta Bilboko Kutxek parte hartu zutela. Bai eta ere Nafarroako kutxen federazioko ordezkariak. Memento horretan Eusko Parlamentuko buru Juan Jose Pujana zela, eta Euskal Gobernuako Kultura kontseilari Ramon Labaien. Denok bertan zirela bada estreinaldia eman zioten lekuari.

Igo ziren, beraz, jatetxera. Eseri ziren haritzeko mahai eder baten inguruan, eta Euskal Herriko margolariek apaindutako aretoan. Zizka-mizkak, arrain zopa, bisigua eta hostopila, Errioxako Remelluri erretserba on batzuekin. Eta bukatzeko Ruynart txanpain frantsesa ospatzearren eguna. Lan ongi eginaren eta pazientziaz betearen ordain saria. Jan-edanarekin zertxobait animatu ondoren egoera politikoaz ere mintzatu ziren, talde politiko ezberdinez, EAJ-ren historia bilakaeraz, PSOE-ren gobernuaz, HBren izen aldaketen esanahiaz. Politikari hautatu zenbaiten solas mailagabekoaz eta euskara eskasagoaz, Unibertsitateko lan postuen garestiaz eta horiek lortzeko ohiko murrontzez eta betebeharez, joko hits eta borrokez...Etorkizunerako asmoez...

GETARIAN ELKARREKIN topo egin dute Ikerrek eta Itziarrek. Ikerrek familiako etxebizitza du bertan leiho ederrak dituenak itsasoari begira. Eta noizbehinka jaisten da bai igeri egitera, bai eta pintura tramankulu guztiekin portura zenbait bapore, batel, belari, txanela eta jende margotzera.

Gaur, uztailak zortzi, eguraldi primerakoa dago eta mainatzeko asmoz jaitsi dira biak kaiara. Eguerdia da. Eguzkia goi-goian dabil.

— Kaixo, Iker, zer da zure bizitzaz?

— Eta zu, Itziar, zer egiten duzu gero eta pollitago egoteko? Mentrídanan topo egin genuenez gero zenbat denbora igaro den. Luzetsi dut benetan zu ikusi gabe tarte luze hau. Tesia bukatu al zenuen?

— Bai, Iker, nahiko kostata baina azkenean dena bikain atera zen. Zu ere oso bapo ikusten zaitut. Bigarren Errepublikara garaiko arteaz Reina Sofian egin behar zenuen master hura ongi bukatu al zenuen? Zer da zure andregai daniar pollit hartaz?

— Itzuli zen Danimarkara, eta hementxe nago paisaiatz, bakardadeaz eta orain zure presentzia paregabeaz gozaten. Masterra, niri ere ongi kostatuta baina bukatu nuen eta hemen nabil noizbehinka *Berría* eta hemengo beste aldizkarietan nire artikuluak arteaz bidaltzen eta euskal artisten mundua aztertzen eta ezagutarazten. Eta zuk?

— Tesia amaitu nuen, esan bezala eta orain EHUko Zuzenbide Fakultatean Donostian nabil lanean kontratu aski eskas batekin, baina tira...

Ranplan aldatu dira. Ez dabil jende askorik hondartzan. Batik bat bikote gazteak beren seme-alabatxoekin. Ikerrek udako jantzi urdina loreztatuaren azpian, hau kentzean mainu jantzi gorri estilizatua agertzen duen Itziarri :

— Ezagutzen duzu Benus pottola hori, larrutsik aldatzen inolako konplexurik gabe ari dena, ez toailarik, ez deus?

— Ez.

— Beatriz Lopetegi poeta da. Aspalditxo poema batzuek Irakur sailean argitaratu zituen. Etxebizitza dauka hemen, eta oso maiz etortzen da hemendik mainatzera. Gogoan ditut oraindik idatzi zituen bertso haiek: *Ez emakume / ez ama / ez eme / ezin izanik...*

— Ez nuen uste hain pottola zegoenik, zeren eta beti egunkarietan gaztetxo ikusi izan dut, walkiria horaila baten moduan. Baina dena den, ez dut bere poesia aspaldian irakurri, ez eta beste poetaren libururik, lanak beste motako liburuen esklabo egin bainau.

Iker argala da, liraina, garaia eta gihartsua eta toaila kendu duenean gerritik mainu jantzi urdina ifar-orratz batez hornitua erakusten du. Jada beltzarandua dauka narrua.

— Hemen bertan ordu erdi barru, — esaten dio Itziarri uretako erlojuari begiratzuz. Txakoli batzuk hartzera eta bazkaltzera ere gonbitatzen zaitut. Gero nire margo batzuek erakutsi nahi nizkizuke ea zer iruditzen zaizkizun, eta batenbat gogoko baduzu oparitu.

— Ongi, dio Itziarrek.

Mareagora da eta itsasoko ura hogeita bat gradutan dagoela irakurri du *Berría* egunkarian goizean gosariarenean irakurtzean eta orain eguzkiak berotzen duelarik uretan murgiltzea benetan gustagarria gertatu zaie. Plazera. Igeri egitea betidanik gustatu izan zaie bioi, eta Iker itsas barrenerantz, Zarautz aldera abiatzen da krowl arin batean, Itziarrek kortxoilararen luzeran itzuliak ematen dituen

bitartean. Ordu honetan oraindik ez dabil igerilari askorik eta oso gune lasaia da. Txano horian ongi bilduta dauka ile labur eta kixkurra. Betaurrekoekin hondartza eta itsasbelarrak harkaitz artean dantzan ikusten ditu beheraldera so egitean.

Ongi lehortu eta orraztu ondoren Iker toaila eta mainujantzia besopean daramala eta Itziar bere Loeweko larruzko poltsa bizkarretik zintzilikatua badoaz herri kaxkorantz. Eskaileretatik igotzean ikusten dituzte bertan babesturik Afrikako bihotzetik iritsitako saltzaileak beren mantak lurrean eta hornigailuak ongi sailkatuta. Denetik eskaintzen dute, merke-merke, *barato-barato*. Kolore eta tamaina guztietako erlojuak, esku-muturreko uztai narruzkoak, urre eta zilar itxura dutenak, belarritakoak, eraztunak, ebanozko eskulturak...

Iribarrean Getariako txakolin bana dozenerdi bat antxoia oliotan ezarritakoekin dastatzen duten bitartean elkarren berri kontu-kontari jarraikitzen dute. Gero patxadan jaitsi dira, elizaren tunelpeko galtzadarrietan Itziarren zapata finek hotsegiten dutela eta Ikerren lagun eta ezagun batzuei adiosala eginez. Myflowerseko terrazan petrilaren inguruko mahai batean eseri dira, Katrapona plazan.

Bertako ixkirak, otarrainxkak, krabarroka eta lupiak eskatu ditu Ikerrek, Itziarrekin topo egiteak aspalditik itxaroten zuen mirari handia ustekabean gertatu baita gaur. Eguzkiak jotzen baitu toldopean babestu dira itzalean argiaren ederra dastatuz eta begiak begietan itsatsiak dituzte. Portuko

untzien, itsas uhinen eta ostertzaren gorabeherak barneratzen ari zaizkio Ikerri Itziarren begi berdeen isla amoltsuan.

Tesiaz luze mintzatu zaio Itziar, eta Ikerrek bere birraiton epaituaren etxean ixtorio hori nola kontatu izan den eransten dio. Errepaso xehea ematen diote ordurarteko bizimolde nekagarriari eta une honetan zerbait berriri heltzeko punduan daudela, zirt edo zart egiteko gurutzebidean. Sentimendu estrainio adierazezinean murgiltzen ari diren sentsazioa daukate biek.

Etxea erakutsi behar diola eta kafea hartu ondoren abiatu dira Ikerren etxe-bizitzara. Benetan argitsua, ederra, eroso da. Salaren leihoak zuzen-zuzenean portura ematen dute eta urrutian Zarautzko kostaldea ageri zaie.

Hormetan zintzilik dauden margoetan kolore biziz, urdin, zuri, gorri, berde, more eta beste ageri diren Getaria, Donostia, Pasaia, Hondarribia eta Bartzelonako portuetako akuarela fin finak, zur xume bernizatuz enkoadratuak. Ikerrek sinatuak ageri dira batzuek, besteak ez, soilik urtea irakur daiteke eta batzuek untziaren titulu bitxia daramate: *Arrate*, *Kuku*, *Xagua*. Marta Cardenasek sinatu koadro bat ere asko gustatu zaio, *Satanas* du izena untziak. Beste batek Jose Luis Zumetak sinatua baina titulurik gabeak bi neska gazte biluzgorririk hondartzan irudikatzen ditu. Bada Kazimir Malévichen erreproduzioa bat ere, Abangoardia errusiarrak mugimenduaren aitzindari izan zenaren San Petersburgoko Museokoa: *Zirkulu beltza*. Itziarrek bereziki begiz jo duen beste bat El Prado Museoko kopia da, zehazki XIX. mendeko

Martín Rico y Ortega paisaia-margolariaren *Desembocadura del Bidasoa*. Hondartzan ur errekatxoak, itsasturiak lanean, traineru luzeak, batzuek lehorrean besteak ur ertzean, belariak oihal zuriak haizean, hodei zuri beltzak, kumuluak eta balea hodei grisak zerua hornitzen, noizbehinkako ostarteak, urrunean Hendaiaiko dunbak, harkaitz bikiak.

Leiho aurrean diskajotzailearen ondoan ikusi du Itziarrek haritz zurezko libututegi ongi hornituan diska handien sail eder bat eta” ikus ditzaket” esan ondoren “bai, bai, bai”, erantzuten dio Ikerrek, “eta nahi dituzunak ere eraman ditzakezu”.

Arreta handiz hartzen eta begiratzen hasi da, tituluak errepasatzen ditu ahots argiz Itziarrek (*Festara*. Sarriegi. Coro de Cámara del Orfeón Donostiarra; director, Juan Gorostidi. *Canciones vascas*. San Sebastián. Columbia, 33 rpm; The Beatles, George Brassens, Yves Montand, Édith Piaf, Juan Manuel Serrat, Pako Ibañez, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Imanol Lartzabal...) eta azkenean bailaku deman eztiki, baratxe-baratxe, soineko, niki eta beste jantzien zamaz aske, hauek lurreratu dituztelarik urruti ostertzean kaio zuriak airean bata besteari jarraika dabilzala, gorputz bilutsen jokoan elkarrekin nahasi dira zetazko maindireen gainean.

Imanol Antiguoko abeslari engaiatu eta erbestean abandonatuaren ahotsaren sakona entzuten duten bitartean Mikel Arregik asmatu hitzak kantari:

itsasoari begira
zer dezaket desira?
bakarrik nago eta
nik behar zaitut [...]
entzun dut zure boza
eta zarratatu egin didazu bihotza.

AURKIBIDEA

I	ITZIAR GATZAGA MADRIDEN.....	5
II	IKER IDIAKEZ REINA SOFÍAN.....	11
III	1931.BIGARREN ERREPUBLIKA ALDARRIKATZEN .	19
IV	1932. ZIRIAKO GATZAGAREN HILKETA.....	49
V	1933. FRANTZISKO IDIAKEZEN EPAIA.....	85
VI	1934. ERREBISIOA ETA ASKATASUNA.....	119
VII	GETARIAN ELKARREKIN.....	143

